

eman ta zabal zazu




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

ADINGABEEN DELITUGILE SEXUALEN ESPETXETRATAMENDUA ETA BIRGIZARTERATZEA



Gradua: Kriminologia

Ikasturtea: 2020-2021

Egilea: Eider Arruabarrena Varela

Tutorea: Jose Martín Amenabar Beitia

LABURPENA

Birgizarteratzea delitugileen berrerortzea murrizteko funtsezko faktoreetako bat dela kontuan hartuta, espetxetik atera ondoren zer egoerari aurre egin behar dioten jakitea ezinbestekoa da. Hori dela eta, lan honen helburu nagusia izango da adingabeen aurkako delitugile sexualek birgizarteratze duin bat izateko egiten den prozesua aztertzea. Horretarako, espetxean bizi duten egoera eta bertan jasoko duten tratamendua ez ezik, behin espetxetik irteten direnean dituzten aukerak ere aztertuko dira. Horretarako, informazioaren bilketa egiteaz gain, elkarrizketa desberdinak egin dira, hauen tratamenduan adituak diren pertsonen zuzenduak. Horrez gain, hauen birgizarteratzean beharrezkoa izango den gizartearen harrera ere ikertu da; Internet bidezko inkesta baten bitartez. Lan honetako emaitzek espero zena adierazi dute; adingabeen delitugile sexualek arazo ugari aukituko dituztela birgizarteratzeko. Hortaz, beharrezkoa da adituek esku-hartzeak planteatzea, adingabeen aurkako delitugile sexualek birgizarteratze duina izan eta ondorioz hauen berrerortzea murrizteko; guztien onurarako.

Hitz gakoak: Pedofilia, Sexu-delitugintza, Berrerortzea, Tratamendua, Birgizarteratzea

RESUMEN

La reinserción es uno de los factores clave para reducir la reincidencia de los delincuentes, por ello, es imprescindible conocer la situación a la que se enfrentan tras su excarcelación. Por ello, el objetivo principal de este trabajo será analizar el proceso que se realiza para que los delincuentes sexuales contra menores tengan una reinserción digna. Para ello, se analizará la situación que viven en prisión y el tratamiento que recibirán en ella, así como sus posibilidades una vez salgan de prisión. Para poder hacer la investigación, además de la recogida de información, se han realizado diferentes entrevistas dirigidas a personas expertas en el tratamiento penitenciario de los agresores sexuales. Además, también se ha investigado la acogida social que será necesaria en su reinserción; mediante una encuesta a través Internet. Los resultados de este trabajo indican lo esperado; que los delincuentes sexuales de menores se van a encontrar muchos problemas para su reinserción. Por tanto, es necesario que los expertos planteen intervenciones para que los delincuentes sexuales de menores obtengan una reinserción digna; y por consiguiente, se reduzca su reincidencia.

Palabras Clave: Pedofilia, Delincuencia sexual, Reincidencia, Tratamiento, Reinserción

ABSTRACT

The social reintegration is one of the key factors in reducing the recidivism of offenders, in fact, it is essential to know the situation they face after their release. Therefore, the main objective of this work will be to analyze the process that is carried out so that sexual offenders against minors have a dignified reinsertion. For this purpose, the situation in prison and the treatment they will receive in prison has been analyzed, as well as their possibilities once they leave prison. To this end, in addition to the collection of information, various interviews have been conducted with experts in their treatment. In addition, the social reception that will be necessary in their reintegration will be investigated through a survey through the Internet. The results of this work indicate what is expected; that child sex offenders will find many problems to reintegrate. It is therefore necessary for experts to devise interventions to reduce the dignified reintegration of sex offenders against minors and the consequent reoffending of minors, for the benefit of all.

Key Words: Paedophilia, Sexual Delinquency, Recidivism, Treatment, Reintegration

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	6
1.1.-Gaur egungo egoera EAEn eta Nafarroan	8
1.2.-Zifra Beltza	10
1.3.-Delitugile Sexualen Berrerortzea.....	11
1.4.-Tratamenduaren Garrantzia	13
1.5.-Lan Honen Helburuak eta Metodologia.....	15
2.-SEXUALITATEA.....	18
3.-PARAFILIAK.....	22
4.-PEDOFILIA	26
4.1.-Kontzeptua	26
4.2.-Prebalentzia.....	28
4.3.-Etiologia.....	29
4.4.-Ezaugarriak	32
4.5.-Pedofiloak eta Haurren Abusatzaile Sexualak Gauza Bera?	35
4.6.-Modus Operandia.....	36
5.-EMAKUMEZKO ERASOTZAILEAK.....	40
6.-TRATAMENDUA	48
6.1.-Delitugintzaren Aurrezaintza	48
6.2.-Delitugileentzako Tratamendua Espetxetan	50
6.3.-Delitugilearen Arrisku Faktoreak	51
6.4.-Espetxeko Tratamenduen Legedia.....	54
6.5.-Programa Modular Orokorrak	57
6.5.1.-Adingabeen sexu delitugileen kasuan	59
6.6.-Sexu Delitugileentzako Tratamendu Zehatzak	60
6.6.1.-Terapia Kognitibo-Konduktualen Nagusitasuna.....	63
6.6.2.-Espainiar Estatuko Espetxeetako Tratamenduak (PCAS eta PCAS-R).....	64
6.6.3.-Gasteizko Zaballa Espetxeko Tratamendu Bereiztua.....	67
7.-TRATAMENDUEN ERAGINKORTASUNA.....	72
8.-DELITUGINTZA SEXUALA BEHIN-BETIKO UZTEA	80
8.1.-Teoria Naturala	80

8.2.-Kontrol Sozialaren Teoria.....	82
8.2.1.-Familia.....	82
8.2.2.-Enplegua.....	84
8.2.3.-Kapital Soziala	85
8.3.-Garapen Kognitiboa	87
9.-ADINGABEEN AURKAKO SEXU DELITUGILEEN BIRGIZARTERATZEARI BURUZKO IRITZIA	90
9.1.-Metodologia	92
9.2.-Emaitzak	93
9.3.-Eztabaida.....	100
9.4.-Ondorioak	106
10.-ESPETXETIK IRTEN OSTEAN EMATEN DIREN ESKU-HARTZEAK DELITUGILE SEXUALEKIN.....	110
10.1.-Delitugile sexualen erregistroa: Lotsa sentiarazi	110
10.2.1.-Euskal Herriko kasua	117
11.-ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA	120
12.-BIBLIOGRAFIA	126
13-TXOSTEN EXEKUTIBOA	134
14- ERANSKINAK	146
14.1.- Elkarrizketa: Zaballako Psikologoa	146
14.2.- Elkarrizketa: Hitzuneko Psikologoa	152
14.3.-Inkesta: Birgizarteratze duina merezi dute?.....	160
14.4.-Inkestako datuen analisia	162

1.-SARRERA

Espainian indarrean dagoen Zigor Kodea irakurriz gero, gaur egun delitu kontsideratzen diren egoera guztiak aurkitu daitezke. Bertan agertuko dira, esate baterako, lesio delituak, ondarearen aurkako delituak, ohorearen aurkako delituak edota askatasun sexualaren aurkako delituak. Ikerlan honetan, fokua azken horietan ezartzea erabaki dut.

Hasteko aipatu behar da delitu horiek bi motatan sailkatu daitezkeela. Alde batetik, sexu-askatasunaren aurkakoak daude, eta bestetik sexu-ukigabetasunaren aurkakoak. Ekintzak berdinak izan daitezkeen arren, hauek bereiztuko dituen ezaugarri nagusia subjektu pasiboa izango da, hau da, biktima. Sexu askatasunari buruz ari garenean, ondasun juridikoaren titularra pertsona heldua izan beharko du. Izan ere, heldutasuna duen edozein pertsonak sexualitateari buruzko erabakiak hartzeko eskubide osoa izango du.

Aldiz, sexu ukigabetasunaren aurrean, adingabe eta ez-gaiak aurkituko ditugu. Lehenengoen kasuan, etorkizunari begira modu aske batean erabakiak hartzeko askatasuna izatea bermatu nahi da. Ez-gaien kasuan, ordea, bermatu nahi dena sexu objektu ez bihurtzea da. Hemen ikusi daiteke arlo juridikoan ez-gaiek ez dutela sexuaren ikuspegitik guztizko askatasunik izango.

Zigor Kodeak 2015.urtean izan zuen erreformak aldaketa handiak ekarri zituen haurren sexu-ukigabetasunari dagokionez. Horietako bat izanik, lehen adostasuna emateko adin hori 13 urtetatik 16 urtetara igotzea. Honen ondorioz, subjektu pasiboak 16 urte baino gutxiago dituen kasuetan, sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu baten aurrean aurkituko gara. Izan ere, adingabe hauek sexualitatearen esanahia ulertzeko eta horren arabera jokatzeko gaitasun eta heldutasun gabezia dutela uste du doktrinak¹. Hori dela eta, heldua den norbaitekin erlazio sexualak izateko onarpena ematen badute ere, ez da baliagarria izango. Hala ere, kontuan hartu beharko da Zigor Kodeko 183 quater artikuluak dioena. Izan ere, 16 urte azpikoen adostasunak balioa izango du egilea garapen edo heldutasun mailaren arabera adingabearengandik hurbil dagoenean.

¹González Cussac José L, Matallín Evangelio Ángela, & Górriz Royo Elena. (2015). *Comentarios a la reforma del código penal de 2015*. Tirant lo Blanch 579.Or.

Adingabeen aurkako delitu sexualei buruz ari garenean, hainbat tipo aurkitu daitezke. Hau da, ez da soilik ekintza batetara mugatuko. Gainera, esan bezala, biktimaren arabera, ekintza berdinak zigor desberdinak izan ditzake. Adibidez, Kode Penalaren 182.1.Artikuluan 16 eta 18 urte arteko biktimen askatasun sexuala bermatu nahi da. Helduren batek konfiantza- edo autoritate-posizioaz baliatuz edo engainua erabiliz adin tarte horretako adingabearekin sexu-egintzak egiten baditu.

Aldiz, biktimak 16 urte baino gutxiago baditu, erlazio sexualetarako onarpena emateko eskubiderik ez izanez, beste delitu mota baten aurrean aurkituko ginateke. Zigor Kodeko 183.Artikuluan zehar aurkitu daitezke zeintzuk diren delitu motak:


- 183.1.Artikulua: Bi urtetik sei urtera arteko espetxealdi-zigorra izango du aipatutako biktimarekin sexu-egintzak egiten baditu.
- 183.2.Artikulua: Bost urtetik hamar urtera arteko espetxe zigorra izango du egitateak indarkeria edo larderia erabiliz egiten badira. Zigor berdina izango du biktima hirugarren batekin edo bere buruarekin sexu-egintzak izatera behartzen badu.
- 183.3.Artikulua: Zortzi urtetik hamabi urtera arteko espetxe zigorra izango du baginatik, uzkitik edo ahotik haragia sartzen denean edota lehenengo bi bideetatik gorputz-adarrak edo objektuak sartzen direnean. Aldiz, guzti hori indarkeria edo larderia erabiliz egiten bada, espetxe zigorraren iraupena hamabi urtetik hamabost urtera izango da.

Aipatutako hauek izango dira, beste askoren artean aurkitu daitezkeen adingabeen aurkako sexu ekintzak. Azalpen hau emateko arrazoien artean aurkitzen da, delitu motari buruz dugun informazio urria. Hau da, adingabeen aurkako delituen estatistikak ikusten baditugu, INE datu-basean adibidez, ez da hauen bereizketarik egiten. Hau da, erasoak eta abusuak, esate baterako, ez dira bereizita adierazten. Honek, informazioa ezkutatzen duela esan daiteke, ez baita berdina ekintza bat eta bestea, bere zigorraren iraupenean ikusi daitezkeen bezala.

1.1.-Gaur egungo egoera EAEn eta Nafarroan

INE-k eskaintzen dituen zifrak aztertuz gero ikusi daiteke haurren aurkako delitu sexualak azken urteetan gorakada bat izan dutela. 2015. urtean 230 kasu aurkitzen ziren, eta 2019. urtean zifra hori 529 delituetara igo da. Hau da, bost urtetan hasierako zifra bikoiztu egin da. Hemendik ondorioztatu daiteke, delituen gorakada progresibo bat bizitzen ari garela gaur egun. INE-k argitaratutako zifrei jarraituz, honako grafikoa lortu daiteke, aurretik aipatutako guztia modu argiagoan azalduko duena.

1.Grafikoa: *Espainiar herrialdeko haurren aurkako sexu delituen bilakaera 2015-2019 urte artean. Elaborazioa: nik neuk egin.*




(Iturria: INE (2021). Delitos sexuales 2015-2019. Madrid: Instituto Nacional de Estadística)

Euskal Autonomia Erkidegoari eta Nafarroari dagokionez, INE-k eskainitako datuak urriagoak dira. Bertan delitu sexualak agertzen dira, haurren kontrakoak edo biktimen kontrakoak diren bereizi gabe. Hori dela eta, bigarren taula honetan urte bakoitzean eman diren delitu sexualak aurkitzen ditugu, biktima helduekin eta adingabeekin. Ikusi daitekeenez, Gipuzkoak eta Bizkaiak gorakada progresiboa izan dute azkeneko hiru urteetan; ia zifra bikoiztu egin da. Aurreko taularekin alderatuz, joera antzekoa jarraitzen dutela ikusi daiteke.

Aldiz, Arabak 2018. urtean izan zuen zifrarik altuena, 40 delituen hain zuzen ere. Hurrengo urtean 10 delitu gutxiago gauzatu ziren lurralde horretan. Nafarroan ordea, delituen zifrak berdin mantentzeko joera izan dutela ikusi daiteke. Hiru urte horien artean

soilik 5 delituen gorabehera baitago. Oso interesgarria izango litzateke honen arrazoiak zeintzuk diren aztertzea. Etorkizunean egiteko ikerketa izan daiteke.

2.Grafikoa: *Delitugile sexualen bilakaera EAE eta Nafarroan 2017 eta 2019 urte artean. Elaborazioa: nik neuk egina*



(Iturria: INE (2021). Delitos sexuales 2015-2019. Madrid: Instituto Nacional de Estadística)

Analisi honekin bukatzeko, aipatu behar da Nafarroaren biztanleria eta delitu kopurua kontuan hartuz, eta beste probintziekin alderatuz, delitu sexualen tasa altuagoa dela. Izan ere, ehun mila biztanleko tasa 11 inguruan kokatzen da hiru urtetan. Aldiz, EAE-ko probintzien batz bestekoa ez da 8-ra ere iristen.

Espainiar estatuko eta EAE-ko gorakada hauen atzean egon daitezkeen arrazoiak desberdinak dira, baina arazo baten aurrean gaudela errealitatea izaten jarraitzen du. Lehen aipatu bezala, 2015.urtean argitaratu zen Lege Organikoak hurren aurkako delitu sexualen araudia aldatu zuen. Kode Penalean aldaketak egitea erabaki zen, eta horien artean aurkitzen da biktimaren gutxieneko adina igotzearen erabakia. Horren aurretik 13 urte eta beherakoek soilik pairatu zezaketen delitu mota hori. Gaur egun, ordea, adin hori 16 urteetara igo da. Hori dela eta, delitu zehatz hori gauzatzeko aukerak handiagoak izango dira orain; lehen askatasunaren aurkako delitua kontsideratzen zena orain sexu-ukigabetasunaren aurkako delitua izango baita. Honek nolabait delituen gorakada hori azaldu dezake, biktima posibleen populazioa handitu egin baita.

Hala ere, ikusten dugu legea aldatu zen urtetik 2019.urtera bitarte, zifrak ere oso aldakorrak izan direla. Arrazoi bakarra legearen aldaketa izango balitz, urte horien artean

ez litzateke aldaketa nabarmenik eman beharko. Beraz, beste arrazoi batzuk planteatu beharko genituzke. Kontuan izan behar dugu eraso eta abusu sexualak orokorrean emakumeak pairatzen dituen delituak direla. Beraz, feminismoak azken aldian lortu duen indarrak eragin handia izan dezake arlo askotan. Gaur egun, ikerketa askok adierazi dutenez, emakumeak erasotzak izaten direnean salatzeraz trebatzen dira. Lehen isilik gelditzen direnak gaur egun hitz egitera ausartzen dira, haien erasotzailea salatuz.

1.2.-Zifra Beltza

Honekin batera zifra beltzaren fenomenoak dugu. Shigema Obak (1908) termino hau erabiltzea erabaki zuen erabat ezezaguna den delinkuentziaren eremua adierazteko. Haurren kontrako indarkeria-egoera asko ez dira salatuak izaten, eta ondorioz, hauen zifra beltza oso altu mantentzen da. Gainera, aurrerago ikusiko dugun bezala, delitu mota hauek askotan familia barnean ematen direnez, bere detektatzea zailtzen du. Hortaz, delitu kopuruak edota kondenatuen zifrak argitaratzen direnean, ez da ahaztu behar ez direla errealitatearen adierazle, zifra beltz hori alde batera uzten baitute².

Ikerlari batzuen ustetan, soilik eraso ekintza guztien %10-20 artean aurkitzen dute³. Izan ere, Lameiras eta bere kideek (2008) adierazi zuten bezala, familiek egoera hau ezkutatu behar zela uste izan dute denbora luzean zehar, biktimak salaketa ezartzeko aukerarik ez izanez. Horrez gain, biktimen eta erasotzaileen arteko hurbiltasun fisiko eta emozionalak ere eragin handia izan dezake, Redondo eta Garridoren aburuz⁴. Hala ere, ikuspegi hori pixkanaka aldatzen ari da, elkarte desberdinak egiten ari diren lan sakona dela eta⁵. Garcíaren (2010) esanetan, salaketen kopuruak goranzko jarrera izaten ari da azkeneko urteetan, ezkutuan zegoen biktimizazio hori argitara eramanez⁶. Honek nolabait

² Gancebo Y., Amado G. eta Arce R. (2018) Prevalencia de los delitos de agresión sexual en España

³ Millán S., et al. (2006) Victimología infantil; *Cuadernos de Medicina Forense* n.43-44

⁴ Redondo S., Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica ;*e-Eguzkilore Zientzia Kiminologikoen Aldizkari Elektronikoa* n. 2, 2.Zenbakia

⁵ Oliver. S. (2020) *El círculo del abuso sexual infantil: Relación entre ser víctima y la comisión de delitos sexuales en la adolescencia*; Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Espainia (Gradu Amaierako Lana)

⁶ Gancebo Y., Amado G. eta Arce R. (2018) Prevalencia de los delitos de agresión sexual en España

azaldu dezake grafiko horretan ikusten dugun gorakada. Baliteke horren arrazoia delituen gorakada izan beharrean, ezartzen diren salaketen hazkundera baino ez izatea.

Zifra beltzaren fenomeno honek ikerketa sakona eta zehatzak egitea merezi du. Erasotzaileen erantzukizuna eta biktimen babesa lortu ahal izateko. Adituek aurrezaintza eta esku-hartze plan egokiak argi izan behar dituelako. Horretarako, oso egokiak izan ohi dira biktimizazio inkestak. Honek zifra beltz horretan ezkutuan dauden biktimak eta erasotzaileak zeintzuk diren jakitea ahalbidetzen du. Hala ere, haurren kasuan ikusi da ez dela eraginkorregia. Izan ere, ikerketa laginetan ez da normalean haurren presentzia aurreikusten⁷.

1.3.-Delitugile Sexualen Berrerortzea

Beste delitu mota batzuetan ez bezala, salatuak diren sexu-erasoak oso ohikoak ez diren arren, gizartean alarma handia sortzen dute⁸. Are gehiago berrerortzearen inguruan hitz egiten dugunean. Berrerortzea, Zigor Kodeko 22.8.Artikuluaren arabera, delitua egitean erruduna aurretik zigor titulu eta izaera bereko delitu batengatik zigortua izan denean emango da. Hau da, gure kasuan, haurren aurkako delitu sexuala gauzatu eta zigortua izan ondoren, berriro ere adingabe baten aurkako ekintza sexuala gauzatzen denean.

Gizartearen ustetan, erasotzaile sexuala berrerortzeko arrisku handia duen subjektu da, aldaketarako aukera gutxi dituztelaren ustea baitago. Hori dela eta, delinkuentzia eta berrerortze tasak altuak direla uste du gehiengoak, oso zaila izanik iritzi sozial hau aldatzea⁹.

Hauen sinesmena dela eta, gaur egun delitugile sexualekiko presio sozial handia bizitzen ari gara. Gizarteak biktima izateko beldurra duenez, politikariei delitugile hauen

⁷ Millán S. et al. (2006) Victimología infantil; *Cuadernos de Medicina Forense* n.43-44 Málaga

⁸ Echeburúa E. et al. (2009) ¿Qué hacer con los agresores sexuales reincidentes?; *Interrogantes de la Fundación Víctor Grífols i Lucas*

⁹ Capdevila M. eta Ferrer M. (2009) Tasa de Reincidencia penitenciaria 2008; *Àmbit social i criminològic*; Generalitat de Catalunya. Barcelona (17.Or.)

inguruko eta gizartearen segurtasuna bermatuko dituzten erabakiak hartzea galdatzen dute.

Honen guztiaren ondorioz, Manuel Capdevila eta Marta Ferrer-en (2009) aburuz, botere politikoak mezu zehatz bat jaso du, eztabaida ezina dirudiena: erruduna denak zigorra jaso behar du; delitugileak legediarengatik pertsegituak izan behar dute; delitugile arriskutsuek ez dute espetxetik irteteko eskubiderik eta kondena bat guztiz bete behar da. Gizartearen mezua hau izanik, eta politikariek honen beharrak asetzen dituenek, gaur egun geroz eta lege zorrotzagoak egiten dira pertsona hauek zigortzeko, batzuk ez proportzionalak izatera iristen direnak¹⁰. Gainera, espetxe zigorra ez ezik, hori bukatu ostean ere neurri bereziak jasoko dituzte horietako askok. Hala nola, leku jakin batean bizitzeko debekua.

Hala eta guztiz ere, berrerortze tasa ez da gizarteko biztanleriak uste bezain altua, erasotzaile sexual bat errehabilitatzea posiblea baita (Enrique Echeburúa, 2009; Santiago Redondo 2007). Jarraian ikusiko dugun bezala, berrerortze tasa beste delituekin alderatuz, baxua dela esan daiteke¹¹.

Berrerortzearen kontzeptuari dagokionez, historian zehar hutsegite handiak egin dira. Izan ere, berrerortzea erreiterazioaren sinonimo gisa erabili da. Aurretik esan bezala, berrerortzeaz ari garenean, zigor titulu eta izaera bereko delitu bat baino gehiagoz ari gara. Hori dela eta, askatasun sexualaren aurkako delitu bat gauzatu ostean, norbaitek ondarearen aurkako delitua egiten badu, erreiterazioaren aurrean egongo ginateke. 1980ko Kode Penalean bi termino hauek bateratu ziren, nahasmendu handia sortuz. Garai horretan berrerortze zehatza eta berrerortze orokorra bezala ezagutzen ziren. Azken hau delituaren izaera edozein dela ere, subjektuak zigor-aurrekariak izan eta berriro delitu bat gauzatzen duenean emango da.

Aurreko hori kontuan izanik, Hanson eta Bussiér-ek (1998) egindako lan baten inguruan hitz egin behar da. Ordura arte egindako 61 ikerketa hartu zituzten meta-analisisa egiteko. 23.393 delitugileen lagina izanik, emaitzek erakutsi zuten soilik delitugile

¹⁰ Herrero, O. (2013); “¿Por qué no reincide la mayoría de los agresores sexuales?; *Anuario de Psicología Jurídica*, vol. 23. (71.Or.)

¹¹ Redondo S., Pérez M. eta Martínez M. (2007) El riesgo de reincidencia en agresores sexuales: Investigación básica y valoración mediante el SVR- 20; *Papeles del Psicólogo*, Vol 28 (189.Or.)

sexualen %13.4ak gauzatzen zuela berriro askatasun edo ukigabetasun sexualaren aurkako delitua. Aldiz, berrerortze orokorra %36.3a zen. Graña, Andreu eta Silvak egindako beste ikerketa batek ere antzeko emaitzak erakutsi zituen, berrerortze orokorra %37.4an eta zehatza %8.5ean egonik¹².

Emakume delitugileen kasuan, Cortoni, Hanson eta Coache-k (2010) egin zuten meta-analisiari esker dugun informazioaren arabera, berrerortzearen tasa %1 eta %3 artean kokatzen da. Kontuan izanik ikerketa honetako lagina 2.490 emakumeena izan zela, hauen artetik soilik 80 pertsonak gehienez gauzatu zuen berriro delitu sexuala. Gizonezkoen zifra baino nabarmen baxuagoa.

1.4.-Tratamenduaren Garrantzia

Berrerortze zehatzaren inguruan Enrique Echeburúak baieztapen interesgarri bat egin zuen hainbat ikerketen emaitzak ikusi ondoren. Izan ere, Kataluniako delitugile sexualen %18ak berrerotzen duen arren, portzentaje hori 5 puntutan jaisten da subjektuek tratamendu bat jaso badute¹³. Hanson eta bere kideek (2002), baieztapen hau sendotzen dute egindako ikerketen emaitzetan. Non 9.454ko delitugile sexualen lagin batetik tratamendurik jaso ez duten pertsonen %16.8a berrerori den, eta tratamendua jaso dutenen portzentajea %12.3koa zen. Honek, espetxeetan eta honen ondoren ematen diren tratamenduen eraginkortasuna nolabait erakutsi dezake. Subjektu hauen birgizarteratzea posiblea da, beti ere, gutxieneko aldatzeko motibazioa azaleratu eta egindako jokabidea desegokia dela onartzen badute¹⁴.

Esan bezala, sexu-erasotzaile eta delitugile asko birgizarteratzeko aukera izango dute. Batez ere hauek gazteak direnean, bereziki bortitzak ez direnean eta aurrekaririk ez dutenean. Baina, bereziki tratamendu-programa batean parte hartzeko prest daudenean.

¹² Herrero, O. (2013); ¿Por qué no reincide la mayoría de los agresores sexuales?; *Anuario de Psicología Jurídica*, vol. 23. Madrid (71.Or.)

¹³ Echeburúa E. et al. (2009) ¿Qué hacer con los agresores sexuales reincidentes?; *Interrogantes de la Fundación Víctor Grifols i Lucas* (27.Or.)

¹⁴ Ídem

Esku-hartze egokirik egon ezean, sexu-erasoaren errepikapena emateko aukerak gehiago izango dira (Rivera, Romero, Labrador eta Serrano, 2006).

Haurren aurkako delitu sexuali dagokionez, berezitasun batzuk aurkitzen dira. Izan ere, hauek helduen erasotzaileekin alderatuz, espezializazio handiagoa erakusten dute¹⁵. Hau da, berrerortzea izanez gero, delitu mota bera izateko aukera gehiago izango dituzte. Enrique Echeburúa (2009) eta Oscar Herrero (2013) ere honekin ados azaltzen dira. Izan ere, hauen aburuz, pederastek tratamenduaren aurrean, pronostiko txarra izan ohi dute; duten interes sexual desbideratuaren ondorioz.

Ez hori bakarrik, desbideratze sexuala berrerortzearen arrisku faktoretzat hartzen dute batzuek, joera antisozialarekin batera (Lalumiére, 2005; Seto, 2008; Hanson eta Morton, 2005). Sexu-delinkuentzian espezializatuak direnak gutxiengoa badira ere, eta berrerorleen gehiengoak orokorrak diren arren, bi ezaugarri horiek dituzten subjektuek arrisku gehiago izango dute delitu sexuala berriro gauzatzeko.

Aipatutako guztia kontuan hartuz, argi dago delitugile sexualen tasa, gainontzekoekin alderatuz, ez dela oso altua. Hala ere, berrerortzen diren delitugileak dauden heinean, beharrezkoa da esku-hartzeen kudeaketa egokia egitea. Dirudienez, tratamendua jasotzeak pronostiko ona aitortzen du kasu gehienetan, onura asko ekarriz. Baina, pederasten kasuan onura horiek urriagoak direla ikusi daiteke. Desbideratze sexuala izatea, arrisku faktorea izan bait daiteke. Horregatik, lan honen helburuetako bat subjektu hauek espetxeetan gauzatzen dituzten tratamenduen arloa aztertzea izango da.

Gizarteak delitugile hauengan erakusten duen jarrera ere kontuan hartu behar da. Izan ere, behin espetxetik irteten direnean, tratamendua jaso duten arren, hauen espazioa artifiziala baino ez da izan, zelatatze zorrotz bat jasan duena. Hortaz, adituak ez du guztiz jakingo zein den errealitatean pertsona horrek izango duen jarrera. Behin bertatik irteten direnean sortuko da arriskua. García Valdesek 1977an adierazten zuen bezala “inori ez zaio gizartean bizitzen irakatsiko bertatik aldentzen bazaio”¹⁶.

¹⁵ Herrero, O. (2013); ¿Por qué no reincide la mayoría de los agresores sexuales?; *Anuario de Psicología Jurídica*, vol. 23. (74.Or.)

¹⁶ Montero E. (2019) La reeducación y la reinserción social en prisión: el tratamiento en el medio penitenciario español; *Revista de Estudios Socioeducativos*; No. 7, 238.Or.

Honen aurrean, ikusiko dugun bezala, hainbat elkartek laguntza eskaintzen diete erasotzaileei. Aukera berri horretan aurkituko dituzten oztopoen aurrean sostengua eduki ahal izateko. Oso ezagunak ez diren arren, delitugile, biktima eta gizartea berarentzako onura handiak ekarriko ditu. Azken finean, delitugile sexuak berriro deliturik ez egitea, denontzako onuragarria izango da. Lan honetan zehar errealitate hori hobeto ulertzea ahalbidetuko duen informazioa aztertuko da. Delitugileen birgizarteratzean guztiek parte hartzen dutelako. Ez da soilik hauek egin beharreko lana, ezta ere espetxearena; baizik eta gizarte guztiarena.

1.5.-Lan Honen Helburuak eta Metodologia

Jarraian ikusi daitekeen lanaren helburuak asko badira ere, hiru nagusitzen dira. Lehenik eta behin, gaur egun delitugile sexualen, eta batez ere adingabeen delitugile sexualen egoera zein den aztertu nahi da. Hau da, behin delitua gauzatu eta espetxean daudenean, bertan izango duten bizimodua aztertu nahi da. Ez hori bakarrik, izan ere garrantzitsua da ere bertatik ateratzen diren unerako jasotzen duten prestakuntza zein den aztertzea; hots, tratamendua. Hortaz, bigarren helburua espetxean jasotzen dituzten tratamenduak zeintzuk diren aztertzea izango da; hauen eraginkortasuna ere aztertuz.

Honekin jarraituz, behin espetxetik irteten direnean, ikusiko dugun bezala, jarraipen bat ematea beharrezkoa izan beharko luke. Izan ere, delitugile sexual askok zailtasunak izaten dituzte birgizarteratzeko garaian; komunitatearen aldetik jasotzen duten bazterketa dela eta. Horregatik, hirugarren helburua honekin lotuta egongo da. Izan ere, garrantzitsua izango da behin espetxetik irteten direnean aurkituko duten egoera zein den aztertzea, eta bertan azalduko zaizkien oztopo edo zailtasunak ezagutzea.

Aipatutako helburu horiek lortzeko, hainbat metodo desberdin erabili dira. Hasteko, jada eskuragarri dagoen informazioaren bilaketa sakon bat egin da. Parafilien eta nahasmen pedofilikoaren inguruko informazioa ez ezik, haurrak abusatzen dituzten pertsonen aplikatzen zaizkien tratamenduak ere aztertu baitira. Hau da, gai honi buruz dagoen literaturaren bilaketa bat egin da, honi buruzko informazio gehiago lortzeko. Honek lanaren alde teorikoa osatuko luke, lehenengo helburuarekin lotura gehiago izango lukeena.

Aldiz, hurrengo bi helburuak sakontzeko, metodologia praktikoagoa erabiltzea erabaki da. Errealitatea zein den hobeto ezagutzeko, zuzenean subjektu hauekin lan egiten

du ten bi pertsona elkarrizketatzeaz gain, gizarteari zuzendutako inkesta bat ere egin da, zeinak 423 erantzun lortu dituen. Bai elkarrizketen erantzunak eta baita ere inkesten emaitzak eta hauen analisisa, eranskinetan aurkitu daitezke.

Espetxearen egoera zein den ikusteko, Gasteizen dagoen Zaballa espetxeko psikologoari elkarrizketa bat egin zaio. Bertako psikologoak delitugile sexualen tratamenduan aritzen denez, berari esker lehen eskuko informazioa jasotzeko aukera izan dezakegulako. Bertan lortutako informazioa lan guztian zehar erabili da, beste adituek esaten zutenarekin bat egiten zuela erakusteko. Baina, garrantzia nabarmenagoa eman zaio 6.kapituluan ikusi daitekeen tratamenduaren zatian. Non Zaballa espetxeko tratamenduak nolakoak diren azaltzeaz gain, presoek espetxean duten bizimodua ere kontatzen den.

Bigarren elkarrizketa, Agintzari kooperatibako Hitzune proiektua gidatzen duen psikologoari egin zaio. Berriro ere, espetxeko egoerarekin bezala, lehenengo mailako informazioa jaso ahal izateko. Proiektu honen helburua da subjektu hauei arreta psikologiko eta psikoterapeutikoko zerbitzua eskaintzea; hirugarren graduan edo baldintzapeko askatasunean daudenean. Elkarrizketa honetan lortutako erantzunak, aurrekoaren antzera, informazio teorikoa sakontzeko erabili den arren, 10.kapituluan aurkitu genezake informazio esanguratsuen (Espetxetik irten ostean ematen diren esku-hartzeak delitugile sexuarekin). Hain zuzen ere, Euskal Herriko kasua aztertzen denean.

Bukatzeko, gure inguruko pertsonak adingabeen delitugile sexualen birgizarteratzeari buruz duten iritzia jakiteko, inkesta bat egin da. Hau izango da lan honetako hirugarren helburu nagusia sakontzeko erabili den metodo praktikoa. Inkesta honetan parte hartu duten pertsonak delitugile hauen birgizarteratzeari buruzko galdera desberdinak erantzun behar izan dituzte. Helburua izanik, esan bezala, delitugile hauek behin espetxetik irtenda, kalean izango litzaketan arazoak edo oztopoak identifikatzea. Hots, gizarteko kideen harrera ezagutzea, pertsona hauek izango luketen integrazioa nolakoa izango litzatekeen aurreikustea ez ezik, etorkizunean esku-hartzeren bat egin behar izanez gero, egoera erreala zein den ondo ezagutzeko. Inkesta honetako emaitzak 9.kapituluan aztertuko dira, non erabili den metodologia, lortutako emaitzen analisisa eta hauen eztabaida egingo den.

2.-SEXUALITATEA

Lehenik eta behin, beharrezkoa da sexualitatearen kontzeptuari buruzko argibideak ematea. Azken finean, lan honetan zehar aztertuko dugun informazioaren oinarria izango baita. RAE (Real Academia Española)-ren hitzetan, sexualitateaz ari garenean, sexu-gutiziaz ari gara, haragizko plazererako joeraz. Baina, definitzeko erabiltzen duten sinpletasuna kontuan hartuz gero, eduki handia kanpoan gelditzen dela ondorioztatu daiteke. Honen adibidea izango litzateke OMS-ek (Organización Mundial de la Salud) sexualitatearen definizioa azaltzeko orduan erabiltzen dituen termino anitzak: “Sexua, genero-identitatea, erotismoa, plazerra, intimitatea, ugalketa eta sexu-orientazioa”. Gainera, pentsamenduen, fantasien, desioen, sinesmenen, jarrerren, balioen, jokabideen eta pertsonen arteko harremanen bidez bizitzen eta adierazten dela aitortzen du.

Aurretik aipatutako guztia kontuan izanik, ondorioztatu daiteke, giza sexualitateari buruz ari garenean, beharrezkoa dela alde biologikoa ez ezik, gizakiaren ohiturak, tradizioak eta arau sozial eta moralak aztertzea¹⁷. Guzti honek, aurrerago ikusiko dugun bezala, garrantzia handia izango du lan honen ikerketa-oinarri den pederastiaren fenomenoaz azaltzeko.

Robert Crooks eta Karla Baur-en (2010) esanetan, faktore psikologikoen eta baldintzapen sozialak eragin handia izango dute jarrera, balio eta jokabide sexualetan. Hau da, pertsonak izan ditzaketen emozio eta motibazioak, bizi diren gizarteko arau judizial eta sozialengatik guztiz baldintzatuak egongo dira. Ez hori bakarrik; izan ere, Beach-ek (1978) adierazten duenaren arabera, gizarte guztiek kideen artean sexualitatearen garapena eta adierazpena moldatu, egituratu eta murrizten dute. Nahiz eta, askotan biztanleria horretaz ez jabetu.

Honen adibide izan daiteke giza eskubideen aitortpena. Pertsona batek oinarrizko eskubideak izango ditu, baina eskubide horiek kultura eta gizarte batzuegandik erregulatuak izan dira¹⁸. Kontuan izanik, mundu osoan zehar kultura anitz aurki

¹⁷ Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); *¿Qué es la pedofilia?*; Paidós, Barcelona (17.Or.)

¹⁸ López F. (UNAF) (2015); *“Derechos sexuales: universalidad y diferencias culturales”*; Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=43mkwyte-UI&t=3406s>

daitezkeela, honek arazo ugari sortu ditzake. Izan ere, pertsona bat bizi den gizartearen arabera, sexualitatea bizitzeko modu bat edo beste izan dezake.

Gainera, historian zehar ikusi izan da sexu ekintzen onarpenaren inguruko bilakaera handia egon dela. Orientazio sexualaren kasuan, gay eta lesbiana izatea anormaltzat hartzen zen duela ez urte asko gure herrialdean. Ez hori bakarrik, nahasmendu mental modura definitzera ere iritsi baitzen¹⁹. Gaur egun ofizialki horrela ez bada ere, gizarteko kide asko oraindik ere horrela pentsatzen jarraitzen du. Honen atzean egonik pertsona hauek haurrak zirenean izandako hezkuntza eta balioak. Hau da, gizarteak inposatutakoak.

Esate baterako, egoera zehatz batzuek pertsonak sexualki kitzikatzera eraman dezakete. Baina guztiek ez dugu estimulu berdinen aurrean erantzun bera izaten, kulturak eta bere ezaugarriek influentzia handia izango bait dute²⁰. Sexu mekanismoak berdinak badira ere, pertsona batentzako kitzikagarriak izan daitezkeen portaera sexualak baldintzatuak egongo dira, beraz.

Kasu honetan, pedofilia eta pederastiaren inguruan hitz egin behar dugunez, oso interesgarria izan daiteke garai batean lurralde batzuetan honi buruz zuten ikuspegia azaleratzea. Fenomeno honek historian zehar izan duen trataera ezagutzeko egokia izateaz gain, egoera ulertzeko modu berriak erakutsiko dizkigulako. Izan ere, lehen esan bezala, sexualitatearen alderdi askok denbora eta lurraldearen arabera bilakaera handia izan dutela esan dezakegu²¹. Guzti honek izan duen balorazioa oso anitza izan da. Herriak jarraitzen zituen idealen arabera, pederastia onartua izatera iristen baitzen²². Horien artean aurkitzen dira, esate baterako, Grezia, Erroma eta Atenas. Anna Oliverio eta Barbara Graziosiren hitzetan (2004), garai haietan, askoren ustetan heldua eta adingabea elkartzen zituen erlazio horrek azken honen nortasuna garatzeko oso baliagarria zen. Helduak bere jakintza haurrari transmititzen baitzion.

¹⁹ Rathus, Spencer A., et al. (2005) *Sexualidad Humana*. Pearson Educación

²⁰ Crooks R. eta Baur K. (2010) *Nuestra sexualidad*; Cengage Learning Editors: México (155.Or.)

²¹ Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); *¿Qué es la pedofilia?*; Paidós, Barcelona (17.Or.)

²² Pascual S. (2011) *La pederastia griega y el Eros platónico*; *Avances de Investigación*, Uruguay (4.Or.)

Aurreko guztia kontuan izanik, argi dago jokabide sexualen artean beti egongo direla atipikotzat hartzen diren jarrerak edo ekintzak. Gizarteak inposatzen duen normaltasun horretatik kanpo dauden jarduera ezohiko oro atipikotzat edota desbideratutzat hartuko baitira²³. Andres Flores Colombino-ren hitzetan, gaur egun herri-eremuan desbideratze sexualtzat hartzen diren ekintza ezagunenak parafiliak dira, unibertsalki patologiatzat hartuak direnak²⁴.

²³ Rathus, Spencer A., et al. (2005) Sexualidad Humana. *Pearson Educación* (362.Or.)

²⁴ Flores A. (N.F.); Puesta al día: Parafilias (5.Or.)

3.-PARAFILIAK

Termino hau etimologikoki grezieratik dator; izan ere, “para” desbideratu eta “phileo” erakarren hitzengatik osatzen da.²⁵ DSM liburuetan (Buruko nahasmenduen diagnosi- eta estatistika-eskuliburua) ikusi daiteke honi buruzko definizioarekin egon den bilakaera. DSM-III aren arabera, parafilien ezaugarri nagusia gizarteko arauetan barneratzen ez ziren estimuluen ondorioz ematen den kitzikapena izango dela. Zeinak bikotearen arteko sexu-jarduera oztopatu dezakeen.

Aldiz, 1995ean idatzi zen DSM-IV an definizio osatuago bat ematera ausartu ziren. Beharrezkoa izango da sexu-fantasia asaldagarriak eta sexu-bulkadak behin eta berriz agertzea. Hauen edukia honako elementu hauetako baten presentzia eskatzen zuen: gizatiarrak ez diren objektuak, norberaren edo bikotekidearen sufrimendua edo ekintza onartzen ez zuten haurrak edo helduak. Beharrezkoa izango da fantasia horiek 6 hilabetez gutxienez agertzea eta hauek ondorez kliniko esanguratsua eta narriadura soziala edo laborala sortzea.

Beraz, bertatik ondorioztatu dezakegu parafilia diagnostikatu ahal izateko, sexu jardueretan ohikoa ez den elementuaren presentzia beharrezkoa izan beharko duela kitzikadura edo orgasmora iritsi ahal izateko. Hau da, elementu horren faltan, ezin izango du, normalean, eszitazio sexual horretara iritsi²⁶. Praktika horiek beti ere, norbere kabuz edo bikote batekin egin daitezke²⁷. Beste ukanbeharretako bat, fenomeno honek sortzen duen ondoreza esanguratsua izango da. Subjektuaren bizitza sozialean, laborean eta afektiboan eragina izango duena.

Seligman eta Hardenburgen (2000) hitzetan, parafiliek dituzten pertsonek, iraunkorrak eta kontrolatzeko zailak diren bulkadak sentitu ohi dituzte. Hori dela eta, aditu batzuek adierazi dute fenomeno hau mendekotasun mota bat izatera ere iritsi daitekeela²⁸.

²⁵ Flores A. (N.F.); Puesta al día: Parafilias (10.Or.)

²⁶ Pranzarone G. et Money J. (2020); Paraphilias: Flaws and Errors in Childhood Lovemap Development

²⁷ Money, John & Pranzarone, Galdino. (1993). Development of Paraphilia in Childhood and Adolescence. *Child and Adolescent Psychiatric Clinics of North America: Sexual and Gender Identity Disorders*. 2.

²⁸ Rathus, Spencer A., et al. (2005) Sexualidad Humana. *Pearson Educación* (363.Or.)

Gure gizartean nahasmen hau duten pertsonen populazioa zein den jakitea ez da erraza. Izan ere, parafiliak dituzten pertsonak normalean ez dute tratamendurik borondatez bilatzen. Autore batzuk adierazi dutenez, honen arrazoa izan daiteke nahasmenaren agerpen goiztiarra. Parafiliaren jatorria, aurretik esan bezala, haurtzaroan dagoenez, subjektua honekin bizitzera ohituta egoten da.

Hala ere, badira batzuk terapiara joaten bukatzen dutenak, arrazoi desberdinak direla medio. Esate baterako, legearekin gatazkaren bat izan dutelako edota familiako kideren batek osasun mentaleko profesional batengana jotzeko eskatu dietelako²⁹. Hau da, haien portaerak bere ingurukoengatik edo gizartearengatik zalantzan jartzen direnean, eta ez haien kabuz.

Gaur egun oraindik ere ez dugu parafilien jatorriaren berri. Baina, Karpmanek azaldu duenez, pertsona bat garatzen den familiako eta gizarteko giro gaixotik eratorri daiteke³⁰. Gurasoek emandako hezkuntza sexualaren eragina oso handia izan daiteke, honen garapena guztiz baldintzatu dezakeelako. Gurasoek jakin-mina erreprimitzen saiatuz gero, haurra adierazpen parafilikoetara bultzatu dezake. Hala ere, aipatu behar da, nahasmen hau ez dela hereditarioa. hau da, egin diren ikerketen arabera, parafilikoen gurasoen jarduera sexuala arau sozialen barruan kokatu ohi da³¹. Honek ere alde batera utziko luke ere ikasketaren teoria, zeinak azaltzen duen portaerak ikasi egiten direla, eta haurrek egunerokotasunean ikusten dutela errepikatzeke ohitura dutela.

Parafilia bat duen pertsona batek ez du borondaterik izango parafilo izateaz uzteko. Ezta ere parafilo ez den pertsona batek horretan bilakatzeko. Izan ere, helduekin lotzen den fenomeno den arren, honen aurrekariak haurtzaroan aurkitu daitezke. Money, John eta Pranzaroneren (1993) esanetan, guzti honen oinarria askotan haur baten hezkuntzan aurkitu daiteke. Hau da, fenomeno hau haurtzaroan hasi eta nerabezeroan edo beranduago azaleratuko da.³²

²⁹ Ibídem (383.Or.)

³⁰ Flores A. (N.F.); Puesta al día: Parafilias (14.Or.)

³¹ Ídem

³² Money, John & Pranzarone, Galdino. (1993). Development of Paraphilia in Childhood and Adolescence. *Child and Adolescent Psychiatric Clinics of North America: Sexual and Gender Identity Disorders*. 2.

Parafiliek, orokorrean, ez dute kalterik sortzen, kitzikapen sexuala lortzeko baino ez baitira erabiltzen³³. Fetitxismoa, esate baterako, parafilia bat da, non giza gorputzaren atalen bat edo horrekin lotutako arroparen bat kitzikapenaren eta desira sexualaren objektu gisa finkatzen den³⁴. Definizio horri erreparatuz, ondorioztatu dezakegu ez duela inongo kalterik sortuko. Baina, aldiz, beste parafilia batzuk kriminalizatuak izatera iritsi daitezke, legearen jurisdikzioaren pean geldituz. Izan ere, hauek kalte fisiko edo psikologiko larriak sortu ditzakete biktimengan. Horien artean aurkitzen da, esate baterako, lan honetan zehar hitz egingo dugun pedofilia.

Askatasun sexualaren aurkako delitu askotan jarrera parafilikoak aurkitu izan dira. Hori dela eta, aditu askoren ustetan, fenomeno hau aztertuz eta nolabait kontrolatuz delitu horien arriskua murriztu daiteke³⁵. Horretarako, egokia izango litzateke esku-hartze desberdinak planteatzen hasia parafilia duten subjektuekin, aurrezaintza lan sakona egin baitaiteke. Alde batetik delitua gauzatu ez duten pertsonen deliturik ez gauzatzeko, eta bestetik, jada espetxea zigorra dutenek ez berrerortzeko.

Kontuan hartu behar dugu, hala ere, psikopata guztiek delituak gauzatzen ez dituzten bezala, parafilia bat duten guztiek ez dituztela delituak gauzatuko. Beraz, Marshall-en (2007) esanetan, bakoitzak dituen beharrei erantzun beharko zaie terapian. Tratamenduak malgua izan behar du, esan bezala, pazientearen behar eta erritmora egoitzen dena. Parafilikoen artean aurkitu daitezkeen diagnostiko ugariari erreparatuz gero, arreta berezia ipini beharko da subjektu bakoitzarengan.

Ikerlan honetan zehar ikusiko dugunaren harira aipatu behar da, parafiliei buruzko artikuluak aurkitzen diren arren, ikerlan gutxi egin direla gaur egun arte. Bere jatorria zein den oraindik ere ez da zehatza, ezta ere hauekin gauzatutako tratamenduen efikazia. Beraz, lan asko egin behar da oraindik guzti honi erantzuna eman ahal izateko.

³³ Ratus, Spencer A., et al. (2005) *Sexualidad Humana*. Pearson Educación (363.Or.)

³⁴ Real Academia Española (2014) “*Diccionario de la lengua española*” (23a ed.)

³⁵ Sánchez N., López R. eta Domínguez A. (2018) Parafilias: Una revisión comparativa desde el DSM-5 y la CIE-10; *Behavior and Law Journal*; Vol. 4, No.1 (42.Or.)

4.-PEDOFILIA

Historian zehar pedofiliari buruz izan da arlo kliniko zein juridikoan, gehien eztabaidatu den parafilia. Hori dela eta, oso interesgarria izan daiteke garai batean lurralde batzuetan honi buruz zuten ikuspegia azalerrate. Fenomeno honek historian zehar izan duen trataera ezagutzeko egokia izateaz gain, egoera ulertzeko modu berriak erakutsiko dizkigulako. Izan ere, lehen esan bezala, sexualitatearen alderdi askok denbora eta lurraldearen arabera bilakaera handia izan dutela esan dezakegu³⁶. Honek guztiak izan duen balorazioa oso anitza izan da. Herriak jarraitzen zituen idealen arabera, pederastia onartua izatera iristen baitzen³⁷. Horien artean aurkitzen dira, esate baterako, Grezia, Erroma eta Atenas. Anna Oliverio eta Barbara Graziosiren hitzetan (2004), garai haietan, askoren ustetan heldua eta adingabea elkartzen zituen erlazio horrek azken honen nortasuna garatzeko oso baliagarria zen. Helduak bere jakintza haurrari transmititzen baitzion.

Gaur egun ordea, gure gizartean, desbideratutako portaera sexualtzat hartzen da. Are gehiago, heldu eta haur baten arteko jarduera sexualak zigortuak dira munduko kultura gehienetan. Herrialde gehienek jurisdikzioetan kontaktu sexual hutsa debekatua egongo da.³⁸ Beti ere, herrialdearen arabera izango da; batzuetan oraindik onartzen jarraitzen baita. Gure herrialdearen kasuan, aurretik ikusi dugun bezala, heldu batek 16 urte baino gutxiago dituen pertsona batekin, onarpena izanda ere, ezingo du inongo jarduera sexualik gauzatu.

4.1.-Kontzeptua

Pedofiliaren kontzeptua definitzeko, Amerikako Psikiatriaren Elkartearen hitzetan, haurrekiko erakarpen sexuala izango litzateke. Hau da, pedofiloek ari garenean,

³⁶ Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); “¿Qué es la pedofilia?”; Paidós, Barcelona (17. Or)

³⁷ Pascual S. (2011) La pederastia griega y el Eros platónico; *Avances de Investigación*, Uruguay (4.Or.)

³⁸ Seto, M. (2004) Pedophilia and Sexual Offenses Against Children; *Annual Review of Sex Research*, 15 (322.Or.)

pentsamendu, fantasia, bulkada kitzikapen edo portaera sexual iraunkor eta errepikariak dituzten pertsonaz ariko ginateke³⁹.

DSM 5-ak adierazten duen bezala, pedofiliako nahasmendua duen pertsona batek honako irizpide hauek bete beharko ditu:

- A. Gutxienez sei hilabetez sexu-kitzikapen bizi eta errepikaria izatea, haurrak inplikaturik dituzten fantasia, sexu-nahi geldiezia edo sexu-jardueren ondorioz. Haur hori, 13 urte azpikoa izan ohi da.
- B. Gizabanakoak desira sexual horiek gauzatzera iritsi da, edota bere desio geldieziekin edo fantasia sexuak ondoez handia edo arazo interpertsonalak eragiten dituzte.
- C. Gizabanakoak gutxienez 16 urteko adina du, eta A irizpidean aipatzen den haurra edo haurrak baino 5 urte gehiago izango ditu.

Aipatutako azken irizpide hori hau kontuan hartuta, beharrezkoa izango da Fromberger-ek (2013) adierazten duena ez ahaztea. Izan ere, honen arabera, pertsona batek hurrekiko sexu-lehentasuna izan arren, ez du zertan nahasmen pedofilikorik izan behar. Aldiz, nahasmen pedofilikoaren kasuan, beharrezkoa izango da fantasia gaizto horien presentzia egotea. Zeinak pertsonarengan ezinegon sozial, laborala edo pertsonala sortuko duen. Bi termino hauek bereiztea oso garrantzitsua izan daiteke. Izan ere, soilik bigarren hauek izango dute esku-hartze kliniko baten beharra. Esan dezakegu, beraz, antzeko ezaugarriak dituzten arren, bi kontzeptu horiek bateraezinak izango direla.

DSM 5-ak adierazten duenarekin jarraituz, hainbat zehaztasun eman behar direla aipatzen du. Izan ere, batzuk erakarpen sexual hori soilik hurrekin pizten zaie, beste inork kitzikapen hori lortzera iristeko ezintasuna izango dutelarik. Aldiz, mota ez eskusiboan sartzen diren subjektuek hurrekin nahiz helduekin iritsi daitezke plazer hori lortzera⁴⁰. Diagnostikoa egiten zaienean, beharrezkoa izango da zehaztasun hauek ondo adieraztea.

Honekin lotuta aipatu behar da, pertsona batzuek adingabe zehatz batzuk dituztela gustuko. Hain zuzen ere, haien gorputzak pubertaroaren garapenaren ezaugarriak

³⁹ Khan Z. (2018) An exploration into the unknown world of pedophilia; *The Sociological Eye* (42.Or.)

⁴⁰ Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); “¿Qué es la pedofilia?”; Paidós, Barcelona (73.Or.)

erakusten dieten adingabeak. Kasu honetan, adituek termino berezi bat ematea erabaki zuten, “hebefilia”⁴¹.

Adina ez ezik, generoak ere bere zehaztasunak izango ditu. Izan ere, batzuek soilik genero maskulinoarenganako desira izaten duten arren, beste batzuek soilik genero femeninoan lortzen dute kitzikapen hori. Hauek gain, hirugarren bat aurkitzen dugu, zeinak generoari garrantzirik ematen ez dion; neskak eta mutilak gustuko dituztelako.

4.2.-Prebalentzia

Hainbat ikerketek adierazten duenaren arabera, pedofiloen prebalentziari buruzko hainbat zalantza daude, gaur egun ezezaguna dela esan dezakegu (Seto, 2004; Fromberger, 2013; Balbuena, 2014). Frombergerrek honi buruz dauden azterlan epidemiologikoen falta nagusitu nahi du⁴². Hala ere, John Bradford psikiatriako doktoreak azaldu duenez, pedofiloek biztanleriaren %4 inguru ordezkatu dezakete.

Honi buruzko informazio urriaren atzean dagoen arrazoi nagusia gizartean dagoen honen inguruko taboo-a izan daiteke⁴³. Hurrekin erlazio edo jardura sexualak izatea, gizartean oso gaizki ikusia dago gaur egun. Izan ere, hauek pertsona ahul eta tolesgabetzat hartzen dira, helduen defentsa behar dutenak. Beraz, inork ez du onartuko adingabe hauei min egin edo heldutasunarekin hain lotuta dagoen sexu-jardueran sarbidatzea.

Hori dela eta, haurrenganako erakarpen sexuala sentitzen duten pertsonen haien sentimenduak azaleratzeko beldurra izan ohi dute. Haien burua pedofilozat aurkeztuz gero, haien eremu sozial, pertsonal eta laboralean eragin handia izan dezakeelako, negatiboa nagusiki. Deliturik gauzatu ez duten arren, jokaera desbideratutzat hartzen denez, inguruko jarrera, haiekiko, aldatu egingo dela errealitate bat da. Lan honetan zehar honi buruz hausnarketa sakonagoak aurkeztuko dira. Esate baterako, herrialdeko

⁴¹ Fromberger P., Jordan K. eta Muller J. L. (2013) Pedophilia: etiology, diagnostics and therapy (1126.Or.)

⁴² Ibídem (1127.Or.)

⁴³ Seto, M. (2004) Pedophilia and Sexual Offenses Against Children; *Annual Review of Sex Research*, 15 (323.Or.)

biztanleriatik hartutako lagin bati zuzendutako inkesta. Bertan, pedofiloen inguruan duten jarrera eta iritzia ikusi ahal izango dugu.

Biztanlerian aurkitzen diren pedofilo kopurua zein den ez jakiteak, onurak baino kalte gehiago sortzen ditu. Izan ere, gai honi buruz oraindik ez dira ikerketa gehiegi egin. Gainera, dugun informazio asko ez da guztiz zehatza eta kontraesan asko aurkitzen dira. Hori dela eta, beharrezkoa da pertsona hauen laguntza izatea, hauen ezaugarriak zeintzuk diren eta bere jatorria non dagoen jakin ahal izateko.

Horretarako, Zahra Khanek (2018) dio, pedofiloen inguruan dagoen estigma sozial hori ezabatzea oso eraginkorra izan daitekeela. Azken finean subjektu hauek haien egoera aitortu eta behar izanez gero laguntza eskatzera animatu behar ditugu. Gizartean dagoen hauekiko gorroto eta segurtasun ezak hau guztiz baldintzatzen du, oztopo handiak sortuz. Ikertzaileek honi buruzko ikerketak egiten jarraitu behar dute, eta horretarako ezinbestekoa da subjektuen laguntza.

Jakin badakigu pedofilia ezin dela guztiz onartua izan. Zigor sistemak haurrak babesteko betebeharra duelako. Gainera, haurren garapen sexual duina izateko eskubidea bermatu behar dugu guztion artean. Baina, guzti honek pertsona hauen erakapen sexualaren jatorria non dagoen eta esku-hartzeak hobetzen lagundu ahal izango du.

Dugun informazioa, sistema penalarekin nolabaiteko erlazioa izan dutenen pertsonengandik jaso izan da. Hori dela eta, hauen inguruko ezaugarriak, adibidez, delitugile batekin alderatu daitezkeen horietakoak izango dira. Aurretik ikusi dugun bezala, pedofilo guztiek ez dituzte haurren aurkako deliturik gauzaten, eta haien egoera ezkutuan eta kalterik egin gabe bizitzen dute. Gizarteari hau erakutsi behar zaio, pedofiloa izateak ez zaitu zuzenean delitugile bihurtzen.

4.3.-Etiologia

Pedofiliaren beste hainbat aspektuetan bezala, etiologia ere oraindik ez da guztiz argi dagoen zerbait. Hala ere, ikerlariak orain arte lortutako datu eta informazioarekin gerturatze bat egiteko gai izan dira.

Esate baterako, denboran zehar, aditu askok pedofilia orientazio sexual batekin alderatu izan dute⁴⁴. Gaur egun, oraindik ere, askok hau pentsatzen jarraitzen dute. Izan ere, heterosexualitateak edo homosexualitateak izan ditzakeen ezaugarri asko partekatzen ditu. Esate baterako, Fred Berdil doktoreak adierazi bezala, pedofilia pertsonak jaiotzen diren unetik izan dezaketen orientazio sexuala izan daiteke.

Hauen arteko desberdintasuna nagusia, beti ere, definitzen duten irizpidea izango da. Azken finean, homosexualitatea eta heterosexualitatea generoaren arabera sexu-erakarpenerekin lotutako sailkapena den heinean, pedofiliaren bereizketa adinean egongo litzateke⁴⁵.

Hiru kasu hauetan, Michael Setoren ustetan, denboran zehar egonkortasuna erakusten dute. Hau da, haien kitzikapen sexuala eteteko aukera duten arren, erakargarritasunak jarraitu egiten du. Gainera, historian zehar homosexualak diren pertsonekin erabili izan diren terapien emaitzak erakutsi dutenez, ia ezinezkoa da orientazio hori desagertaraztea⁴⁶. Pedofiliaren kasuan, ikerketek emaitza adierazgarriak eman ez dituztenez, oraindik ez dakigu zenbaterainoko eraginkortasuna izango duten terapiak.

Hala eta guztiz ere, hainbat metaanalisis erakutsi dute pedofiloekin egiten diren terapiak eraginkorrak izan daitezkeela eta ondorio positibo ugari lortzen dituela. Beti ere, hauen helburua eraso sexualak ekiditea denean eta ez subjektuaren orientazio sexuala aldatzea⁴⁷. Hau da, hurrenganako erakarpen hori desagertarazten saiatzea. Gainera, honekin lotuta, Setok adierazten du pedofilia orientazio sexual modura ikusiz gero, esku-hartzeko saiakera guztiek emaitza hobeak lortuko lituzketela, orientazio sexual hori aldatzen saiatu beharrean, trebetasunen garapenean zentratuz gero.

Pedofilia orientazio sexual modura definitu badugu ere, homosexualitatea edo heterosexualitatearekin alderatuz, ezin da gaurko gizartean horrela kontsideratu. Izan ere, aurretik aipatu dugun bezala, hurrekin edozein motatako erlazio sexualak zigorgarriak

⁴⁴ Capponi, R. (2002) La Pedofilia; *Revista Mensaje*, Vol.51 No. 509 (40.Or.)

⁴⁵ Khan Z. (2018) An exploration into the unknown world of pedophilia; *The Sociological Eye* (42.Or.)

⁴⁶ Ídem

⁴⁷ Fromberger P., Jordan K. eta Muller J. L. (2013) Pedophilia: etiology, diagnostics and therapy (1123.Or.)

izan daitezke kultura eta jurisdikzio gehienetan. Hurrek haien adostasuna emateko ezintasuna duten heinean, haien kabuz sexualitateaz erabakiak hartzeko askatasunik ez dutelako, ezingo da inoiz horrelako ekintza zilegirik eman.

Honek, hala ere, ez du haurrenganako erakargarritasun sentimendu hori barneratzen. Roberto Cicciomesserek (2000) “Il Foglio” aldizkarian adierazi zuenez, zuzenbide estatu batean bizi garen heinean, pedofiloa izatea, bere burua halakotzat jotzea edo bere legitimitateari eustea erabakitzea ezingo da delitutzat hartu. Delitu bihurtuko da, beste pertsona batzuk kaltetzen dituen unean; hau da, haurren aurkako sexu-jardueraren bat gauzatzen denean.

Beste ikerlari batzuek, pedofilia aurretiko sexu abusuak jasan izanarekin lotzera iritsi izan dira (Capponi, 2002; Oliverio eta Graziosi, 2004; Fromberger, 2013; Di Giacomo eta Cicolari, 2013). Haurrak zirenean abusu sexualen biktima izan diren pertsona asko pedofiliaren ezaugarriak erakustera edota haurrak erasotzera iritsi dira⁴⁸. Honek nolabait, ekintza horiek izan ditzatekeen ondorioak azaleratzen ditu. Abusu sexualak jasan dituen haur bat, epe luzera erasotzaile izatera iritsi bait daiteke. Ricardo Capponiren ustetan, haur hori heldutasunera iristen denean bere abusatzailea izan denarekin identifikatu eta antzeko eszena bat eraikitzen du. Non oraingoan bera izango den kontrolatzen eta umilatzen duena⁴⁹.

Araban dagoen espetxe zentruko psikologoa denak honekin bat egiten du. Berak adierazi duenez, espetxe horretako erasotzaile sexuak tratamenduan daudela haien autobiografia azaltzen dutenean, askok biktimizazio egoerak adierazten dituzte. Haurrak direnetik hori ekintza arruntatzat hartu eta azkenean barneratzen bukatu dute. Haien heldutasunean haien burua erasotzailearekin islatzen dute eta ekintzak hasten dira. Duen esperientziatik esan dezake, delitugile hauen ia %50ak abusuak jasan dituela haurtzaroan.

Hala ere, eraso edo abusu horiek jasan dituen pertsona orok ez du haurrenganako interes sexualik piztuko. Baina, ikerketek erakutsi dute abusatzaile horien artean askok

⁴⁸ Balbuena F. (2014) Cartografiando la pedofilia: eficacia de los tratamientos y estrategias futuras; *Apuntes de Psicología*, Vol. 32, No. 3 (247.Or.)

⁴⁹ Capponi, R. (2002) La Pedofilia; *Revista Mensaje*, Vol.51 No. 509 (41.Or.)

erakutsi dutela aurretiazko bizkzimizazioa. Aditu batzuen ustetan, pedofilo guztien gehiengoa dira hauek⁵⁰.

Aurreko kontzeptuez gain, beste hainbat arlo ikertu izan dira, fenomeno honen jatorriaren inguruko erantzunak eman ahal izateko. Horien artean aurkitzen dira, besteak beste, pubertaroko egokitzapen-prozesuak, aurredisposizio genetikoak eta anomalia neurobiologikoak⁵¹. Hala ere, oraindik ez da lortu ebidentzia enpiriko nahikorik guzti hau azaltzeko gai izango dena.

4.4.-Ezaugarriak

Lehenik eta behin aipatu behar da, aurretik esan dugun bezala, dugun informazio gehiena sistema legalarekin nolabaiteko lotura izan duten haurren sexu-delitugileengandik jaso izan dela. Honek, hauen inguruko ikuspuntu oso estua emango digu, beraz. Aurretik esandakoaren ondorioz, Zahra Khanek (2018) dio pedofiloak deskribatzeko erabiltzen diren ezaugarriak delitugileak orokorrean definitzeko erabiltzen diren horiek izango direla. Esate baterako, autoestima baxua eta pasibotasuna.

Gaur egun arte dakiguna azalduz, pedofiloen artean aniztasuna handia aurki daiteke. Hau da, guztiz heterogeneoa den taldea aurkitzen dugu. Hauei dagokionez, bai portaera, orientazio, asmo edota beste edozein ezaugarrietan zentratuz, ezin dira pertsona hauek gizabanako-mota zehatz bezala kontsideratu⁵². Pedofilia duten pertsonen artean adinekoak, helduak, gazteak, jakintsuak, familiarrak, ezezagunak, emakumeak, gizonak... aurkitzen dira. Ez dago tipologia zehatzik⁵³.

Gainera, pedofiliak aurkezteko modu eta larritasun desberdinak izan ditzake. Izan ere, egoera mental erregresiboen arabera noizbehinkako pedofilotik hasi eta pedofilo

⁵⁰ Fromberger P., Jordan K. eta Muller J. L. (2013) *Pedophilia: etiology, diagnostics and therapy* (1129.Or.)

⁵¹ *Ibidem* (1128.Or.)

⁵² Hartjen C.A. eta Priyadarsini S. (2012) *The Global Victimization of Children: Problems and Solutions; Springer Science + Business Media* (201.Or.)

⁵³ Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); “¿Qué es la pedofilia?”; Paidós, Barcelona (51.Or.)

sadiko, suntsitzaile eta hiltzaileak aurkitu daitezke⁵⁴. Bestalde, lehen esan dugun bezala, askok haien “orientazioa” ezkutuan eramatea erabakitzen dute eta ohiko pertsonatzat kontsideratu daitezke.

Pedofiloez edota haurren abusatzaile sexualez ari garenean -gero ikusiko dugun bezala, ez dira gauza bera- oso talde anitza erakusten dute (Wortley eta Smallbone, 2006). Gure inguruan bizi den edozein pertsona izan daiteke. Esate baterako, gurasoak, irakasleak, bizilagunak, lagunak... Baina hauen artean gehienak gizonezkoak izan ohi dira. Emakumezkoen kasuak dauden arren -gero ikusiko dugun bezala- hauetako asko ez dira pedofilo kontsideratzen (Oliverio eta Graziosi, 2004).

Gonzalezen hitzetan (2004), haurren abusu sexualak gauzatzen dituzten pertsonen artean, %90-95 inguru gizonezkoek egiten dituzte. Hala ere, emakume erasotzaileak aurkitzea posible da, uste baino gehiagotan eman ohi dira horrelako kasuak. Arazoa da, askotan, haurrak abusu horiek salatzen dituenean, ingurukoek amak emandako zaintzak gaizki interpretatu dituela pentsatzen dute⁵⁵.

Kongruentzia emozioanalari buruzko teoria batean, pedofiloak emozionalki heldugabeak diren subjektuak direla adierazten da⁵⁶. Haien burua haurren maila emozional berean kokatzen dutenez, hauek sexu-bikote gisa aukeratzeko joera izan ohi dute. Honekin ados ere agertzen dira Anna Oliverio eta Barbara Graziosi (2004), zeinak adierazten duten honek helduekin erlazio sentimental bat izateko ezintasuna sortzen diela subjektu hauei.

Bestalde, beste teoria batek hauen autoestima baxua nagusitzen du. Haurrekin nahi dutena egiteko ahalmen horrek boteretsuak, ahalguztidunak eta kontrol dunak direlaren sentimendua emango die (Oliverio eta Graziosi, 2004; Capponi, 2002).

Pedofiloen bereizgarri den ezaugarritzat har daitezke hauek dituzten distortsio kognitiboak. Distortsio hauek erasotzailea biktimari eragindako kalteen ondorioak bere gain ez hartzera gidatzen dute. Erantzukizuna biktimari elarazten diote eta haien ekintzak

⁵⁴ Capponi, R. (2002) La Pedofilia; *Revista Mensaje*, Vol.51 No. 509 (44.Or.)

⁵⁵ González E., Martínez V. et al. (2004); Características de los abusadores sexuales; *Revista Sogia* 11 (10.Or.)

⁵⁶ Khan Z. (2018) An exploration into the unknown world of pedophilia; *The Sociological Eye* (43.Or.)

positibotzat hartzen dituzte⁵⁷. Hau da, informazioa prozesatzeko errore moduko bat da, zeinak haien ekintzen gaineko erantzukizuna ez hartzeko aitzakitza erabiltzen duten.

Abusatzaile sexualen artean, orokorrean, haien ekintzengatik erantzukizunik haiengan ez hartzeko joera dute⁵⁸. Batzuek biktimengan ezartzen dute errua, limurtzen saiatu direla alegatuz. Beste batzuek, egindakoa haurrei sentitzen duten maitasuna adierazteko modua baino ez zela adierazten dute. Haien ekintzak justifikatuko dituen aitzaki bat lortu nahi dute pertsona hauek. Errealitatea hori dela pentsatzera iristen dira.

Bukatzeko, bulkaden kontrolaren inguruko baieztapen bat aipatu nahiko nuke. Izan ere, delitugile gehienetan ematen den ezaugarria den heinean, pedofiloen edota abusatzaile sexualen kasuan ere, haur bat abusatzen dutenean haien bulkadak kontrolatzeko gaitasuna izan ez dutela adierazteko joera dago. Hala ere, Ryan Hall eta Richard Hall doktoreek (2007) egindako ikerketak erakutsi zuen ekintza pedofiloen %70-85 inguru aldeztatik pentsatutakoak izan zirela.

Honekin lotuta, Zaballa espetxeko psikologoak adierazi bezala, pedofiloak diren pertsonak egiten dutenaren konszientzia dutela azaltzen du. Hau da, normalean beren ekintzak kanpoko zirkunstantziei egozten dizkiete, hala nola alkoholari edo inpulsibotasunari. Hauek defentsa-mekanismo gisa erabiltzen dituzte. Mekanismo horiek, aurrerago tratamenduetan landu ohi dira.

Ikusi dugun bezala, gure inguruan dagoen edozein pertsona izan daiteke pedofilo edo haurren abusatzaile sexual bat. Aldiz, komunikabideek adierazten dutenaren arabera, ekintza hauek gauzatzen dituzten pertsonak zoroak dira. Horregatik, adingabeei ezezagunengana ez gerturatzeko eta haiengan konfiantza ez ezartzeko esaten zaie. Baina, errealitateari erreparatzen badiogu, ondorioztatu dezakegu, kasu gehienetan erasotzailea haur horren etxean bertan dagoela.

⁵⁷ Peña M. eta Anfreu J. M. (2012) Distorsiones cognitivas: una revisión sobre sus implicaciones en la conducta agresiva y antisocial; *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*, Vol. 12, (87.Or)

⁵⁸ González E., Martínez V. et al. (2004); Características de los abusadores sexuales; *Revista Sogia* 11 (12.Or.)

4.5.-Pedofiloak eta Haurren Abusatzaile Sexualak Gauza Bera?

Lan honetan zehar ikusi dugunaren harira, pedofilia eta haurren sexu abusua oso loturik dauden fenomenotzat har daitezke. Hori dela eta, gizartean askotan perbertitu gisa edo harrapari sexual gisa ikusi izan dira. Are gehiago, mundu osoan gertatzen diren gazteen biktimizazio sexualaren erantzule zuzen edo zeharkakoak kontsideratzen dira pertsona askorengatik⁵⁹.

Baina, errealitateari erreparatzen badiogu, konturatuko ginateke bi fenomeno horiek ezin direla sinonimotzat hartu. Izan ere, pedofilo izateak ez zaitu zuzenean erasotzaile batean bihurtzen eta haurrak abusatu dituzten pertsonen artean askok ez dituzte pedofiloen ezaugarriak partekatzen (Seto, 2004; Hartjen, 2012; Dillien, 2020). Ikerketek adierazi dutenaren arabera, soilik erasotzaile sexualen %30-50 inguruk betetzen dituzte pedofilia diagnostikatzeko beharrezkoak diren irizpideak⁶⁰. Hau da, hauen erdia baino gutxiago.

Gainontzeko erasotzaile gehienak helduenganako erakarpen sexuala sentitu izan dute, eta haurrengana jotzeko arrazoiak ez dira sexualak izaten (Seto, 2008). Beraz, subjektu askok ez dute gazteenganako sexu-orientaziorik erakusten. Hauen motibazio nagusia, beraz, ez da kitzikapen sexuala lortzea izango, beste bat baizik⁶¹. Horien artean aurkitzen dira, esate baterako, onura ekonomikoak lortzea, material pornografikoa edo proxenetismoa ekoitziz. Edota biktima potentziala bertan egonik aukera izan dutela konturatzea. Horrez gain, botere-baieztapenak edo beste edozein motibazio pertsonal jasotzeko asmoz ere egin dezakete.

Aipatutako hau kontuan izan behar dugu, ezin baitira erasotzaile sexual guztiak talde berdinean sailkatu. Hori dela eta, hauei zuzendutako tratamenduak ezin izango dute berdinak izan, behar desberdinak erakutsiko baitituzte. Argi izan behar dugu pedofilia

⁵⁹ Hartjen C.A. eta Priyadarsini S. (2012) *The Global Victimization of Children: Problems and Solutions; Springer Science + Business Media* (199.Or.)

⁶⁰ Fromberger P., Jordan K. eta Muller J. L. (2013) "Pedophilia: etiology, diagnostics and therapy" (1124.Or.)

⁶¹ Hartjen C.A. eta Priyadarsini S. (2012) *The Global Victimization of Children: Problems and Solutions; Springer Science + Business Media* (200.Or.)

parafilia bat dela, pertsona askori ezinegon bat sartzen diena; eta beste subjektuek ez dutela horrelako arazorik bizitzen.

4.6.-Modus Operandia

Orain arte ez da informazio gehiegirik lortu pedofiloen modus operandiari dagokionez. Oso gutxi dakigu hauek haurrak erasotzeko erabiltzen dituzten metodoez. Baina, badakigu pedofiloez edota abusatzaile sexualak haurren abusuak gauzatzen dituztenean, ez dela ohikoena erlazio sexual osoak izatea. Haurrak horretara derrigortzen dituzten pertsonak gutxienez bat baino ez dira⁶².

Anna Oliverio eta Barbara Graziosi-ren (2004) hitzetan, gehiengo haurrei kalterik ez egiten saiatzen dira, pedofiloen kasuan behintzat. Hauek adingabeengan duten erakarpen horren ondorioz, gehienbat. Hori dela eta, haurrak biluzten dituzte, hauek begiratuz soilik. Beste batzuek adingabeen aurrean haien burua masturbatzera trebatzen dira, goxotasunez ukitu edota laztandu. Oso ezohikoak izango dira, beraz, sarketarekin bukatzen duten sexu jarduerak gauzatzea; arrazoi fisiologikoak direla medio. Izan ere, gizon helduak izan dezakeen zakila eta biktimaren organuaren tamaina desberdintasun desproporzionalak izan ohi dituzte⁶³.

Modus Operandiarekin guztiz lotutako ikerketa bat gauzatu zuten Smallbone eta Worley-ek 2001.urtean⁶⁴. Bertan, 169 delitugilez osatutako lagin batekin, oso interesgarriak diren datuak lortu ziren; izan ere, abusatzaile sexualak hiru motatan sailkatzea erabaki zuten: familia barnean gertatzen direnak, familia kanpokoak eta mixtoak. Lan honetan, lehenengo soilik erabiltzea erabaki dute, hori baita pedofiloiari gehien urbiltzen zaion jokoera.

Familiatik kanpo ematen diren abusetan pertsona hauek haurren gurasoen lagun izaten saiatzen dira, eta geroz eta denbora gehiago pasatzen hasten dira geroago biktima

⁶² Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); *¿Qué es la pedofilia?*; Paidós, Barcelona (72.Or.)

⁶³ Echeburúa, E. (2019). *Personalidades Violentas*. Pirámide (98.Or.)

⁶⁴ Smallbone S.W. eta Wortley R.K. (2001) Child Sexual Abuse: Offender Characteristics and Modus Operandi; *Australian Institute of Criminology*, No. 193 (4.Or.)

izango den adingabearekin. Ikerketaren arabera, delitugileen %27.8ak duela urte batetik ezagutzen zuen biktima. Erasoaren lekuari dagokionez, %45.8an etxean egiten zen.

Delituaren egitateei dagokienez, delitugileek gehien erabili zuten jokaera hurrei ipurdia, titiak edo zakila ukitzea izan zen. Lagin osoaren %82.1a ziren, hain zuzen ere. Hala ere, askok haurra eiakulaziora eramatera iristen ziren.

Ikerketa honekin bukatzeko, egitateen osteko jarrera azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, haurrak abusu horiek ez salatzeke hainbat medio erabiltzen zituzten. Kontatuz gero, delitugilea espetxera joango zela esan -haiengan afektua zutela pentsatzen baitzuten-, hurrari opariak eman... Hauez gain beste hainbat aitzakia erabiltzen zituzten, haurra engainatu edota mehatxatzeko asmoz.

Aldiz, hurrekin kontaktu zuzenik behar ez dituzten pertsonak ere badaude. Hauek haurren presentzia duen material pornografikoa ikusten jarduten dute denbora. Honetan asko lagundu du globalizazioak horrenbeste aurreratu duen Internetak eta web orri espezializatuak.

Globalizazio horrek ere turismo sexual pedofiloa izeneko fenomenoan eragin handia izan du. Honen ondorioz, pedofilia ikusgarriagoa bilakatu bait da. Lehen aipatu dugun bezala, gizarte gehienetan hurrenganako erakargarritasun hori izateak arazo asko sor diezaioke subjektuari. Hori dela eta, pertsona hauek haien lehentasuna ezkutuan mantendu ohi izan dute. Gaur egun, ordea, Internetetik munduko edozein tokiko pertsonekin erlazionatzeko dagoen erraztasunak hori aldatu egin du. Orain pedofilia duten pertsonak haien egoera berean dauden beste pertsona batzuekin erlazionatzen dira oso modu errazean, eta bertan aurkitu daitekeen material pornografikoari esker haien fantasiak eta desirak elikatzen dituzte⁶⁵.

Herrialde zehatz batzuetan horretaz baliatzea erabakitzen dute bertako ekonomia sustatzeko asmoz. Haurren esplotazio sexuala nagusi den herrialdetan eman ohi da. Hurrenganako erakarpen sexuala sentitzen duten pertsonak bertara bidaiatzen dute, turismo sexuala praktikatzeko asmoz. Bertan dena prest dago hauei zerbitzuak eskaintzeko. Hau, dakigun bezala, gaur egungo gizartearentzako eraso handia

⁶⁵ Echeburúa, E. (2019). *Personalidades Violentas*. Pirámide (53.Or.)

kontsideratu daiteke. Oraindik lan asko dago egiteko honen inguruan, esku-hartze eraginkorren planteamenduak, esate baterako.

5.-EMAKUMEZKO ERASOTZAILEAK

Haurren sexu abusuaz ari garenean, burura datorkigun lehen irudia gizon batena izan ohi da. Hortaz, emakumeek egindako sexu-abusua aitortzen denean, askotan fenomeno arrarotzat hartu daiteke. Izan ere, delitugintzan emakumeak biktimatza hartu izan dira gehienetan. Errealitateak, aldiz, informazio desberdin bat eskaintzen digu, emakume batzuk delituak gauzatzera iristen baitira. Ikuspegi hau aldatu behar den zerbait dela diote autore batzuek, profesionalek emakumeak ere umeei sexu-abusuak gauzatzeko gai diren pertsonak direla kontuan hartu behar baitute⁶⁶.

Hala eta guztiz ere, zigor-arloko justizia sisteman delitugile sexualak diren emakume gutxi aurkitu daitezke⁶⁷. Hori da estatistika ofizialek adierazten dutena. Esate baterako, Erresuma Batuan 2003an egin zen inkesta batean lortutako erantzunen arabera, delitu sexualak gauzatu dituzten emakumeen zenbatekoa 98koa izan zen⁶⁸.

Baina, informazioa biltzeko metodoa aldatuz gero, emaitzak ere aldatu egiten direla ikusi daiteke. Childlineek (2005) egindako autoinformeek agerian utzi zuten parte hartu zuten nesken %5a eta mutilen %44a emakume abusotzaile baten biktimak izan zirela. Beste adibide bat Finkelhorrek 1990an egindakoa da, zeinak ausaz hautatutako telefono-zenbaki batzuei deituz ondorioztatu zuen abusu sexualen biktima izan diren pertsonetatik gizonen %17ak eta emakumezkoen %1ak tratatu txarrak jasan dituela⁶⁹.

Beraz, esan daiteke, emakume erasotzaileen prebalentzia tasa baxua dela gizonezkoenarekin alderatuta. Nahiz eta, erabiltzen den neurketa metodoaren arabera, emakumeen delituen kopurua asko aldatu daitekeen. Ikertzaileen ustez, hauen prebalentzia %1 eta %20aren artekoa izanik⁷⁰.

⁶⁶ Nathat P. eta Ward T. (2002) “*Female sex offenders: Clinicar and demographic features*” ; The Journal of Sexual Aggression 8 (20.Or.)

⁶⁷ Goldhill R. (2013) “*What was she thinking? Women who sexually offend against children - implications for probation practice*” ; Probation Journal 60 (415.Or.)

⁶⁸ Ibídem(416.Or.)

⁶⁹ Ídem

⁷⁰ Peter T. (2009) Exploring Taboos: Comparing Male- and Female- Perpetrated Child Sexual Abuse; *Journal of Interpersonal Violence*; Vol 24, No 7 (1112.Or.)

Informazio honetatik ondorioztatu daitekeena da, emakumeek egindako sexu-abusua gizonezkoena bezain ohikoa ez den arren, emakumeak ere haurrak kaltetzeko gaitasuna izango duela. Hortaz, alde batera utzi behar ez den informazioa izan behar du.

Hala ere, gaur egun fenomeno honi buruz dauden ikerketak aztertuz gero, oso urriak direla ikusi daiteke. Adituen artean, emakumeen sexu-delitugintza ez baita gizonezkoena bezain ikertua izan. Rachel Goldhill-en (2015) aburuz, guzti honen atzean egon daitekeen arrazoietakoa bat da, agenda feministan gizonezko delitugileek duten nagusitasuna.

Hau guztia dela eta, gizonezko erasotzaileei buruzkoa ez bezala, emakume erasotzaileen inguruan aurkitu daitekeen informazioa oso urria eta kontraesankorra da. Gaur egun, oraindik ere oso gutxi dakigu haien ezaugarrien inguruan; hauen motibazioak, ezaugarri psikologiko eta psikopatikoak, parafiliak, tratamendu-beharrak...⁷¹ Aurkitu dezakegun informazioa, aurrerago ikusiko dugun bezala, ez da fidagarria izango.

Informazio falta honen ondorioz, tratamenduaren arloan gabezia handia aurkituko dugu. Izan ere, Gwen Adshead-ek eta bere kideek adierazi bezala, gaur egun arte ez da emakume delitugileentzako bereziki zuzenduta dagoen tratamendurik sortu⁷².

Aldiz, gizonezkoen tratamenduen ikerketen hobekuntzak habian jarraitzen dute. Honek agerian uzten du berriro ere delitugintzan gizonezkoek duten nagusitasuna. Baliabideak haiei eskainiz, emakumeen rola bigarren plano batean uzten dira, hauen beharrak alde batera utziz.

Concepción Yague Olosek 2007an adierazi zuen, kartzelak orokorrean gizonen eta gizonentzat kudeatzen dituztela. Hortaz, espetxeratutako emakumeak bigarren mailako plano batean gelditzen dira. Gaur egun egoera pixka bat aldatu den arren, oraindik ere dauden tratamendu aukerak oso mugatuak izaten jarraitzen dute, gizonen dituztenekin alderatuz⁷³.

⁷¹ Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression* 8 (19.Or.)

⁷² Adshead G., Howett M. eta Mason F. (1994) Women Who Sexually Abuse Children: The Undiscovered Country; *The Journal of Sexual Aggression*, Vol. 1 No. 1 (51.Or.)

⁷³ Montero E. (2019) La reeducación y la reinserción social en prisión: el tratamiento en el medio penitenciario español; *Revista de Estudios Socioeducativos*; No. 7 237.Or.

Gaur egun arte egin diren ikerketak aztertuz gero, ondorioztatu daiteke antzekotasunak aurkitu daitezkeen arren, emakume sexu abusatzaileen taldea oso heterogeneoa dela⁷⁴. Gizonezkoen antzera, emakume bakoitzaren ezaugarri pertsonal eta konduktualen arabera, kategoria desberdinetan banatzeko aukera izango dugu⁷⁵.

Urte askotan zehar emakumezko delitugile sexualen ezaugarriak ikertu ostean, hainbat ikerlarik hauen tipologia azaltzea erabaki dute. Emaitza desberdinak ikusi ondoren, ezaugarriak modu bateratuenean adierazten zituena Matthews-ek 1989. urtean egindakoa dela ondorioztatu daiteke. Bere aburuz, lau mota bereizi daitezke:

1. Irakasle eta maitale paperean agertzen direnak.
2. Gizonezkoengatik derrigortuak izaten direnak.
3. Haurrak zirenean delitu sexualaren biktima izan direnak.
4. Arazo psikologikoak dituztenak. Horien artean aurkitzen dira, esate baterako, gaixotasun mentala duten emakumeak.

Bi generoen arteko desberdintasunekin jarraituz, emakumezkoek erruduntasun sentimendua garatuagoa dutela adierazten dute hainbat adituek. Gainera, hauen gehiengoak haien ekintzak egokiak ez direla onartu eta damua adieraztera iritsi daitezke⁷⁶. Honen arrazoietakoa bat izan daiteke, adibidez, bakoitzak delitua gauzatzeko izan dezakeen motibazioa. Izan ere, Mathews-ek egindako ikerketa batzuen ostean, motibazioaren araberrako sailkapen bat egitera trebatu zen.

Hasteko indarkeria erabiltzen dutenak bereiztuko ditu, modu sadikoan jarduten dutenak. Pertsona hauek haur gazteak dituzte gogoko, sei urte azpikoak normalean. Bestalde, irakaslea izango genuke, bere biktimak mutikoak izan ohi dira eta bere motibazioa amodiozko erlazio bat izatea izango da. Bukatzeko, aurreko sailkapenaren antzera, bere bikotekidearekin gauzatutako delituak aurkituko ditugu. Non lehenesten den

⁷⁴ Adshead G., Howett M. eta Mason F. (1994) Women Who Sexually Abuse Children: The Undiscovered Country; *The Journal of Sexual Aggression*, Vol. 1 No. 1 (51.Or.)

⁷⁵ Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression* 8 (20.Or.)

⁷⁶ *Ibidem* (7.Or.)

motibazioa gizonarenganako beldurra eta menpekotasuna izan ohi den. Normalean haien haurren kontrakoa izaten da⁷⁷.

Emakumezko delitugileen ezaugarri pertsonalak kontuan hartuz gero, literatuak iradokitzen du haien batzuetan adina 20 eta 30 urte artean dagoela. Nahiz eta, aurretik esan dugun bezala, egindako ikerketen emaitzak guztiz fidagarriak ez izan⁷⁸. Hezkuntza mailari dagokionez, Faller-ek (1987) adierazitakoaren arabera, urria izan ohi da. Gainera, haien artean langabezia tasa handiak aurkitu daitezke. Hori dela eta, aukera asko daude talde sozial bereziki baxuko pertsonak izatea⁷⁹.

Biktimei dagokienez, Peredak (2006) egin zuen ikerketa batean adierazten da, erasotzailea emakumea denean bere biktimak 12 urte baino gehiago izaten dituela. Ekintza hori normalean baimendua izaten da, nahiz eta delitu izaten jarraitzen duen.

Kontuan izan behar den beste faktore bat zifra beltzarena da. Izan ere, Bunting-ek (2005) adierazten duenaren arabera, biktima askok haien erasotzailea gizonetzkoa izan dela adierazten dute, ingurukoek pentsatuko dutenaren beldur. Askotan errua eta nahasketa sentitzera ere iristen dira, delitugilea emakumezkoa izaten denean; are gehiago familia barneko egoera baten aurrean aurkitzen direnean⁸⁰. Gainera, batzuek haien sinesgarritasuna zalantzan jarriko dela pentsatzen dute, emakumeak delitugile bezala kontsideratzeko dagoen zailtasuna dela eta⁸¹.

Biktimaren generoa eztabaidagarria den faktorea da; izan ere, ikerketa batzuek mutikoak nahiago dituztela eta beste batzuek gehienak neskak direla adierazten dute. Esate baterako, Finkelhor eta Russell-ek (1984) mutikoak gehiago direla adierazi zuten, joera handiagoa zegoela. Aldiz, Rudin eta beste autore batzuek (1995) gizon zein

⁷⁷ Beech A. R. et al. (2009); Assessing female sexual offenders motivations and congitions: an exploratory study; *Psychology, Crime and Law*; Vol. 15 Nos. 2 eta 3 (202.Or.)

⁷⁸ Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression* 8 (6.Or.)

⁷⁹ Peter T. (2009) Exploring Taboos: Comparing Male- and Female- Perpetrated Child Sexual Abuse; *Journal of Interpersonal Violence*; Vol 24, No 7

⁸⁰ Goldhill R. (2013) What was she thinking? Women who sexually offend against children - implications for probation practice; *Probation Journal* (420.Or.)

⁸¹ Adshead G., Howett M. eta Mason F. (1994) Women Who Sexually Abuse Children: The Undiscovered Country; *The Journal of Sexual Aggression*, Vol. 1 No. 1 (47.Or.)

emakume delitugileek sexu abusuak gauzaterakoan neskatoak nahiago dituztela azaldu zuten. Nahiz eta gizonezkoen tasa altuagoa izan⁸². Hemen ikusten da autoreen arteko desadostasuna dagoela, non batzuen ideiak besteen ideiekin bat egiten ez duten.

Adierazi behar da ere, Rachel Goldhill-en esanetan, hainbat ikerketek adierazi dutela emakumezko erasotzaileen %50-%70a gizonezkoen batekin elkartuta jarduten dutela. Kaufman, Wallace, Johnson eta Reeder-ek ere, hau sostengatu zuten, emakumezko sexu-delitugileek erasotzaile gizonezkoen batekin nahastuta jokatzeko aukera handiak zituztela alegatuz⁸³. Ez hori bakarrik, Bajet eta Farranek (2020) emakumeak sexu abusetan jardunez gero maiz kolaboratzaile gisa agertzen direla aurkitu dute hartatu dituzten kasuen perfilari erreparatzean.

Erasoa gauzatzeko erabiltzen duten metodoari dagokionez, autore desberdinen ustetan, gizonezkoek eroskeria eta indarkeria erabiltzen duten bitartean, emakumezkoek hertsatzeko neurri gutxiago erabiltzen dituzte eta oso gutxitan iristen dira fisikoki kaltetzera⁸⁴. Marvasti ere honekin ados agertzen zen, emakumeek gauzatutako sexu abusetan indarkeria gutxiago erabiltzen zela adieraziz⁸⁵. Aldiz, Rudin-ek (1995) adierazi zuen, ez zuela metodoari buruzko desberdintasun nabarmenik aurkitu generoaren aldetik. Berrito ere ikusi daiteke, honen bitartez, fenomeno honi buruz dugun informazioa kontraesankorra eta urria dela.

Lehen esan bezala, emakumezko delitugileen taldea heterogeneoa izateaz gain, hauen inguruko informazio kontraesankorra dugu. Hala ere, bada hauen artean oso esanguratsua den ezaugarri bat, autore guztiek horrekin bat egiten dutena: aurretiazko biktimizazioa. Emakumezko erasotzaileak, sarritan haurren aurkako sexu abusuen biktima izan dira. Saradjian eta Hanks-ek (1996) egindako ikerketa batean ikusi zen,

⁸² Peter T. (2009) Exploring Taboos: Comparing Male- and Female- Perpetrated Child Sexual Abuse; *Journal of Interpersonal Violence*; Vol 24, No 7 (1114.Or.)

⁸³ Beech A. R. et al. (2009); Assessing female sexual offenders motivations and congitions: an exploratory study; *Psychology, Crime and Law*; Vol. 15 Nos. 2 eta 3 (202.Or.)

⁸⁴ Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression* 8 (7.Or.)

⁸⁵ Peter T. (2009) Exploring Taboos: Comparing Male- and Female- Perpetrated Child Sexual Abuse; *Journal of Interpersonal Violence*; Vol 24, No 7 (1115.Or.)

adibidez, laginaren gehiengo aurretik biktima izan zen. Honek, nolabait eraso horren normalizazioa ekarriko du⁸⁶.

Aurrekoarekin lotuta, pertsona bat erasotua izaten den heinean, ondorio psikologiko larriak izango ditu. Ondorio horiek epe laburrekoak ez ezik, luzekoak ere izan daitezke. Horien artean aurkitzen da, esate baterako, etorkizun batean sexu erasotzaile bilakatzea. Ikerketa askok adierazi dutenez, haurra zirenean abusu sexualak jasan izana arrisku faktorea izan daiteke etorkizunean eraso sexualak gauzatzeko. Ez hori bakarrik, Matthews-ek (1997) azaldu zuen erasotzailea emakumea izan diren kasuetan, arrisku hori areagotu egin daitekeela⁸⁷. Are gehiago, emakume hori abusatua izaten ari den haurren ama bada. Biktimarengan norbere irudiari buruzko nahasmen handia sortzeaz gain, amorru bereziki handia eragin dezakeelako⁸⁸. Groth eta Burgess-ek espetxean aurkitutako sexu erasotzaileekin egindako ikerketa batean lortutako emaitzetan ikusi zen, ikertutakoen %41a emakume batengatik erasotua izan zirela⁸⁹.

Emakumezko delitugileei buruz egin diren ikerketen erantzunen arabera, badirudi buruko gaixotasunak oso ohikoak izan daitezkeela haien artean. O'Connor-ek, esate baterako, ikerketa lagin bateko %48ak zerbitzu psikiatrikoekin aurretiazko harremanak izan zituela ondorioztatu zuen⁹⁰. Honekin lotuta, Rachel Goldhill-en (2015) hitzetan hauen %50ak sendagai psikiatrikoak hartzea edota osasun mentaleko zentro batean barneratuak izatera iritsi dira. Esan daiteke, beraz, emakumezko erasotzaileak arazo psikologiko ugari izan dituztela (Wijkman, Bijleveld eta Hendriks, 2010). Aldiz, gizonezko sexu erasotzaileen kasuan egin diren ikerketak ez dute buruko gaixotasunen

⁸⁶ Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression* 8 (19.Or.)

⁸⁷ Goldhill R. (2013) What was she thinking? Women who sexually offend against children - implications for probation practice; *Probation Journal* (419.Or.)

⁸⁸ *Ibidem* (420.Or.)

⁸⁹ Adshead G., Howett M. eta Mason F. (1994) Women Who Sexually Abuse Children: The Undiscovered Country; *The Journal of Sexual Aggression*, Vol. 1 No. 1 (46.Or.)

⁹⁰ *Ídem*

inguruko tasa esanguratsurik aurkitu. Ezta ere zerbitzu psikiatrikoekin aurretik izandako harremanik⁹¹.

Osasun mentalarekin jarraituz, Wijkman-ek eta beste aditu batzuek (1994-2005) egindako ikerketek adierazi zuten %40a ideia autolitikoak, antsietatea eta trauma osteko estresa erakutsi zutela. Gainera, Faller-en hitzetan, nortasunaren nahasmenduak, depresioa, toxikoen kontsumoa eta arazoei aurre egiteko gaitasunaren urritasuna emakumezko delitugile sexualen artean aurki daiteke⁹². Bukatzeko, emakume guztien %68ak adimenaren batz-bestekoaren azpitik aurkitzen zen⁹³.

Hala ere, aipatu behar da, ikerlan honetan garrantzitsua izaten ari den parafiliari dagokionez, hainbat ikerlariak ondorioztatu zuten, gizonezkoekin alderatuz, emakume delitugileek probabilitate gutxiago zutela pedofilia baten diagnostikoa izateko⁹⁴.

Bukatzeko, hausnarketa bat egin nahiko nuke. Izan ere, esan bezala, haurren sexu abusua ari garenean burura datorkigun lehen irudia gizon batena bada ere, emakumezko egileak dituzten delituak ere aurkitu daitezke. Hala ere, ikusi dugu orokorrean delitu honen inguruko informazio gutxi baldin badago, emakumeei buruzkoa are eta urriagoa dela. Gainera, ikusi daitekeen bezala, ditugun datuak oso kontraesankorrak dira. Hau guztia dela eta, beharrezkoa iruditzen zait fenomeno honi garrantzia gehiago ematea; hots, emakumeen delitugintza errealitatearen parte dela azpimarratzea.

Delitugile hauek dituzten delituaren zifra ezezaguna da, honek duen zifra beltza oso handia baita. Beharrezkoa da gizonezkoen delitugintzan bezala, honi ere erantzuna emateko gaitasuna izatea. Horretarako esku-hartze desberdinak eginez, eta beharrezko ikerketak abian jarritz. Hauek sortzen dituzten biktimen segurtasuna bermatu behar da, eta horretarako ezinbestekoa da adituen jakintza.

⁹¹ Ibidem (53.Or.)

⁹² Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression* 8 (20.Or.)

⁹³ Goldhill R. (2013) What was she thinking? Women who sexually offend against children - implications for probation practice; *Probation Journal*

⁹⁴ Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression* 8 (7.Or.)

6.-TRATAMENDUA

6.1.-Delitugintzaren Aurrezaintza

Delitugintzaren aurrean aurkitzen garenean, gizarte-kontrolaz hitz egin daiteke. Azken batean, hau gizartean eragin asko duen fenomenoa izanik, gizarteak berak saiatu behar du hori ekiditen, eta hortaz, aurrezaintzan parte hartzen. Alde soziologikoari erreparatzen badiogu, kontrol hori bi motatakoa dela ondorioztatu daiteke; alde batetik, formala eta bestetik, informala⁹⁵.

Informalei dagokionez, pertsonengan eragin gehien izan dezaketen instituzioak aurkitzen ditugu. Esate baterako, familia, eskola eta hedabideak. Hauek izango dira gazteak garenetik gizartean dauden arau sozialak zeintzuk diren irakatsiko digutenak eta gudan eragin gehien izango dutenak. Baina, hauek egindako lana nahikoa izan ezean, bigarren kontrol mota aurkitzen dugu: formala.

Kontrol formalak estatuko botereekin erlazio estua izango du. Izan ere, horien artean aurkitzen dira polizia, justizia eta espetxe administrazioa. Hauen zeregina, Gabaldón-en (1987) esanetan, debekatutako jokabideak definitu, detektatu eta ezabatzea izango da.

Guzti hauen lana, esan bezala, aurrezaintza lanak egitea izango da. Delitugintza desagertu ezin den fenomenoa bada ere -arauak dauden heinean, beti egongo delako norbait urratuko dituenak-, ahalik eta delitu gutxien gauzatzeko estrategiak erabili behar ditugu. NBE-k (Nazio Batuen Erakundea, 2002) aurrezaintzari erreferentzia eginez, honako hau esaten du: arau-haustearen arriskuak eta horiek pertsonengan eta gizartean eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak murriztea bilatzen duten estrategiak eta neurriak bilatzen ditu. Guzti hori egiteko, aurrezaintza hiru une desberdinetan egitea erabaki ohi izan da. Batek eraginkortasuna izan ezean, gainontzekoen presentziak delituen kantitatea jaitsiko duelakoan.

⁹⁵ Vega, E. (2017) El control y la prevención del delito como objeto de la criminología; *Miscelánea Comillas*; Vol. 75, No. 146; (173.Or.)

Hasteko, lehen mailakoa daukagu, zeinak politika kultural, ekonomiko eta sozial batean oinarritutako estrategiak erabiltzen dituen⁹⁶. Estrategia hauek gatazka kriminalaren erroa erasotuko dute, delitua gertu baino askoz lehenago eraginez. Hemen hezkuntzak garrantzia berezia izango du, normalean haurrak diren unetik hasten baita⁹⁷. Hala ere, esan behar da, bere ondorioak epe luzeak izan ohi direla, eta ez dugula hain erraz hauen eraginkortasuna jakiteko aukera izango.

Bigarren mailakoa kasu zehatzetan edo arazo kriminala izan dezakeen pertsonak ezartzen du fokua. Hau da, delitua gauzatzeko arrisku gehien duten pertsonengan. Hemen delitua gauzatzeko egon daitezkeen aukerak eta ezaugarriak desagertarazten saiatzen dira, delitua gauzatzea zailagoa izateko (Guerrero, 2007). Aurrekoa ez bezala, honen ondorioak epe motz eta ertainera ikusi daitezke.

Bukatzeko, hirugarren maila izango dugu, zeinak behin subjektuak delitua gauzatzen duenean jardungo duen. Beraz, kasu honetan, aurrezaintza pertsona konkretu bati zuzendua izango da, delitua egin duenari. Normalean, espetxean eman ohi da, tratamenduen bidez. Hauen helburua, pertsona horrek berriro ere deliturik ez gauzatzea izango da.

Lan honetan zehar, hirugarren mailako aurrezaintza sakontzea erabaki dut. Izan ere, nire helburuetako bat pedofilia diagnostikatua duten pertsonen lehen eta bigarren mailako aurrezaintzak alde batera utzi eta delitua gauzatzen dutenean jarraitu beharreko prozesua ezagutzea da. Hortaz, hemendik aurrera, haurren aurkako abusatzaile sexualen tratamenduak zeintzuk diren aztertu, eta hauen eraginkortasuna zenbatekoa den jakitera bideratuko da lana.

Gizartean delitu mota hauek sortzen duten alarma soziala kontuan hartuz, ezinbestekoa da egiten diren esku-hartzeen baliagarritasuna frogatzea. Izan ere, etorkizunean egon daitezkeen biktima potentzialak babesteko modua izan daiteke. Aurretiko aurrezaintzak huts egin duten arren, bigarren aukera bat eskaintzen da espetxean. Subjektuen erantzukizuna izango da aukera horretaz baliatzea eta arau-

⁹⁶ Vega, E. (2017) El control y la prevención del delito como objeto de la criminología; *Miscelánea Comillas*; Vol. 75, No. 146; 188.or.

⁹⁷ Guerrero, L. F. (2007) Seguridad pública y prevención del delito en el estado social de Derecho. Especial comentario a la trascendencia de la educación; Universidad de La Sabana; No. 16; (266.Or.)

hausterik gabeko bizitza hastea. Hala ere, ikusiko dugun bezala, ez da soilik espetxeratu eta bertako adituen lana izango, gizarte guztiak parte hartu behar duelako pertsona hauen birgizarteratzean.

6.2.-Delitugileentzako Tratamendua Espetxetan

Lehen eta bigarren mailako aurrezaintzak eraginkorrak ez direnean, subjektua sexu-delituak gauzatzen hasi daiteke. Heldutasunean ekintza horiek egiten jarraituz gero, litekeena da zigor askatasun gabetzaile baten ondorioz, espetxe batean bukatzea.

Espainiako espetxeetan 1965.urtean hasi ziren delitugileentzako tratamenduak ezartzen. Une horretan pertsona hauen birgizarteratze lanetan terapia psikologiko batek izan dezakeen efikazia baliagarria izan daitekeela pentsatzen hasi bait ziren. Ez dugu ahaztu behar, pertsona bat espetxean sartzen den unean, ateratzen denerako bere jarrera aldatu izana aurreikusten dela, eta horretarako, zigor hutsak ez duela efikazia nahikorik izango.

Espainiako kartzeletan dauden preso kopurua zenbatzen hasiko bagina, zifra oso altua dela ikusiko genuke. Izan ere, Europako espetxeko poblazio altuenak dituzten herrialdeen artean aurkitzen da hau. Redondok (2008) azaltzen duenez, 1996an 41.886 espetxeratu egotetik, 2006an 64.021 preso izatera iritsi ziren. Hau da, hamar urteetan zuten poblazioa %50ean igo zen. Hau horrela ikusita, burura datorkigun lehen azalpena delitugien gorakada izan daiteke. Delitu gehiago egonik, preso gehiago egon beharko luketelako. Baina, errealitateko datuei erreparatzen badiegu, delitu kopuru horrek behera egin duela ikusi dezakegu.

Espetxeko populazioaren gorakadaren atzean dagoen arrazoa, azken urteetan zigorretan eman den astuntasuna izan da⁹⁸. Hau da, legeak geroz eta zorrotzagoak egiten dira, zigor askatasun gabetzaileen iraupena geroz eta handiagoa da, eta hortaz, subjektuek denbora asko igaro behar dute espetxeetan. Pertsona berriak sartzen diren arren, bertan daudenen zigorrak luzeak direnez, oso gutxi irteten dira bertatik, eta pilotzen joaten dira.

⁹⁸ Redondo S. (2017) *Evaluación y tratamiento de delincuentes: Jóvenes y Adultos*; Pirámide (255.Or.)

Honen guztiaren atzean gizarte punitiboa aurkitu dezakegu. Lan honetan zehar askotan aipatu dudan bezala, zigorrak astuntzearen atzean, pertsonen beldurra eta segurtasun eza daude. Hau da, pertsonak delituarengatik beldurra sentitzen dute, biktima izan nahi ez dutelako. Horregatik, estatuko botereei esku-hartzeak eskatzen dizkiete. Egoera hau oso argia da delitugile sexualen kasuan. Izan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, gizarteak duen hauekiko ikuspegia ez da eskuzabala. Zigorra merezi dutela aitortzen dute, askok zigor altuak eskatzen dituztelarik; haien birgizarteratzeko eskubidea mugatu edo batzuetan alde batera uzteraino. Baina hau ez da soilik gizarteko herritarren mezua, estatuko botereek ere hori erakusten baitute, herritarrei jaramon egin eta delitugileak zorrotzago zigortzen bait dituzte.

Errealitatean dagoen ikuspegia hau bada ere, ez dugu ahaztu behar espetxearen helburu nagusia birgizarteratzea izan behar duela. Hori dela eta, bertan dauden subjektuek beharrezko baliabideak izan behar dituzte hori lortu ahal izateko. Tresna horien artean, aurkituko ditugu, esate baterako, espetxeetako tratamenduak.

6.3.-Delitugilearen Arrisku Faktoreak

Delitu bat gauzatu duen pertsona bat aztertzen hasten garenean, beregan hainbat ezaugarri aurkitzen ditugu. Horietako batzuk, positiboak izan daitezke, pro-sozialak, alegia, gainontzeko gizartearekin eta inguruko pertsonekin erlazionatzeko baliagarriak izan daitezkeenak. Baina beste batzuk negatiboak izango dira, bere delitugintzan eragina izan dezaketenak; arrisku faktoreak.

Tratamendua ezartzen den unean, beharrezkoa izango da faktore horiek zeintzuk diren zehaztea, hauek kontrolatzea izango baita, lortu nahi den helburuetako bat⁹⁹. Delitugile sexuali zuzendutako tratamenduak, esate baterako, pertsonen balore, jarrera eta ekintzetan aldaketak sortzera daude bideratuta. Izan ere, lortu nahi dena delitua gauzatzera bultzatu ahal izan duten faktore horiek desagertaraztea da. (Redondo S, eta Mangot A; 2019)

⁹⁹ Martínez A. eta Redondo S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; (23.Or.)

Redondoren (2008) esanetan, arrisku faktoretzat hartzen dira elementu pertsonal, familiar edo sozialak, zeina delitu-arrisku handiago batekin lotzen den. Hala ere, arrisku faktoreak izate hutsak ez zaitu delitugile bilakatzen. Faktore horiek ez dituzten pertsonekin alderatuz, delitua gauzatzeko edo horretan murgilduta egoteko aukera gehiago izango dituela esan nahi du¹⁰⁰.

Delituak gauzaten dituzten pertsona askok, bereziki delitu bortitzak gauzaten dituztenak, ezaugarri batzuk partekatzen dituzte¹⁰¹. Berrerortze arriskua eta tratamendurako aukerak honekin guztiz lotuta daude, erasotzailearen ezaugarrien arabera, tratamendu bat edo beste planteatzeaz gain, honen efikazian ere eragingo duelako¹⁰².

Delitugintzan eragina izan dezaketen ezaugarri horiek bi kategoriatan sailkatzen dituzte hainbat ikerlariek. Alde batetik, faktore dinamikoak ditugu, eta bestetik estatikoak. Estatikoak subjektuaren iraganarekin lotuta daude, alda ezinak edo aldatzeko zailak direnak (Martin, N eta Vozmediano L.; 2014). Kasu honetan, honako ezaugarri hauek aurkitu ditzakegu: adingabea izatea, aurretiko delitu kopurua, fantasia desbiatuak, parafiliak, edota Hareren psikopatia-eskalako I.faktorearen profil psikopatikoa izatea. (Redondo, S.; 2006).

Dinamikoak, aldiz, aldatu daitezkeenak izango dira, eta tratamendua egiteko garaian landuko diren aspektuak. Ohitura, balio eta ezagutzak biltzen dituzte, eta neurri batean esku-hartze egokien bidez aldatzeko aukera emango dute. Hauen artean aurkitzen dira, esate baterako, tratamendua jarraitzeko motibazio eza, pertsonekin erlazionatzeko gaitasun eza, bikoterik ez izatea, jokabide desbideratuaren kontrol gutxi izatea edota Hareren psikopatia-eskalako II.faktorearen profil psikopatikoa izatea¹⁰³.

¹⁰⁰ Martín N. eta Vozmediano L. (2014) Conducta de agresión sexual: Revisión de la literatura y propuesta de análisis mediante el modelo de triple riesgo delictivo; *International e-Journal of Criminal Science*; Art. 3, No. 8 (19.Or.)

¹⁰¹ Redondo, S. (2008) Individuos, sociedades y oportunidades en la explicación y prevención del delito: Modelo del Triple Riesgo Delictivo; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Art. 7, No. 6 (6.Or.)

¹⁰² Redondo, S. (2006) ¿Sirve el tratamiento para rehabilitar a los delincuentes sexuales?; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Artículo 6, No. 4 (4.Or.)

¹⁰³ Ídem

Aipatutako faktore hauekin lotuta, Santiago Redondok Arrisku Kriminal Hirukoitzaren eredua proposatu zuen. Bertan, hiru motatako arrisku desberdintzen dira, delitugintzan eragina izan dezaketenak¹⁰⁴.

Alde batetik, arrisku pertsonalak ditugu, zeinak pertsonaren ezaugarriak barneratuko dituen. Horien artean aurkitzen ditugu, esate baterako, oldarkortasuna, drogekiko mendekotasuna edota haserrea. Hala ere, lehen esan dugun bezala, ezaugarri zehatz batzuk edukitzeak ez ditu subjektuak zuzenean delitugile bilakatuko.

Bestalde, babes sozialaren atala dugu; bertan, sozializazio-prozesua oztopatzen edo atzeratzen duten elementuak azalduko dira. Adibidez, txirotasuna, familia gatazkak, hezkuntza maila baxua, lagun delitugileak izatea... Aurreko taldearekin esan bezala, gabezia ekonomiko, kultural eta sozialek ez du gizabanakoa delinkuentziara bultzatzen, baina ikerketen emaitzak erakutsi dutenez, horietako asko hondatutako auzoetatik datoz, gizarte-antolaketarik ez duten lekuetatik (Redondo; 2008) .

Bukatzeko, ingurumenak eskaintzen dituen aukerak aztertu behar dira. Esate baterako, delitu bat gauzatzeko aukerak egotea, hiriko diseinuarengatik, babes gabeko biktimak egoteagatik edota probokazio oldarkorregatik. Hau da, kaleko faktoreek delitua gauzatzeko erabakian parte hartzen dutenean. Izan ere, ingurumen-kriminologiari buruz egin diren azterlanek erakutsi dute, lotura zuzena dagoela delitu-aukera eta delinkuentziaren artean. Zeinak geroz eta aukera handiagoa izan, orduan eta delinkuentzia aukera handiagoa egongo den¹⁰⁵. Hau, ingurumen kriminologiaren arloarekin guztiz erlazionatuta egongo da, Brantingham eta Brantingham-en teoriak azaltzen diren heinean.

Berrerorketa tasan eragin ahal izateko, ezinbestekoa izango da elementu hauek guztiak kontuan edukitzea. Azken finean, delitugile bat aztertzen dugunean, ezin dugu soilik bere ezaugarri pertsonaletan zentratu, inguruan dituen pertsonak eta duen egoera, agian, kriminogeneoagoa izan daitekeelako. Berdina gertatzen da aukerekin; izan ere, delitua gauzatu nahi baina aukerarik ez duen pertsonak ezin izango du deliturik gauzatu, eta ondorioz, biktimarik sortu.

¹⁰⁴ Redondo S. (2017) *Evaluación y tratamiento de delincuentes: Jóvenes y Adultos*; Pirámide (44-45.Or.)

¹⁰⁵ Redondo, S. (2008) Individuos, sociedades y oportunidades en la explicación y prevención del delito: Modelo del Triple Riesgo Delictivo; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Art. 7, No. 6 (7.Or.)

6.4.-Espetxeko Tratamenduen Legedia

Tratamenduekin hasi aurretik, egokia litzateke honi buruz aurkitu daitekeen legedia aztertzea. Izan ere, espetxean ematen diren tratamenduez ari garen heinean, beharrezkoa izango da berme batzuk errespetatzea.

Hasteko, espetxearen funtzioa edo helburua zein izan behar duen hartu behar dugu kontuan. Izan ere, Espainiar Konstituzioko 25.Artikuluak¹⁰⁶ adierazten duenaren harira, askatasun eskubidea urratzen duten zigor eta segurtasun neurriek berreziketa eta birgizarteratze helburua izan behar dute beti. Ez hori bakarrik, izan ere, Monterok (2019) adierazten duen bezala, artikuluko horretan birgizarteratzea ez ezik, kondena betetzen ari diren presoaren aldeko oinarrizko eskubideen aitortza egiten da.

Hau kontuan izanik, espetxean hartzen diren erabakiak eta egiten diren ekintzak horretara bideratuak egon beharko dute. Hain zuzen ere, 190/1996 Errege Dekretuak, otsailaren 9koa, Espetxeen Erregelamendua onesten duenak, 110.Artikuluak honako hau adierazten du:

- Espetxe-administrazioak prestakuntza-programak diseinatu beharko ditu, barneratuen gaitasunak garatzeko, haien ezagutzak aberasteko, gaitasun teknikoak hobetzeko eta haien babeziak konpentsatzeko.
- Delitu-portaeran eragina izan dezaketen arazoei aurre egiteko programak eta teknika psikosozialak erabili beharko ditu.
- Barneratuak kanpoarekin dituen harremanak erraztuko ditu, eta ahal den heinean komunitatearen baliabideak erabiliko dira birgizarteratze lanetarako¹⁰⁷.

Aipatutako hori abiapuntutzat hartuz, hainbat elementu azpimarratu nahiko nituzke. Hasteko, espetxeek duten helburua nagusitu behar da. Izan ere, Konstituzioak eta aipatutako Espetxe Erregelamenduak adierazten duten bezala, xedea delitugileen birgizarteratzea izan behar du. Errehabilitazioaren uste horrek, gizatasun handiagoa

¹⁰⁶ Constitución española (BOE núm.311, de 29 de diciembre de 1978). 25.Art.

¹⁰⁷ Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario.

ematen die zigorrak aplikatzeko egiturei, ordainsari penal hutsean jasoko luketena baino (Blackburn 1994).

Hala ere, azken urte hauetan ikusi da askotan hori ez dela guztiz bermatzen. Esate baterako, politikariek delitugintzarekin lotuta duten erabakiak hartzen dituztenean, geroz eta zigorgarriagoak dira. Hau da, gizartean dagoen beldur eta estigmatizazio horri erreparatzen diote, eta horri erantzun azkar bat ematea erabakitzen dute; normalean delitugilearen kalterako izaten dena. Haurrak sexualki erasotu dituzten pertsonekin hori gertatzen da gehienetan. Aurrerago ikusiko dugun bezala, egindako inkestan islatzen denaren harira, gizarteak hauentzako zigor oso astunak eskatzen dituzte.

Hala eta guztiz ere, birgizarteratze lanak egiten direla argi dago. Berrerortze tasa ikusi baino ez dugu. Gainera, azken urteetan delitu sexualen inguruko ikerketa askori esker, garapen handia egon da delitugile sexualekin ematen diren esku-hartzeei dagokionez¹⁰⁸. Lan honetan zehar tratamendu horiek izan duten efikazia aztertzeke eta horretaz eztabaidatzeko aukera izango dugu.

Espetxeratuaren parte-hartzeari dagokionez, Espetxe Erregelamenduaren 112.Artikuluak dio, tratamenduetan hauen parte-hartzea sustatu beharko dela. Gainera, tratamenduaren helburua zein den adierazi beharko zaio, eta horiek lortzeko bitartekoak eta epeak zeintzuk diren azaldu ere. Baina, azken hitza espetxeratuak izango du; hau da, bere erabakia izan beharko du tratamenduan parte hartzea, borondatezkoa izango baita. Bere erabakiak ezingo du diziplina edo erregimen ondoriorik izan, ezta graduan atzera egin ere.

Delitugile sexualei zuzenduta dauden tratamenduen inguruko informazioa 116.4.Artikuluan arautzen da. Bertan adierazten denez, Espetxeetako Administrazioak berariazko tratamendu-programak egin ahal izango ditu sexu-askatasunaren aurkako delituengatik kondenatuak izan diren espetxeratuentzat. Bai alde zuzeneko diagnostikoa dutelako, edota ezartzea egokitzat jotzen den kasua bada. Jarraipen hori, beti ere, borondatezkoa izan beharko du.

¹⁰⁸ Valencia O. et. al. (2008) Nivel de reincidencia en agresores sexuales bajo tratamiento en programas de control de la agresión sexual; *Psicopatología Clínica Legal y Forense*, Vol. 8, (10.Or.)

Hau horrela izan behar badu ere, Zaballako espetxeko psikologoa denak beste zerbait adierazi zuen. Erasotzaile sexuak hirugarren gradua lortzeko zituzten ukanbeharren artean, haiei zuzendutako tratamendua betea egotea eskatzen baita. Zigorraren laurdena bete izanaren arrazoi objektiboez gain, sexu-erasoaren programa egina izatea eskatzen zaie irteera programatuekin hasi ahal izateko. Gainera, pertsona horiek nolabaiteko interesa eta jarrera-aldaketa erakutsi beharko dute. Hau da, programaren eragina nabarmena izan beharko du, hauen jarrera aldatzen ari dela egiaztatzeko.

Ez hori bakarrik, Zaballako espetxeko hainbat presok hirugarren gradua lortzen dutenean, neurriren batekin baldintzatzen dute. Hau da, kanpoan dauden denbora horretan elkarte batekin kontaktuan egon beharko dute, tratamendu moduko bat jarraitzeko. Alkoholarekin arazoak dituzten pertsonak alkoholiko anonimoetara; drogen mendekotasuna dutenek COTA elkartera, eta erasotzaile sexualen kasuan, Hitzune elkartera, adibidez. Honek tratamenduaren eraginkortasuna bermatzen du; izan ere, hirugarren graduari daudela euskarri falta nabaritzen badute, bertara jo dezakete laguntza eske.

Hirugarren graduaz edo erregimen irekiaz ari garenean, erdi-askatasunean bizitzeko erregimen motari buruz ari gara¹⁰⁹. Hau da, barneratuak eguna espetxetik kanpo igarotzeko aukera izango du, beti ere gauean lotara espetxera bueltatzen bada. Bestalde, asteburuetan irteteko baimenak ere aitortzen zaizkie.

Birgizarteratzea bultzatzen duen tresna bat izango da beraz. Pertsona bat espetxe batean preso denbora asko egon ostean lehen aldiz kalera irteten denean, izan dezakeen erreakzioa zaila izan daiteke. Gainera, asko sostengu gabe aurkitzen dira, egin duten delituak sortzen duen estigmatizazioa dela eta. Preso egotetik aske egotera igarotze horrek pertsonarengan eragin positibo zein negatiboak izan ditzake, bakoitzaren gaitasunen arabera. Hori dela eta, askatasun hori modu gradual batean ematea gomendatzen da. Preso egon denak pixkanaka errealitate horretara egokitu eta bere tokia egiteko aukera izan dezan.

¹⁰⁹ Montero E. (2019) La reeducación y la reinserción social en prisión: el tratamiento en el medio penitenciario español; *Revista de Estudios Socioeducativos*; No. 7, 231.Or.

Aipatutako guztia dela eta, 116.4.Artikulu horretan adierazten den tratamendurako beharrezkoa den borondatea manipulatua dagoela esan daiteke. Hau da, hau egin ezean hirugarren graduako onurak galduko dituztela jakinda, askok nahiz eta motibazio terapeutikorik ez izan, bertan parte hartuko dute. Alde batetik honek onurak ekarriko ditu, gizartean bizitzera bueltatzen denean, izango duen integrazioa eraginkorragoa izateko aukera gehiago izango dituelako, baina guzti honek duen zilegitasuna zalantzan jarri daiteke.

Legediarekin bukatzeko, 117.Artikuluaren inguruan hitz egin nahiko nuke. Izan ere, bertan adierazten denaren arabera, tratamenduko bigarren graduan sailkatuta dauden espetxeratuek, arriskugarritasun sozial txikia izan eta kondena urratzeko arriskurik izan ezean, kanpoko erakunde batera jo dezakete, aldizka, arreta espezializatu hori eskaintzen duen programa jasotzeko. Beti ere, programa hori bere tratamendu eta gizarteratzeko beharrezkoa bada. Irteera horiek, hala ere, ezingo dute 8 ordu baino gehiagoko iraupena izan, eta zaintzako epailearen baimena izan beharko dute.

Hitzune elkarteko langileak adierazi zuen bezala, gaur egungo gizartea hainbeste aldatu duen COVID-19-aren ondorioz, geroz eta pertsona gehiago dira, hirugarren graduan ez dauden arren haien elkartera gerturatzen direnak laguntza eske. Egoera dela eta, instituzioek espetxeak ahalik eta gehien hustea erabaki dute, leku gehiago edukitzeko helburuarekin. Hortaz, orain haien proiektuan bigarren graduan dauden pertsonak ere aurkitzen dituzte. Hala ere, gehienak hirugarren graduakoak dira; zigorraren azken unetan aurkitzen direnak.

6.5.-Programa Modular Orokorrak

Espetxetan delitugileei zuzendutako tratamendu zehatzak ez ezik, programa orokorrak ere badaude. Horien artean aurkitzen dira, esate baterako, errespetu moduluak eta hezkuntza-unitate terapeutikoak. Bertan, presoak sail horietan egotearekin soilik

tratamendu-programan parte hartzen ari direla esan daiteke¹¹⁰. Oraingoan lehenengo horietan zentratuko gara.

Monteroren (2019) hitzetan, errespetuzko moduluak lan-taldeen eraketan eta arau-sisteman oinarritzen dira, zeinak positiboen eta negatiboen sistema erabiliz, presoak ebaluatzen dituzten. Hauen helburua bertan dauden pertsonen artean bizikidetzeta eta errespetu gune bat lortzea da, behin bertatik irteten direnerako entrenamendu gisa. Dirudienez, bertan presoek zereginetan eta erabakietan parte-hartzeko betebeharra dute, egiten dituzten batzorde batzuen bidez.

Zaballako espetxean modulu hauek nola funtzionatzen duten ikusteko aukera izan nuen. Bertan, modu aske batean haiek nahi dutena egiteko aukera dute. Beti ere, aurrez finkatutako arau batzuetan oinarrituta. Bertakoek autokudeaketa osoarekin, modu eroso batean bizi daitezke, bizikidetzazko eta errespetuzko giroa sortzen baita. Bertan parte hartzea, beti ere, borondatezkoa izango da, modulu arrunt batera joateko aukera ere izango dutelako.

Hala ere, norbaitek bertan parte-hartuko nahi balu, ukanbehar batzuk bete beharko lituzke. Hasteko, moduluaren normaltasunari men egin beharko die, hainbat jardueratan parte hartu beharko dute, aldaketarako motibazioa erakutsi behar dute, eta bukatzeko, ordena eta garbinatasuna mantentzeko erantzukitzuna hartu beharko dute¹¹¹.

Espetxeko langileek bertan erabiltzen duten manualaren kopia bat eskaini zidaten, moduluaren funtzioa nolakoa zen hobeto ikusi ahal izateko. Bertan, harrera-batzordeari aipamen berezia egiten zaio. Izan ere, preso bat moduluan sartzen den unean, batzorde honetako kideek ongietorria egin beharko diete. Gainontzeko presoena lana izango da, beraz, bertako arauak zeintzuk diren berriei adieraztea. Bestalde, egonaldirako beharrezkoak izango diren tresnak ere eman beharko dzkio.

Garrantzia handia duen beste batzordea bizikidetzarena da. Hauek moduluan arau guztiak betetzen direla zaindu behar dute. Hortaz, norbaiten artean gatazkak daudela

¹¹⁰ Montero E. (2019) La reeducación y la reinserción social en prisión: el tratamiento en el medio penitenciario español; *Revista de Estudios Socioeducativos*; No. 7, (241.Or.)

¹¹¹ Arabako espetxe zentrua (2017) *Manual de Bienvenida: Editado por las Comisiones del Módulo de Respeto 4* (4.Or.)

ikusiz gero, bitartekotza lanak egin beharko dituzte presoen artean. Zentruan nengoela, batzar honetako buru izan zenarekin hitz egiteko aukera izan nuen. Berak adierazi zidanaren arabera, modulu horiek oso baliagarriak dira, bertan erosoago bizitzeko aukera ematen dizulako.

Hauez gain, jarduera batzordeak, garbiketa-taldeak, eta beste hainbat talde ere baditugu. Denek izan beharko dituzte bertan erantzukizunak, eta lanak banatu beharko dituzte. Gainera, denek jardueretan parte-hartzeko betebeharra izango dute. Guzti honek, azken batean, espetxean dauden bitartean lanpeturik egotea du helburu. Bertan igarotako denbora ondo erabilia egotea nahi da, ateratzen diren unean bizitza prosozialagoa eramaten jakin ahal izateko, adibidez.

6.5.1.-Adingabeen sexu delitugileen kasuan

Zaballako langileak aipatu zuenaren arabera, adingabeen erasotzaile sexualak espetxera iristen direnean, beste presoan antzera, 3 egun arteko osasun aldia igarotzen dute. Hau da, hasiera batean psikologo eta hezitzaileekin elkarrizketak egiten dituzte, bere egoera nolakoa den jakin ahal izateko. Horren ostean, zein modulutara joango den erabakitzen da.

Dirudenez, delitugile hauen ezaugarriak direla eta, errespetuzko modulora joan ohi dira. Izan ere, hauen jarrera oso baikorra izaten da, arauak ondo errespetatzen dituztelako. Gainera, ez da ohikoa hauek gainontzeko presoekin elkarbizitza txarra edukitzea. Moduluaren ukanbarrei dagokienez, egin behar dituzten ekintzetan modu aktibo eta parte-hartzailean aritzen direla adierazten du psikologoak, oso kolaboratzailea den jarrera erakusten baitute.

Kontuan izan behar dugu, haurren abusotzaile sexualen irudia oso estigmatizatua dagoen horietakoa dela. Hortaz, gizartean ez ezik, espetxeetan ere gainontzeko presoekin arazoak izateko joera zutela. Hala ere, errespetuzko modulu hauek ezarri zirenetik, hori murrizten joan dela adierazi zuen psikologoak. Denek gainontzeko presoekiko errespetuzko jarrera erakutsi behar bait dute bertan. Hori dela eta, bere esanetan, guztiz ohikoa den bizitza egiteko aukera dute.

Aipatutako guztia kontuan izanik, argi dago 2001ean Leongo espetxean ezarri zen¹¹² errespetuzko modulu hauen aplikazioa oso baliagarria dela. Gure helburua den birgizarteratze horretan onurak sortzeko gai den heinean. Gainera, delitugile sexualen kasuan, lehen zuten estigma hori nolabait murrizteko aukera ere eman du.

6.6.-Sexu Delitugileentzako Tratamendu Zehatzak

Redondoren esanetan (2017), delitugintza gizarteak eta botere publikoek duten arazo nagusien artean aurkitzen da. Gainera, askoren ustetan, delitugile sexualen berrerortzeko dagoen probabilitatea oso altua da. Baina, errealitateari erreparatzen badiogu, %20ak baino gutxiagok gauzatzen du berriro ere delitu sexual bat (Zara eta Farrington, 2016). Hala eta guztiz ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, gizarteak orokorrean duen ikuspegia edo iritzia errealitatearekin ez du bat egiten.

Erasotzaile sexuak gizartean duten harrera ikusita, espetxean tratamenduak aplikatzeko lehenetsunezko interesa duen delitu-taldetzat hartzen da (Echeburúa eta Redondo, 2010). Hauekin egiten diren tratamenduek balio, jarrera eta portaeretan aldaketak sortzea dute helburu. Haiengan eragin negatiboa izan duten eta egin dituzten delituekin lotu diren ezaugarriak konpondu nahi dira¹¹³.

Aurretik aipatu dugun bezala, haurrenganako desira sexuala sentitzen duten subjektuen artean, oso gutxi erabakitzen dute psikologo edo psikiatra batengana jotzea; izan ere, ez dituzte haien ekintzak negatibotzat hartzen, eta arazorik ez dutela kontsideratzen dute¹¹⁴. Haien ekintzak edo jarrera bere gertukoengandik edo gizartearengandik zalantzan jartzen denean soilik erabakitzen dute adituarengana joatea. Hori dela eta, orokorrean, tratamendua jasotzen duten pertsonen portzentajea oso baxua dela kontsideratu daiteke. Gehienak, eremu judizialarekin erlazioa izan dutenak dira

¹¹² Valderrama P. (2016) Los módulos de respeto en las cárceles, una revisión desde la educación social; *Revista de Educación Social*; No. 22; (23.Or.)

¹¹³ Martínez A. eta Redonde S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; Pag. 22

¹¹⁴ Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); “¿Qué es la pedofilia?”; Paidós, Barcelona (17.Or.)

(Seto, 2009), adibidez, espetxean egonda tratamendua gauzatu dutenak, honek eskaintzen dizkien onurak direla eta.

Hasiera batean delitugile sexuarekin erabiltzen ziren tratamenduak gorroto-terapiatan oinarritzen ziren. Teknika horiek gizartean gaitzesgarriak diren jokabideak murrizteko erabiltzen ziren¹¹⁵; esate baterako, homosexualitatea desagerrarazteko. Kasu honetan pazienteak estimulu baten eraginpean jartzen den bitartean, sententzio desatesinen bat sentiarazten zaio, asoziazioaren bitartez jokabide hori ukatu dezan. Horrez gain, beste hainbat metodo ere erabiltzen ziren, gaur egun zaharkituak gelditu direnak.

Aurreko tresna horiek guztiz eraginkorrak ez zirela ikusita, metodoari beste ikuspegi bat ematea erabaki zen. Portaera horiek murrizten saiatu beharrean, helduekin adostutako sexu-harremanetan beharrezkoak izango liratekeen trebetasunak indartzen hasi ziren¹¹⁶. Izan ere, delitugile sexualen artean dagoen arazoa jokabide pro-sozialen gabezia zela ikusi zuten. Hau da, haien nahiak modu zilegi batean lortzen erakutsi behar zaie.

Gaur egungo programek distorsio kognitiboen tratamendua ere barneratzen dute. Izan ere, Redondoren eta Garridoren (2008) esanetan, sexu-delitugileek inguruko zeinuak gaizki interpretatzeko joerak izaten dituzte. Hauek biktimei min egiten dietela ukatzeko, erasoan garrantzia gutxitzeko edota beste faktore batzuei errua botatzeko. Bestalde, berrerortzea saihesteko helburua ere barneratu dute. Behin tratamendu hori gauzatuta, berriro deliturik ez gauzatzea espero da.

Erasotzaile sexuarekin erabiltzen diren tratamenduak Canadian sortu ziren. Hauen sortzailea Marshall izan zen, eta bere lana nazioartean sexu-delitugileekin egiten diren esku-hartze gehienek jatorrizko erreferente bilakatu da¹¹⁷. Ordundik, ikusiko dugun bezala, hainbat terapia eta tratamendu desberdin sortu dira, eraginkortasun maila desberdinak lortu dituztenak.

¹¹⁵ Carrillo A. (2014) La aversión en la modificación conductual; Universidad Nacional Autónoma de México; (6.or.)

¹¹⁶ Redondo, S. eta Garrido V. (2008) Efficacy of a psychological treatment for sex offenders; *Psicothema*, Vol.20, No. 1, pp 4-9, Oviedo (4.Or.)

¹¹⁷ Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (12.Or.)

Orain arte lortu den informazioarekin ondorioztatu daiteke, pedofilia ezabatzea ia ezinezkoa izan daitekeela. Hau da, lehen esan bezala, orientazio sexual bat ezin da ezabatu, pertsona batek sentitzen duena baita. Hala ere, sexu-kitzikapena kontrolatzeko gaitasuna eta sexu-bulkada horiek murrizteko esku-hartzeak egokiak izan daitezke. Pedofiloari trebetasun sozial desberdinak erakutsiz gero, bere jokabidea aldatzeko aukera izango genuke. Horretarako, tratamendu psikologikoak oso baliagarriak direla dio Redondok (2017), arrisku kriminal hori murrizteko aukera ematen bait du¹¹⁸.

Ikerketa batek klinikoki diagnostikatutako hainbat pedofilo aztertu zituen, delituak gauzatu zituztenak. Harreman-trebetasuna, intimitatea eta autoestima jorrazten zituen tratamendua jaso ondoren, hauen bizi-ohiturak aldatzera iritsi zirela erakutsi zen¹¹⁹. Beraz, argi dago, hauen desirak edo gustuak aldatzeko ezintasuna egon daitekeen arren, hauen jokabidea aldatzeko aukera izango dugula egokiak diren tratamenduak erabiliz gero.

Delitugileekin egiten diren tratamenduak oso baliagarriak izan daitezke, hauen karrera kriminala bertan behera uzten eta bizitza sozial egokiagoa izaten lagundu dezaketelako. Garrido, Stangelan eta Redondok (2006) dioten bezala, karrera kriminalaz ari garenean, delitugile batek denbora-tarte jakin batean egindako delituen sekuentziaz ari gara. Hau da, delitu bat soilik gauzatu duten delitugileak daude, baita hamarnaka abusu gauzatu dituztenak¹²⁰.

Berrerortzearen inguruan aipatu behar da ere, karrera deliktiboa handitzen den heinean, subjektuak berriro ere delitu bat gauzatzeko arriskua handiagoa izango dela. Are gehiago subjektu hori gaztea bada (Echeburúa, 1998).

Kontuan izan behar dugu, karrera horretan arrisku faktoretzat hartu daitekeen elementu garrantzitsuenetako bat motibazioa izango dela. Hori dela eta, delituak saihesteko modu oso egokia izan daiteke ahal den heinean delinkuentziarako motibazio

¹¹⁸ Redondo S. (2017) *Evaluación y tratamiento de delincuentes: Jóvenes y Adultos*; Pirámide (30.Or.)

¹¹⁹ ¹¹⁹ Khan Z. (2018) An exploration into the unknown world of pedophilia; *The Sociological Eye* (43.Or.)

¹²⁰ Palmou A. (S.F.) Carrera delictiva: Criminología del Desarrollo Vital; *Revista, Pensamiento Penal* (2.Or.)

hori txikitzea¹²¹. Hau da, delitugile askok delitu horiek gauzatzeko aukerak bilatzen dituzte, edota ekintza posibleak nola jardun ditzaketen pentsatu. Guzti hau motibazio kriminalaren barruan aurkituko genuke. Hau murriztuz, esan bezala, aurrezaintza lan handiak egin daitezke.

Redondok (2017) esaten duen bezala, delituak gauzatzen dituzten pertsonen zuzendutako tratamenduak hauen portaera, pentsatzeko modua eta adierazpen emozionaletan eragin nahi du. Bizitzan aurre egiteko estrategia prosozialak erakutsi nahi dizkiete, etorkizuneko delituak ekiditeko asmoz. Azken finean, askotan delituak gauzatzen dituzten horiek, haien desirak edo nahiak beste modu batera lortu ezin dituztelako jarduten dute horrela.

6.6.1.-Terapia Kognitibo-Konduktualen Nagusitasuna

Ohiko tratamenduetan ez ezik, delitugileekin egiten diren tratamenduetan ere ikusi da eredu kognitibo-konduktualek eraginkortasun handia erakutsi dutela. Gainontzeko terapiekin alderatuz, emaitza hobekak lortu ditu, eta delitugintzaren berrerorketa gehien murriztu duena izan da gaur egun arte (Hanson et al. 2009). Lösel eta Schmucker-ek 2005ean egindako metaanaliak erakutsi zuen, beste ikupsegi psikosozialek baino eraginkortasuna handiagoa izaten dutela. Hau guztia dela eta, erasotzaile sexuarekin gehien erabiltzen diren tratamenduek terapia kognitibo-konduktuala dute oinarritzat (Martinez eta Redondo, 2016).

Terapia mota hauek subjektuek dituzten jokabide eta distortsio kognitiboak desagerrarazten, edo aldatzen saiatzen dira. Teoria hauek erakusten dutena da, nolabaiteko interdependentzia bat dagoela pentsamenduen, emozioen eta jarreraren artean (Aaron Beck, 2000). Hortaz, jokabidea aldatu nahi izanez gero, oso baliagarria izan daiteke lehenik eta behin, pentsamenduan eta emozioen kontrolean eragitea. Izan ere, Ellis-ek (1962) baieztatu zuen bezala, subjektuek bere pentsamendu irrazionalak beste pentsamendu egokiago batzuentzatik ordezkari ditzateke, bere zailtasun emozional eta jokabide-zailtasunak konponduz.

¹²¹ Redondo S. (2017) *Evaluación y tratamiento de delincuentes: Jóvenes y Adultos*; Pirámide (31.Or.)

Hauen helburua, esan bezala, delitugileei tresna desberdinez baliatzea da, haien egunerokotasunean izan ditzaketen arrisku faktoreak detektatu eta hauek lantzeko. Patologia eta portaera arazo askoren jatorria, gaitasun kognitiboan gabezia eta adierazpen emozionalean dagoela adierazi dute ikerlariek¹²². Horregatik, delitua gauzatzeko eraman diren portaerak desagerrarazteko, aspektu horiek entrenatzea ezinbestekoa izango da. Hau kontrolatzen irakatsiko baitie.

Bestalde, tratamendua erasotzaile sexualei zuzendua dagoenez, aktibazio sexuala estimulu egokietan garatzen irakatsi behar zaie. Ez hori bakarrik, izan ere, hezkuntza sexual egokia barneratzen saiatu behar dira, eta hala badagokio, disfuntzio sexualak tratatzera bideratu behar da¹²³.

Terapia mota honen bitartez teknika desberdinak sortu dira, abusotzaile sexualek izan ditzaketen jarrera parafiliko horiek desagerrazi eta egokiak diren jokabideak sortzeko. Ellis-en hitzetan, pertsonak haien pentsamendu irrazionalak alde batera utzi eta errealtaterara gehiago egokitzen diren pentsamenduak garatzeko gai izan behar dute. Beti ere, modu egoki batean egiten bada. Hau da, terapia batean dauden unean, dituzten kognizioak azaleratu beharko dituzte, gainontzekoek lagundu diezaioten guzti hori modu errealistago batera ikusten¹²⁴.

6.6.2.-Espainiar Estatuko Espetxeetako Tratamenduak (PCAS eta PCAS-R)

6.6.2.1.-PCAS

Espainian lehen aldiz erasotzaile sexualei zuzendutako espetxeetako tratamendua 1996.urtean egin zen Kataluniako espetxe batean. Hain zuzen ere, Garrido eta Beneyto adituen eskutik. Hainbat ikerketa egin ostean, espainiar kontestura egokitzen den PCAS izeneko programa eratzerara heldu ziren: Sexu Erasoa Kontrolatzeko programa. Gaur egun, espainiar espetxe gehienetan ezartzen den programa kognitibo-konduktuala da hau; izan

¹²² Redondo S. (2017) *Evaluación y tratamiento de delincuentes: Jóvenes y Adultos*; Pirámide (58.Or.)

¹²³ Soria, M.A.; Hernández J.A. (1994) *El agresor sexual y la víctima*; Marcombo, Barcelona

¹²⁴ *Ibidem* (63.Or.)

ere, helduak erasotzen dituzten delitugilez gain, adingabeak abusatzen dituzten subjektuentzako ere zuzenduta dago.

Redondok (2006) dioenaren arabera, dituen helburuen artean aurkitzen dira, esate baterako: delitu-jarduerei buruzko azterketa errealistagoa egitea, distortsio kognitiboak eta justifikazioak murriztuz; harreman eta komunikazio pertsonaletarako gaitasunak hobetzea eta gizarteratzeko aukerak hobetzea. Guzti hau oinarrizko helburu baterako izango da, berrerortzeko arrisku hori ahalik eta gehien murriztu, etorkizunean gerta litezkeen delituak ekiditeko asmoz (Garrido eta Beneyto, 1996).

Hori lortzeko, 10-15 preso arteko taldeak egingo dira, zeinak ukanbehar batzuk bete beharko dituzte. Besteak beste, baldintzapeko askatasuna 3-4 urte bitartean lortzeko aukera izatea; delituaren aitorten partziala egitea, iraganeko delitu jokabideetatik aldentzearekin batera eta nolabaiteko motibazioa izatea, saioetan aktiboti parte hartuz (Plaschek, Anstiss eta Wilson, 2010; Serin eta Lloyd, 2009). Talde horietan haurren eta helduen erasotzaile sexualak egongo dira elkartuta¹²⁵. Honek, aurrerago ikusiko dugun bezala, hainbat eztabaida ekarriko ditu. Batzuek bi delitugile mota hauek bananduz emaitza hobeak lortuko lirakeela uste bait dute.

Hauekin lanean aritu diren taldeak diziplina anitzekoa izango da. Hauen artean psikologoak, kriminologoak, hezitzaileak eta gizarte langileak aurkitu bait daitezke. Egiten dituzten saioetan, modulo desberdinak jorratzen dituzte. Barne-ministerioak (2006) hauek nagusitzen ditu: historia pertsonalen analisia; distortsio kognitiboak; kontzientzia emozionala; defentsa mekanismoak edo aitzakiak; biktimarekiko enpatia; delituan berrerortzearen prebentzioa; heziketa sexuala... Guzti hauek lantzea aurretik aipatutako helburu horiek lortzeko beharrezkotzat hartu zituzten Garrido eta Beneytok tratamendu hau garatu zutenean.

6.6.2.2.-PCAS-R

Garrido eta Beneytok sortutako tratamendua oinarriztat harturik, aurrerantzean adaptazio desberdinak eginez, PCAS-R tratamendura heldu ziren. Espetxeetako

¹²⁵ Martínez A. eta Redonde S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; (23.Or.)

psikologo talde batek egindako berrikuspena izan zen. Bertan, beste programaren esperientzia klinikoak oinarritzat harturik, egokiak iruditzen zitzaizkien aldaketak egitea erabaki zuten.¹²⁶

Herreroren (2007) esanetan, aurreko tratamenduaren oinarria berdina badu ere, hainbat aspektutan aldaketak aurkitzen ditugu. Hasteko, ebaluazio metodoa aldatzen da. Izan ere, PCAS programak eskala konkretu batzuk erabiltzen zituen, eta PCAS-R-ren ebaluazioa egitea Bartzelonako Unibertsitateko aditu talde bati eskatu zaio. Hauek sortutako tresnaren bitartez, behin tratamendua bukatuta, izan duten aldaketa terapeutikoa aztertzeke aukera izango dute. Izan ere, ordura arte tratamenduaren eraginkortasuna aztertzeke erabiltzen zen neurgailu bakarra berrerorketa zen. Ondorioz, tratamenduak eskaintzen zituen gainontzeke onura guztiak alde batera gelditzen ziren. Kasu honetan, beste aspektu batzuk aztertzea interesgarria izan zitekeela pentsatu zuten.

Bestalde, pertsonen historio autobiografikoei garrantzia berezia ematea erabaki zuten¹²⁷. Bertan presoek familia, gizarte, sexu eta delituen historia aztertzen da. Parte-hartzaileek haien bizipenak kontatzen dituztenean, bertan dauden adituek informazioa jaso dezakete, haren biografietan dauden arrisku-faktoreak biltzera iritsiz. Hauek hobeto ulertzeke eta jorratu beharra dituzten aspektuak zeintzuk diren jakiteke oso baliagarria izan daiteke.

Garrantzia handia izango duen beste modulo bat distortsio kognitiboetan ezarriko du fokua. Distortsio hauek abusuzko sexu-portaera azaltzen, justifikatzen edo minimizatzen duten baieztapenak izango dira. Nolabait haien ekintzen alde negatiboa ezkutatu nahiko balute bezala. Tratamendu honetan pentsamendu horiek bi motatan banatzen dituzte: defentsa mekanismoak eta distortsio kognitiboak. Hauek bereizten ikasi behar dute delitugileek, defentsa mekanismoak delitua ukatzeko moduak soilik baitira, eta hortaz, tratamendu desberdin bat behar dute¹²⁸.

¹²⁶ Herrero O. (2007) El tratamiento de los agresores sexuales en prisión: promesas y dificultades de una intervención necesaria; *Anuario de Psicología Jurídica*; Vol 17; (45.Or.)

¹²⁷ *Ibidem* (47.Or.)

¹²⁸ *Ibidem* (50.Or.)

Tratamendu honetan beste hainbat aspektu garatzen dira modulu desberdinetan. Horieta batzuk izango dira, biktimarekiko enpatia eta garapen emozionala. Baina, kontuan izan behar dugu, lantzen diren elementu guztiak helburu bateratu bat lortzera zuzenduta daudela: berriro deliturik ez gauzatzea¹²⁹. Delitugileari berrerortzeko arriskua ekar diezaieketen barneko eta kanpoko estimuluak identifikatzen irakasten zaie. Errealitateko egoera batean aurkituz gero, delitua ez den modu batera erantzuteko.

Oso interesgarria izan daiteke aldaketa terapeutikoa neurtzeko erabiltzen den ebaluaketa adieraztea. Izan ere, tratamenduen helburu nagusia delitugile horiek berriro ere deliturik ez gauzatzea bada ere, ez dugu soilik horretan oinarritu behar. Bertan aldagai asko daude aldatu nahi direnak, pertsonaren aspektu asko, eta baliteke horiek aldatzera iristea, delituan islada ikusten ez den arren.

Bartzelonako Unibertsitateak egindako ebaluaketari sexu-erasotzaileen ebaluazio psikologikoaren eskala izena jartzea erabaki zuten; EPAS siglarekin ezaguna dena¹³⁰. Bertan hamar aldagai ikertzea erabaki zuten, bakoitzak aurretik sortutako eskala izango zuena: asertibitatea, isolamendua, autoestimu soziala, antsietatea egoera sexual normalizatuen aurrean, distortsio kognitiboak, inpultsibotasuna, agresibitatea, aldaketa terapeutikoa, alkoholismoa eta enpatia.

Ondoren ikusiko dugun bezala, lortutako emaitzak oso interesgarriak izan ziren. Gainera, helduen eta adingabeen erasotzaile sexualen artean bereizketa egitea erabaki zuten. Bi talde hauek ezaugarri desberdinak dituzten heinean, tratamenduak ere desberdin eragingo zuelako haiengan.

6.6.3.-Gasteizko Zaballa Espetxeko Tratamendu Bereiztua

Zaballa espetxe zentroko psikologoari beraiek bertan ezartzen duten tratamenduaz galdetzea erabaki nuen. Modu zuzen batean Euskal Herrian erabiltzen diren metodoen berri izateko. Berak dioenez, idazkaritza nagusiko sexu-erasotzaileen programa erabiltzen

¹²⁹ Herrero O. (2007) El tratamiento de los agresores sexuales en prisión: promesas y dificultades de una intervención necesaria; *Anuario de Psicología Jurídica*; Vol 17 (51.Or.)

¹³⁰ Martínez A. eta Redonde S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; (24.Or.)

da, Espainiako espetxe gehienetan erabiltzen dena: PCAS. Baina, behar diren kasuetan tratamendu hori haien egoera zehatzetara egokitu ohi dituzte.

Aurretik esan dudan bezala, espetxe gehienetan helduen eta adingabeen erasotzaile sexualak batera tratatzen dira. Hau da, ez da inolako bereizketarik egiten. Psikologoaren aburuz, delitugile hauen artean desberdintasunak dauden heinean, beharrezkoa izan beharko luke hauek bereiztea. Eraginkorrakoak eta erosoagoak izan daitezkeela aurreikusten duelako. Guzti hau tratamendu bateratu bat egiten ari zela ondorioztatu zuen.

Bertan 15 presok hartu zuten parte, batzuk haurrak abusatu zituzten, eta beste batzuk emakumeak. Tratamenduaren lehen fasetan arazorik ez zegoela aitortzen duen arren, une batean bereizketa egitera derrigortua ikusi zen. Izan ere, aitoren emozionalaren lehen fasean arazorik aurkitu ez zuten arren, bigarrean, istorio pertsonalekin hasten dira.

Bi delitugile mota hauen delitua askatasun sexualaren aurkakoa izan bada ere, batak ez ditu bestearen ekintzak errespetatzen. Hau da, helduen erasotzaile sexual batek haurrak abusatu dituen pertsona ez du ulertuko, guztiz desberdina den ekintzatzat hartzen baitu. Esan daiteke, erasotzaile sexualen artean ere, pederasten irudia estigmatizatua dagoela. Hori dela eta, zaila izan daiteke bi talde hauentzako hauen historia pertsonala eta deliktiboa besteen aurrean azaltzea. Horregatik, elkarrizketatuak eta bere lankideek bi talde egitea erabaki zuten, non batzuen terapia goizean egiten zen, eta besteena arratsaldean.

Ordudik, tratamenduaren hasieratik helduen eta adingabeen erasotzaileen taldeak desberdintzen dituzte, beste espetxe askotan ez bezala. Baina, onura terapeutikoak ez ezik, beste arlo batzuetan kalteak ere ekarri ditu. Izan ere, dituzten baliabide mugatuak direla eta, soilik talde bati bideratutako tratamendua gauzatu dezakete urtero. Hortaz, berak adierazi duenez, preso batzuk urte bat egon daitezke espetxean inongo tratamendurik jaso gabe.

Monterok (2019) adierazten duen bezala, arazo hau orokorrean tratamendu guztiekin gertatzen dena da. Izan ere, profesionalek ez dute behar adina bitarteko tratamendu-programak ezartzeko. Tratamenduak pertsonalizatuak diren heinean, preso

bakoitza modu indibidualizatuan aztertu behar da. Baina, horretarako aditu nahikoak ez daudela ondorioztatu da azken urteetan.

Espainiako espetxeetan dauden langileen arteko banaketari erreparatuz gero, oso nabarmena da zein kategoria gailentzen den. Izan ere, zaintza eta segurtasun lanetan aritzen diren pertsonak besteak baino gehiago dira. Gonzalez Sanchezek eratu zuen taula honetan, datuak modu argiagoan ikusi daitezke, non espainiar administrazioaren eta Kataluniako administrazioaren menpe dauden espetxeen datuak agertzen diren:

1.Taula: *Espainiako espetxeetako langileen osaera. Elaborazioa: González Sánchez (2012)*

	Zuzen -dari	Zaintza	Osasun Langile	Psikolo -go	Hezitzaile	Tailerra	Besteak	Guztira
Espainia	357 % 1.72	15652 % 71.32	961 % 4.38	1376 % 6.27	1159 % 5.28	448 % 2.04	1993 % 9.08	21946 % 100
Katalunia	59 % 1.19	3192 % 64.51	265 % 5.36	122 % 2.47	732 % 14.79	128 % 2.59	450 % 9.09	4948 % 100
Guztira	416 % 1.55	18844 % 70.07	1226 % 4.56	1498 % 5.57	1891 % 7.03	576 % 2.14	2443 % 9.08	26894 (% 100)

Iturria: González Sánchez (2012)

Ikusi daitekeenez, espainiar estatuko langile guztien %70a inguru zaintza lanetan aritzen diren pertsonak osatzen dute. Gainera, bergizarteratzera bideratutako jarduerak ahulagoak direla ikusi daiteke. Non hezkuntza jarduerak zuzentzeko dauden adituak, tailerretan daudenak eta tratamenduetarako beharrezkoak diren psikologoak gutxi diren. Honek nolabait agerian uzten du espetxeetan lehenesten den funtzioa. Bigarren plano batean utziz berreziketari garrantzitsuak diren arloak.

Testuinguru juridikoari erreparatuta, hau kaltegarria izan daiteke hirugarren gradua lortzeko edota beste baimen bat lortzeko. Zaintza epaitegiek honen berri duten arren, presoek baimenak ukatzen diozkiote, espetxeak berak ere eskaini ezin dioten programa egin ez dutelako.

Hemen presoen eskubideen aurkako jarduera bat aurkituko genuke. Izan ere, espetxeko onurak lortzeko beharrezkoak diren ukanbeharrak ez dituzte betetzen haien esku ez dagoen zerbaitengatik. Kontuan izanik guzti honek birgizarteratzean izan

dezakeen eragina, beharrezkoa iruditzen zait baliabideak handitzea eta aukera gehiago eskaintzea.

Birgizarteratzeak bi eskakizun ditu; alde batetik, zigorren iraupenaren proportzionaltasuna dugu, eta bestetik honen betearazpenean zehar, pertsonak kanpoko munduarekin duen harremanari eutsi beharra¹³¹. Bigarren alderdi hori erantzuteko daude espetxe baimenak, hirugarren gradua edota baldintzapeko askatasuna.

Laburbilduz, erasotzaile sexualek haien tratamendua jasotzeko ezintasuna badute, hirugarren gradua lortzeko zailtasunak izango dituzte, eta ondorioz, birgizarteratzera bideratutako elementuaren galera. Askotan errepikatu den bezala, zigorra ez ezik, espetxeek berreziketa eta birgizarteratzea ere bermatu behar dute, presoek eskubideen artean aurkitu dezakegulako, batik bat.

Bertako tratamenduko eraginkortasunari dagokionez, adierazi du oraindik ez direla beharrezko ebaluaketak egin. Hau da, ez da ikerketarik egin tratamenduak izan dituen efektuak adierazteko baliagarriak izan daitezkeenak. Hala ere, maila subjektibo batean, erabilitako programa oso terapeutikoa izan dela alegatzen du. Delitugintzan ez ezik, taldeen maila pertsonalean zein ingurunean aldaketa nabariak ikusi bait dituzte. Azkenean gehienak egin dutenaren konsziente izaten bukatzen dute, ia dena planteatzera iristen dira.

Hala eta guztiz ere, metaanalisek adierazi dutenaren arabera, pedofiloek biktimarengan enpatia sentitzera iristea edo bere ekintzen erantzukizuna hartzea ez dira berrerortzearen murriztearen iragarle izango¹³².

Berrerortzeari dagokionez, ez dute inolako jarraipenik egin, baina tratamenduan parte hartu duen inor ez da espetxe horretara bueltatu. Hala ere, zifra beltza kontuan hartu beharrezkoa dela aipatzen du, ez dagoelako aukerarik ezkutuan gelditzen diren delitu guzti horien berri edukitzeko.

¹³¹ Cid Moline J. (1998) Derecho a la reinserción social: Consideraciones a propósito de la reciente jurisprudencia constitucional en materia de permisos; *Revista de Estudios Socioeducativos*. (39.Or.)

¹³² Balbuena F. (2014) Cartografiando la pedofilia: eficacia de los tratamientos y estrategias futuras; *Apuntes de Psicología*, Vol. 32, No. 3 (247.Or.)

Bukatzeko, hemen ezartzen den tratamenduaren alde positiboa zein den galdetzean, haurtzaroko istorio pertsonalak goraiatu zituen. Izan ere, une horretan ikuskatzeko gaitasun egokia adieraztera iristen dira. Askotan horiek izaten dira haien jarreraren inflexio puntuak.

7.-TRATAMENDUEN ERAGINKORTASUNA

Delitu mota honen larritasuna dela eta, ezinbestekoa da tratamendua ezarri ondoren ebaluaketa bat egitea¹³³. Azken batean, tratamenduak bukatzen diren unetik aurrera presoak ziurrenik ez du laguntza terapeutiko gehiago izango, eta honek beregan izan duen efektua neurtu behar da. Gainera, tratamenduen eraginkortasuna egokia izan daitekeen arren, agian hobetzeko aspektuak egon daitezke, elementu berriak inplantatuz, ezabatuz edota daudenak aldatuz.

Egin diren berrikuspen batzuk delitugileekin egiten diren tratamenduak berrerortze-arriskua murrizten dutela adierazi dute. Esan genezake, orokorrean lortu diren emaitzak aldekoak izan direla. Orain arte egin diren azterketak kontuan hartuz, erasotzaile sexualentzako zuzenduta dauden tratamenduak emaitza onuragarriak lortu dituela ikusi da¹³⁴. Hala ere, beste autore batzuek adierazi dute dauzkagun frogak edo datuak ez direla nahikoak ondorio horretara iritsi ahal izateko¹³⁵.

Kontuan izan behar dugu, esku-hartze guztiek ez dutela eraginkortasun berdina izango delitugileengan. Egin diren tratamendu guztien artean, guztiek ez baitituzte emaitza onuragarriak jaso. Dirudienez, berrerortzea murrizteko aukera gehien duten esku-hartzeek arrisku handieneko delitugileak inplikatzeko dituzten horiek izango dira (Andreuw eta Bonta, 2006; Andrews eta Dowden, 2006; Landenberger eta Lipsey, 2005; D.B. Wilson et al., 2005).

Hasteko, aurretik esan bezala, tratamenduak borondatezkoak izan behar dute, subjektuak berak erabaki behar duelako bertan parte hartzea. Honekin lotuta pertsona horren motibazioa dugu. Prochaska eta DiClemente adituen arabera, tratamenduak eskaintzen duen aldaketa hori bideragarria izan ahal izateko, motibazioa ezinbestekoa

¹³³ Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (18.Or.)

¹³⁴ Marshall, W. L., & Marshall, L. E. (2014). Psychological Treatment of Sex Offenders. *Psychiatric Clinics of North America*, 37(2), 163–171.

¹³⁵ Hanson R.K. et al. (2009) A meta-analysis of the effectiveness of treatment for sexual offenders: risk, need, and responsivity; *Public Safety Canada* (1.Or.)

izango da¹³⁶. Bestela, oso zaila da espero diren emaitza horiek lortzea. Kasu honetan, presoak egin duenaren kontzientzia izan beharko du, eta hori aldatzeko nahia.

Delitugile sexualen artean, beste delitugile batzuen antzera, egin dituzten ekintzak ukatzeko joera dago. Hau da, justifikazioak edo aitzakiak bilatzen saiatzen dira, egiten dutena gaizki ez dagoela adierazteko. Hortaz, ez dira besteengandik desberdintzen, arazorik ez dutela alegatzen dute gehienek. Tratamenduaren eginbeharretako bat izango da ikuspegi hori aldatu eta delitugileari egin duena ondo ez dagoela ikustaraztea¹³⁷. Hortaz, askotan psikologoek, tratamenduko helburutzat hartzea erabakitzen dute.

Beraz, esan dezakegu, nahiz eta erasotzaile sexuak alde aurreko jokabidea aldatzeko benetako nahia agertzea oso baliagarria izan, ohikoena izango da motibazio hori guztiz zintzoa ez izatea (Polaschek et al., 2010; Redondo eta Martínez, 2011; Serin eta Lloyd, 2009). Are gehiago, tratamenduan parte hartzeak espetxean onurak ekarriko dizkiela jakinda, askok horretarako soilik parte hartuko dute, eta ez benetako aldatzeko nahia dutelako.

Aipatutako honek, nolabait terapien eraginkortasunean eragina izan dezake. Bertan parte-hartzen ari diren pertsonen inplikazioa eta interesa beharrezkoa izango baita emaitza onak lortzeko. Hala ere, ebidentzia zientifikoek azaldu dutenez, portaerarekin lotuta dauden terapien sexu-jokabidearen arrisku globala murrizteko gai izan dira¹³⁸.

Esan bezala, ez dago erabateko adostasunik erasotzaile sexualen tratamenduen eraginkortasunaren inguruan. Hala ere, orain ikusiko dugun bezala, askok delituen berrerortzearen tasa txikitzea lortu dute.

Tratamenduen eraginkortasuna azaltzeko, hainbat adituek egindako ebaluaketatan lortutako emaitzak adieraziko ditut. Ikusiko dugun bezala, tratamendu desberdinak erabiltzeaz gain, horretarako erabili den lagina desberdina izango da. Guzti hau argiago ikusteko, taula eratzea izango da egokiena.

¹³⁶ Redondo, S. (2006) ¿Sirve el tratamiento para rehabilitar a los delincuentes sexuales; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Artículo 6, No. 4 (7.Or.)

¹³⁷ Martínez A. eta Redondo S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; (23.Or.)

¹³⁸ Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia

2.Taula: *Delitugile sexualekin egindako espetxe-tratamendu ezberdinen eraginkortasuna. Elaborazioa: nik neuk egina*

ADITUAK	LAGINA	TRATAMENDUKOEN BERRERORTZEA	KONTROL -TALDEAREN BERRERORTZEA
Losel eta Schmucker (2005-2008) Metaanalisia	80 Ikerlan	% 11.1	% 17.5
Hanson eta Morton- Bourgon (2009) Metaanalisia	23 Ikerlan	% 10.9	% 19.2
Valencia, Andre, Minguez eta Labrador (2008)	22 Tratamenduan 21 Kontrol-taldean	%4.5 (1)	% 13 (3)
Garrido eta Beneyto (2002)	49 Tratamenduan 71 Kontrol-taldean	%4.1	% 18.2
Reitzel eta Carbonell (2006) Metaanalisia	9 Ikerlan	%7.37	% 18.93

Iturria: Martínez A. eta Redondo S. (2016); Redondo eta Mangot (2017)

Taula honek orain arte egin diren erasotzaile sexualen tratamendu batzuen eraginkortasuna aztertzen duten ikerketen emaitzak azaltzen ditu. Ikusi dezakegunez, lortu diren emaitzak oso positiboak izan dira. Izan ere, guztiek delituen berrerortzearen gutxitzea ematea lortu dute. Hau da, tratamenduan parte hartu duten erasotzaile sexualek berrerortze tasa baxuagoa erakusten dute. Izan ere, besteekin alderatuz, tasa hori ia erdira jaisten dela ondorioztatu dezakegu taulan aurkitzen ditugun datuan aztertuz. Kontuan izan behar dugu berrerortze hori delitu sexualen ingurukoa dela. Hau da, agian pertsona horiek beste tipologia bateko delitu bat gauzatu dute, baina ez da askatasun sexualaren aurkako delitua izan. Beraz, hemendik ondorioztatu dezakegu, tratamendua eraginkorra izan daitekeela delitu sexualak murrizteko.

Berrerortze tasak alderatuz gero, azaltzen dituzten desberdintasunak esanguratsuak direla esan behar da¹³⁹. Hau da, argi gelditzen da tratamenduak nolabaiteko eragina izan duela subjektuengan, emaitzetako desberdintasunetan oinarrituz. Hala eta guztiz ere, ikusten dugu badaudela subjektu batzuk delituak gauzatzen jarraitzea erabakitzen dutenak. Hau da, tratamenduaren eraginkortasunak ez du subjektu guztiengan eragin berdina izango. Delitugile bakoitza desberdina da, bizipen desberdinak ditu, baita ezaugarri desberdinak ere. Hortaz, guztientzat berdina den tratamendua ezarriz gero, zaila da guztiengan efektu berdina sortzea.

Bestalde, lehen aipatutako EPAS ebaluaketari dagokionez, emaitzak faboragarriak izan dira. Esan bezala, helduen eta adingabeen erasotzaileak bereiztea erabaki da, dituzten beharren desberdintasuna dela eta. Programak berak adierazten duenez, puntuazio globalak subjektu bakoitzaren posizioa islatuko du, ebaluatua izan den aldagai terapeutiko bakoitzean. Neurketa hori tratamenduaren aurretik eta ondoren egin behar zen.

Adingabeen erasotzaileen kasuan, hauen puntuazioa 0-tik 378 puntu bitartekoa den bitartean, helduen erasotzaileen kasuan puntuazio hori 384 arte igoko da. Hala eta guztiz ere, zuzenketa errazagoa izateko, puntuaketa hori 0-100 puntu artekoa izatea erabaki zen. Non aldagai bakoitza 0-10 eskala bateko puntuaketa jaso behar zuen¹⁴⁰. Tratamenduaren ondorengo puntuazioa aurrekoa baino altuagoa izanez gero, tratamenduak eragin positiboa izan duela ondorioztatu beharko da, zeinak delituari uko egingo diolaren iragarle izan daitekeen.

Helduen erasotzaileen kasuan lagina 117 delitugileena izan zen. Ezarritako tratamendua, espainiar estatuan erabiltzen den PCAS tratamendua zen. Emaitzak erakutsi zutenez, bi emaitzak alderatuz, eragin positibo esanguratsua izan zuela esan dezakegu. Izan ere, hasieran 75.96 puntu lortu eta tratamenduaren ostean 81.14ko puntuazioa lortu zuten. Beraz, eraginkorra izan zela esan dezakegu.

¹³⁹ Valencia O. et. al. (2008) Nivel de reincidencia en agresores sexuales bajo tratamiento en programas de control de la agresión sexual; *Psicopatología Clínica Legal y Forense*, Vol. 8, (15.Or.)

¹⁴⁰ Martínez A. eta Redondo S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; (25.Or.)

Bestalde, adingabeen erasotzaile sexualek antzeko emaitzak lortu zituzten. Aipatu behar da hauen lagina txikiagoa zela, 71 erasotzaile bait zeuden. Hasieran 76.71 puntu lortu zituzten, tratamenduaren ostean, aldiz, 81.26. Beraz, aurrekoarekin bezala, atera daitekeen ondorioa, tratamendua eraginkorra izan dela da. Hala ere, aipatu behar da, aldaketa terapeutikoa, distortsio kognitiboak, egoera sexualen aurreko antsietatea eta enpatiak ez zutela hobekuntza esanguratsurik erakutsi¹⁴¹.

Aipatutako guztia kontuan izanik, ondorioztatu daiteke tratamenduak eraginkorrak izan daitezkeela delitugile sexualen berrerortzean. Hau da, tratamendua jasotzen duten pertsonen besteek baino aukera gutxiago izango dituzte delitu sexual bat berriro ere gauzatzeko. Ez hori bakarrik, izan ere, aldaketa terapeutiko handiak sortzen ditu honek. Bai helduen erasotzaile sexuak, baita adingabeenak ere, tratamenduan lantzen diren aldagaietan aldaketa positiboak izan ditzaketelako.

Honek, dakigun bezala pertsona hauen birgizarteratzean eragin handia izan dezake; ez soilik berrerortzean. Helburu nagusia berriro deliturik ez gauzatzea bada ere, oso garrantzitsua izango da pertsona hauek gizarteak integratzeko baliabide horiek ahalik eta gehien trebatzea. Geroago ikusiko dugun bezala, ez garelako soilik delitu berriak ekiditean oinarritu.

Azterketa honetan zehar ikusi dugun bezala, berriro delituak gauzatzen dituztenez gain, badaude tratamenduetan parte hartu ez eta berrerortzen ez dutenak. Hau da, delitugile askok ez dutela berriro ere deliturik gauzatzen. Hauek, taulan ikusi dugun bezala, delitugile sexualen %80 inguru izango dira. Erasotzaile askok, delitua gauzatzen dutenean, egoeran aukera izan dutelako izan da. Hau da, egoera zehatz batean eman den ekintza izan da, eta baliteke berriro ere ez errepikatzea. Gainera, delitugileak une horretan zuen motibazioa zein den ere kontuan izan behar dugu. Ez dugu ahaztu behar, erasotzaileen %80a inguruk ez duela deliturik berriro ere gauzatzen, tratamendurik izan ez duten arren.

Ikusi ditugun emaitzak denbora tarte jakin batean aztertuak izan dira. Hau da, ebaluaketa batzuek 4 urteko jarraipena izaten dute, behin tratamendua bukatuta. Beste batzuek, aldiz, laburragoak edo luzeagoak izan dira. Hortaz, hortik aurrera ematen diren


¹⁴¹ Martínez A. eta Redondo S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; (26.Or.)

berrerortzeak ez dira kontuan hartzen. Aditu askok adierazten dutenaren arabera, berrerortzeko arrisku handiena espetxetik irten eta lehenengo urteetan eman ohi da. Beraz, printzipioz, denborak aurrera joan ahala delitu horien kantitatea ez luke handitzen joan beharko.

Redondo eta Mangot (2017) honetaz jabetu, eta epe luzeagoa barneratzen duen ebaluaketa bat egitea erabaki zuten. Horretarako, 1996 eta 1999 urteen artean PCAS tratamendua jaso zuten delitugile sexualen jarraipena egin zuten. Beharrezko neurketa berriak tratamendua bukatu eta 18 urteko epean egin zituzten.

Emaitzei dagokienez, kontrol taldearen eta tratamendu taldearen artean desberdintasun nabariak ikusi dira. Delitugintza sexuala aztertuz, kontrol taldeak %21.62ak berrerortzea izan du; aldiz, tratamendua jaso dutenen artean soilik %6.12ak gauzatu du berriro ere delitu sexual bat¹⁴². Hau da, argi gelditzen da honekin tratamenduak epe luzera ere eraginkortasun handia erakusten duela. Izan ere, tratamendua jaso dutenek aukera gutxiago dituzte berriro ere delitua gauzatzeko.

3.Grafikoa: PCAS Tratamendua jaso ondoren, 18 urtetan zehar berrerortzen diren delitugileak. Elaborazioa: Nik neuk egina



Iturria: Redondo S. eta Mangot A. (2017)

¹⁴² Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (21.Or.)

Grafiko horretan delitugile sexualak espetxetik irten direnetik 18 urtera arte egiten dituzten delitu kopuruak agertzen dira. Hau da, zenbatek gauzatu duten berriro ere delitu bat. Baina, kasu honetan, ez da delitu sexualen eta besteen bereizketa bat egiten. Hau da, erreiterazioa agertzen da. Hala ere, ikusi dezakegu lehenengo 3 urteetan bai kontrol taldean eta bai tratamendu taldean, delitua berriro gauzatu duten pertsona gehiago aurkitzen direla. Bat eginez adituek esaten dutenarekin: lehenengo urteetan berrerortzeko arrisku gehiago dagoela.

Ikusi daitekeenez, urteak aurrera joan ahala, delitua gauzatu duten pertsonen kopurua geroz eta txikiagoa da. Tratamendua jaso dutenen kasuan, 12. urtetik aurrera inorrek delitu gehiago gauzatu ez dituela ikusten da. Aldiz, kontrol taldeko pertsonak delituak egiten jarraitu dute, nahiz eta kopuru txikigoan izan. Beraz, argi dago esku-hartzeak egin behar izanez gero, egokiena eta eraginkorra hasiera horretan egitea izango zela. Hau da, espetxetik irteten direnetik lehenengo urteetan¹⁴³.

Urteak aurrera joan ahala delitugileen gutxitzea azaltzeko, hainbat adituek teoria bat garatu zuten. Izan ere, dakigun bezala, nerabezaroan dauden pertsonak delituak gauzatzeko joera gehiago izaten dute. Hortaz, adina handitzen joan ahala, berrerortzeko arriskua baxuagoa izango da¹⁴⁴.

Honekin lotuta, desistimenduaz hitz egin beharko litzateke. Izan ere, delitugintzan aritzen diren pertsona asko, haien bizitzako une batean jarduera hori etetea erabakitzen dute. Horietako batzuk, ikusi dugun bezala, tratamendu baten laguntzaz egin dute hori. Hau da, espetxean jaso duten tratamenduak berrerortzeko arrisku hori gutxitu du.

Hala ere, argi dago tratamendua ez dela delitugileei delitugintza behin-betiko uztera bultzatzen dien faktore bakarra. Izan ere, gizarteak uste duenari kontra eginez, tratamendua jaso ez dutenen %80 inguruk ez dira berrerortzen¹⁴⁵. Hau da, delitugile sexualen berrerortzea, izatez, ez da altua izaten. Pertsona hauengan faktore desberdinak

¹⁴³ Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (22.Or.)

¹⁴⁴ Gil M. (2020) *Factores de inicio y desistimiento delictivo en delinquentes sexuales encarcelados*; Bartzelonako Unibertsitatea; Espainia; Tesis Doctoral

¹⁴⁵ Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (20.or.)

eragiten dute, modu natural batean alegia. Inolako interbentzioren beharrik gabe. Jarraian ikusiko dugu zeintzuk diren horretarako kriminologoek eta beste aditu batzuek azaltzen dituzten teoria desberdinak.

8.-DELITUGINTZA SEXUALA BEHIN-BETIKO UZTEA

Delitugintza uzteaz ari garenean, delitu-karrera uztera daraman prozesuaz ari gara, horretan esku hartzen duten faktoreak ere kontuan hartuz¹⁴⁶. Bertan, adina ez ezik, beste hainbat faktorek hartuko dute parte. Izan ere, pertsona bat behin espetxetik irten denean, beharrezkoa izango du ezaugarri zehatz batzuk izatea, bere birgizarteratzea errazagoa eta egokiagoa izateko, batik bat.

Sexu askatasunaren aurkako deiltuak egiten dituzten pertsona gehienak, lehenago edo beranduago delitugintza uzten dute. Esan bezala, pertsona batzuek tratamenduen laguntza izaten dute, hauen berrerortzea murriztuko duena. Baina, kontuan izanik kontrol taldeko pertsona askok ere delituari uko egiten bukatzen dutela, beharrezkoa da hauen arrazoiak aztertzea.

Horren atzean egon daitezkeen arrazoiak anitzak izan daitezke; adituek, esate baterako, hainbat teoria maneiatzen dituzte¹⁴⁷. Horien artean aurkitzen dira, besteak beste, delitugintza modu naturalean uzten dela adierazten dutenak; kontrol sozial informalarri garrantzia ematen diotenak eta garapen kognitiboa nagusitzen dutenak¹⁴⁸.

8.1.-Teoria Naturala

Teoria hau heltze-prozesuarekin guztiz erlazionatua dago; izan ere, adinaren eta delitu-jokabideen arteko loturetan oinarritzen da¹⁴⁹. Hau da, honek adierazten duena da,

¹⁴⁶ Padrón F. (2014) *Expectativas de reinserción y desistimiento delictivo en personas que cumplen penas de prisión: factores y narrativas de cambio de vida*; Universidad de Cataluña (Trabajo de Fin de Master) (4.Or.)

¹⁴⁷ Harris D. (2015) *Desistance from sexual offending: Behavioral change without cognitive transformation*; *Journal of Interpersonal Violence*; (2.or.)

¹⁴⁸ Gil M. (2020) *Factores de inicio y desistimiento delictivo en delincuentes sexuales encarcelados*; Bartzelonako Unibertsitatea; Espainia; Tesis Doctoral (119.or.)

¹⁴⁹ McNeill F. (2016) *El paradigma del desistimiento para la gestión de delincuentes*; *Revista para el análisis del derecho* (Barcelona) (10.Or.)

delituak adinarekin behera egiten duela. Izan ere, heldutasun-mailaren arabera izango da¹⁵⁰.

Teoria naturalari dagokionez, delitu-prebalentziak gora egiteko joera du haurtzaroa amaitzen denetik 20 urtera arte¹⁵¹. Adituek honi delituaren adin-kurba bezala izendatzea erabaki zuten. Hala eta guztiz ere, adin-kurba hau delituaren tipologiaren arabera, modu batekoa edo bestekoa izango da. Izan ere, delitu bortitzen aurrean gaudenean, hasiera berantiarra izan ohi da. Horien artean aurkitzen dira, esate baterako, haurren delitugile sexualak.

Delitugileak, orokorrean, behin heldutasun batera iristen direnean, delituak gauzatzeaz utziko dute. Honi delitua modu naturalean uztea deitzen zaio, pertsonaren garapenaren arabera izan delako erabaki hori. Aldiz, erasotzaile sexualen kasuan prozesua desberdina dela aipatzen dute adituek. Are gehiago eraso hori adingabeen aurkakoa izaten denean¹⁵².

Harris (2014) hitzetan, erasotzaile sexuak ibilbide kriminal desberdinak erakutsi ohi dituzte, non gainontzeko delitu tipologiek alderatuz, denbora tarte desberdinak dituzten. Beraz, esan dezakegu, delitugile sexualen kasuan desistimendu naturalak ez duela horrenbesteko eragina izango. Aurretik aipatutako aditu honek, ikerketa bat egin zuen honen inguruan, delitugintza uzten duten erasotzaile sexualen ezaugarriak aztertze asmoz. Emaitzetan adierazi zenaren arabera, 21 pertsonako laginetik soilik 3 pertsonak adierazi zuten arrazoia faktore naturaletan oinarritua zegoela, adinarengatik hain zuzen ere¹⁵³. Ondorioz, erasotzaile hauen kasuan delituak uzteko arrazoiaren artean, beste eragile batzuk izango dute nagusitasuna.

¹⁵⁰ Luna de la Mora T. (2014) *Desistimiento delinencial y prevención de una corriente en criminología para favorecer la seguridad*; La ciencia criminológica en la prevención y sus campos de aplicación; Editorial Flores (México)

¹⁵¹ Loeber R., Farrington D. eta Redondo S. (2011) La transición desde la delincuencia juvenil a la delincuencia adulta; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Monografía 1, No. 9 (17.Or.)

¹⁵² Ídem

¹⁵³ Harris, D. A. (2014). Desistance From Sexual Offending. *Journal of Interpersonal Violence*; Vol. 29(9); (1564.or)

8.2.-Kontrol Sozialaren Teoria

Kontrol sozialaren teoriak dioenez, delitua gertatzea errazagoa izango da subjektuak gizartean dituen erlazioak urriak direnean. Hau da, pertsona batek beharrezko sostengua izanez gero, aukera gehiago izango ditu karrera deliktiboa behin-betiko uzteko. Redondo eta Mangot-en (2017) esanetan, espetxetan aplikatzen diren tratamendu terapeutikoak oso eraginkorrak diren arren, ez da nahikoa subjektuaren birgizarteratze soziala bermatzeko. Beharrezkoa da komunitatean integratuak sentiarazteko eta laguntza sozialak emateko ekimenak abian jartzea.

Kontuan izan behar dugu, delitugileak behin espetxetik irteten direnean, askotan ez dutela harrera oso ona izaten. Hori dela eta, ez dute aukerarik kontrol informal bezala funtzionatzen duten erlazioak egiteko¹⁵⁴. Delitugile sexualek arazo hau askotan izaten dute, gero ikusiko dugun bezala, gizarteak haiengan duten ikuspegia oso negatiboa izaten baita. Hori haratago joaten da biktimak adingabeak izaten direnean.

8.2.1.-Familia

Hasteko, teoria honek familiaren instituzioa erabiltzen du birgizarteratze egoki bat zer den adierazteko. Kruttschnitt eta bere kideek (2000) adierazten duten bezala, familia, bereziki senar-emazteen arteko lotura, funtsezko elementua da deliturik ez egiteko nahi hori ulertzeko. Ikerketen emaitzek erakutsi dutenaren arabera, delitugileen kasuan gehienak bere familiarengana bueltatzen dira behin espetxetik irteten direnean¹⁵⁵. Hauen babesa eta euskarria beharrezkoa izango baita hauen birgizarteratze prozesuan.

Are gehiago, Martínez eta Abrams-ek (2011) haien lanean baieztatu zuten espetxeratzearen ostean, arrakasta tasa altuagoa aurkitu zutela senideekin lotura estua zuten presoaren artean. Honek nolabait kontrol sozial informal bezala jokatu eta berrerortze

¹⁵⁴ Gil M. (2020) *Factores de inicio y desistimiento delictivo en delinquentes sexuales encarcelados*; Universidad de Barcelona; Tesis Doctoral ; (124.Or.)

¹⁵⁵ Martínez D. eta Abrams L. (2011) Informal social support among returning young offenders: A metasynthesis of the literature; *International Journal of Offender Therapy and Comparative Criminology* 57 (2); (173.Or.)

posible hori murrizteko baliagarria izan bait daiteke. Gainera, sostengua izateak pertsona horrek izan dezakeen bakardadea txikitu eta arazoak konpontzeko gaitasuna areagotu dezake¹⁵⁶.

Hala ere, familiako kideengana bueltatze hori ez da zertan onuragarria izan behar kasu guztietan. Izan ere, askotan pertsona batek delitua gauzatzen duenean, familiak dituen arazoengatik izan daiteke. Adingabeen kasuan, esate baterako, askotan familia bera da influentzia txarra erakusten duena; guraso delitugileak izateagatik, etxean aurkitu daitekeen indarkeriarengatik edota hauek haurraren gainean duten kontrol ezarengatik. Hori dela eta, familiaren instituziora bueltatzea eraginkorra eta baliagarria izango da, bertan dauden aspektuak faboragarriak diren kasuetan.

Bestalde, delitugile sexualen kasuan egoera desberdina dela aitortu behar da. Delitugile hauek duten estigma kontuan izanez gero, ondorioztatu dezakegu asko espetxetik irten ondoren ez dutela inolako sostengu familiarrik izango. Askotan biktima bera familia honetako kide izan ohi da. Adingabeen haurkako abusu sexualetan kopuru hori oso handia izaten da (Kruttschnitt et al. 2000; Gil, 2020). Beraz, instituzio honek ekar ditzaken onurak lortu ezin dituztela ondorioztatu dezakegu.

Harris-ek (2014) ikerketa bat egin zuen erasotzaile sexualak delituak uzten dituztenean atzean egon daitezkeen arrazoiak aztertzeko. Bertan ikusi zuenaren arabera, delitugile sexuak askotan espetxetik irteten direnean sostengu familiarrik gabe aurkitzen dira. 21 pertsonako lagina izanda, hauetako %71.4a aurretik ezkondu zirenen, baina behin handik irtenda denak diborziatzen bukatu zuten.

Zituzten seme-alabei dagokienez, laginaren %67a aita zen arren, bertatik irtendakoan soilik 2 pertsonak ekin zioten berriro ere zuten harremanari¹⁵⁷. Besteek ez dute ezer jakin haien seme-alabetaz. McAlinden eta bere kideek (2016) adierazten dutenaren arabera, harreman intimo horiek galtzea, negatiboa izan daiteke

¹⁵⁶ Gil M. (2020) *Factores de inicio y desistimiento delictivo en delincuentes sexuales encarcelados*; Bartzelonako Unibertsitatea; Tesis Doctoral (168.or.)

¹⁵⁷ Harris, D. (2014). Desistance From Sexual Offending. *Journal of Interpersonal Violence*; Vol. 29(9), (1571.Or.)

birgizarteratzearentzako. Seme-alabekin duten harremana galtzea haien emozioetan eragin negatibo handia izan dezakeelako askorentzat.

Aipatutako guztia kontuan izanik, familia delitugintza uzteko oso garrantzitsua den elementua bada ere, lan honetan aztertzen ari garen delitugileen kasuan ez da baliagarria. Delitugile sexual askok, adingabeenak batez ere, behin zigorra beteta familiaren sostengurik gabe aurkituko dira. Beraz, birgizarteratzean arazo asko izango dituzte.

8.2.2.-Enplegua

Kruttschnitt, Uggen eta Sheltonen (2000) aurkitu zuten egonkortasun laboralak eragin positiboa zuela berrerortzean. Hots, behin espetxetik irtenda lanpostu finkoa zuten subjektuek delitua gauzatzeko aukera gutxiago izango zuten.

Honen arrazoen artean aurkitzen da, esate baterako, bertan dauden pertsonekin sortzen diren erlazio estuak¹⁵⁸. Izan ere, gehienetan lanpostu egonkor bat izatean, bertako pertsonak, orokorrean, prosozialak izaten dira. Non haien aisialdian gizartearen arauen barnean sartzen diren ekintzak gauzaten dituzten. Espetxetik irten den subjektua hauekin erlazionatuz, arrisku deliktiborik ez dituzten ekintzak gauzatzera eraman ditzake.

Gainera, iraganean izan zezaketen lagun delitugileekin duten erlazioa nolabait oztopatu dezake; haiek nahiago dituzten jarduerak aukeratzeko parada izan dezaketelako. Aurretik zuten delinkuentzia sare hori mugatzen ariko lirateke, beraz.

Hala eta guztiz ere, aurreko elementuetan bezala, salbuespenak aurkitu daitezke. Askotan gazteek izaten dituzten lanpostuak, ez dira guztiz ekintza prosozialekin lotzen diren pertsonen osatuak (Wright eta Cullen, 2004). Hau da, gazteak askotan janari lasterra saltzen duten tokietan egiten dute lan, non beste lanik aurkitu ezin duten pertsonak elkartzen diren. Hau, orokortzea bada ere, argi utzi behar da ez dela kasu guztietan ematen. Lanpostu horietan pertsona prosozial asko ere aurki daitezkeelako.

¹⁵⁸ Wright J. P. eta Cullen F.T (2004) Employment, peers, and life-course transitions; *Justice Quarterly*; Vol. 21; No. 1; (185.Or.)

Ondorioz, lanpostu finko bat izateak ez du zuzenean berrerortze horretan eragin positiboa izango. Beharrezkoa izango baita bertako lankideak ere delitugintzarekin zerikusia ez duten ekintzak jardutea. Bestela, espetxera sartu baino lehen zuen bizimodura bueltatzeko aukera oso zabala izan daiteke.

Lan egonkorra lortzeak identitate prosozial berriak ezartzeko aukera ematen die gizabanakoei (Wright eta Cullen, 2004). Baina, erasotzaile sexualen kasuan, ageria da lanbidearen bilaketa hori zailagoa izan daitekeela. Jada delitugilea izan den pertsona batentzako zaila bada lanpostu bat aurkitzea, delitugile sexuak jasaten duten estigmatizazioak zaildu egiten du.

Harrisek (2014) aurretik aipatu dugun lan horretan, enpleguak delitugileengan izan dezakeen eragina aztertu zuten. Bertan, erasotzaile sexualen historiala kontuan hartu eta espetxean sartu aurretik eta ondoren izandako bilakaera ikertu zuten. Emaitez azaleratu zutenaren arabera, espetxean sartu aurretik laginaren hiru laurdenak lanpostu egonkor bat zuten, zeinak gaitasun edo trebetasun bereziak behar zituzten. Behin zigorra bete ondoren, lagin osoaren artean soilik 3 pertsonak lortu zuten lanpostua. Gainera, lanpostu horiek ez zen finkoak, behin-behinekoak baizik eta kalifikazio gabetu postuetan.

Kruttschnitt eta bere kideek (2000) lanpostua izateak erasotzaile sexualen birgizarteratzean ekarri ditzakeen onurak baieztatu zituzten arren, hauen aukerak oso urriak direla ikusita, aurretik lan zaila dutela ondorioztatu dezakegu. Hau da, subjektu hauek berriro ere deliturik ez gauzatzea nahi da, baina ez zaie horretarako beharrezko baliabideak eskaintzan. Hortaz, kontrakotasun larri baten aurrean aurkitzen garela esan daiteke; jokabide normalizatu eta prosozialerantz aldatzeko eskaera egin eta horretarako behar diren baliabide egokiak ez eskaintzea. Gizarteko kide guztiek eta horri dagozkien erankundeek horretan parte hartu beharko lukete.

8.2.3.-Kapital Soziala

Kapital soziala izatea, hots, lagun prosozialak edo auzo eta komunitate harreman onak izatea, oso faktore garrantzitsutzat hartzen da delitugintzaren atzera egiteko

trantsizioa prozesuan¹⁵⁹. Cullenek dio delitua eta delitugintza gizarte-babesaren gabeziatik datorrela, hortaz, babes sozial egokia izanez gero, deliguntzan parte hartzeko probabilitatea txikitzen da. Honek nolabait pertsonen zuzena zer den eta gizarte ona zer den erakustarazten die, jendearen zentzua eskainiz¹⁶⁰.

Wright eta Cullen-ek (2004) diotenaren arabera, espetxetik irteten diren pertsonak delituak egiteko inhibituak izango dira, bere lanean edo familia-bizitzan kapital sozial lanak egiten dituzten pertsonak dituzten neurrian. Aldiz, honen gabezia erakusten dutenek, arrisku gehiago erakutsiko dute berriro ere delitu bat gauzatzeko aukera gehiago izango dutelako. Ondorioetan pentsatu gabe nahi dutena egiteko askegoak izango baitira.

Elementu honek eskaini ditzakeen onurak ez dira familiak eskaini ditzakeen bezain esanguratsuak. Izan ere, pertsona baten bizitzan bizilagunek edo lagunak ekartzen dituzten onurak aberasgarriak diren arren, orokorrean ez dira familienak bezalakoak¹⁶¹. Hala ere, hauen eragina oso handia izan daiteke aspektu negatiboetan zentratzen bagara.

Lagun delitugileak dituen pertsona bat espetxetik irteten eta haiekin berriro ere elkartzen denean, bere etorkizuna delitugintzan arriskuan egon daiteke. Hau da, errazagoa da pertsona batek delitu bat gauzatzea bere ingurukoaren sostengu hori badu, eta hauek ere bere ekintza berdina egiten badituzte. Horregatik, ezinbestekoa da pertsona hauek elazio prosozialak aurkitzea. Honek nolabaiteko oztopoa ekarriko duelako eta haien garapen pertsonalean eragin positiboa izan ditzaketan jarduerak egin ditzaketelako.

Beraz, esan dezakegu, delitugintza behin-betiko uzteko ez dela sostengu soziala behar, baizik eta inguruan pertsona prosozialak izatea. Delitugintzako bidetik aldentu eta gizarteko arauetara gehiago egokitzen den bizitza batera gerturatuko dena.

Delitugile sexualen kasuan, aurrerago ikusiko dugun bezala, oso zaila egiten zaie erlazio pertsonalak lortzea. Lan honetan egindako inkestan adingabeen aurkako delitu

¹⁵⁹ Gil M. (2020) *Factores de inicio y desistimiento delictivo en delinquentes sexuales encarcelados*; Bartzelonako Unibertsitatea; Tesis Doctoral (129.Or.)

¹⁶⁰ Martínez D. eta Abrams L. (2011) Informal social support among returning young offenders: A metasynthesis of the literature; *International Journal of Offender Therapy and Comparative Criminology* 57 (2); (171.Or.)

¹⁶¹ *Ibidem* (172.Or.)

sexual bat gauzatu dutenen kasuan, askok haien lagunak izango ez zirela adierazi zuten. Aurrerago gehiago sakonduko dugu hau.

8.3.-Garapen Kognitiboa

Gil-ek (2020) adierazten duen bezala, espetxetik irteten diren pertsonak ez dute ia aukerarik izaten kontrol sozialak eskaini dezakeen sostengu hori lortzeko. Izan ere, delitugileek duten estigmatizazioa oso zabala da gaur egun. Are gehiago delitugile sexualen inguruan ari garenean. Hauek gizartean berriro ere onartzea zaila egiten baitzaie askori.

Hori dela eta, eta aurretik adierazi bezala, delitugile askok birgizarteratzea modu isolatuan egiten dute, gizartetik baztertua eta inolako laguntzarik gabe. Ez hori bakarrik, izan ere askok aurretik zituzten euskarriak galdu dituzte: lanpostua, lagunak edota familia bera. Guzti hau, ikusi dugun bezala, bere delitugintza behin-betiko uzteko oztopoa baino ez da izango.

Teoria honek, aurretik aipatutako faktore horiek biltzen ez dituen pertsona batek delitugintza uzteko izan ditzakeen arrazoiak azaldu nahi ditu. Hau da, harreman egonkorrik eta enplegu finkorik ez duten pertsonen arrazoia zein den adierazi nahiko dute. Honen arabera, garrantzia eman behar zaie kognizioei, emozioei eta identitateari¹⁶². Hots, honek areagotu egiten du subjektu hauen nortasunaren pertzepzioa, motibazio-aldaketan eragina izanez (McNeill, 2016).

Teoria honetan garrantzia berezia izango du identitate berri bat imaginatzeko gaitasunak¹⁶³. Izan ere, identitate berri bat sortzeko gaitasunaren atzean egongo da delituari uko egiteko arrazoia (Flórez 2019). Espetxean egon den pertsona bat, delitu bat gauzatu duelako dago hor, eta bere burua delitugiletzat hartzen du, bai beak eta bai gizarteak. Hortaz, bere burua delitugile batekin identifikatuz, errazagoa izango da delitu bat gauzatzea, bere nortasunarekin bat egiten duela pentsatzen baitute. Aldiz, etiketa hori

¹⁶² Harris D. (2015) Desistance from sexual offending: Behavioral change without cognitive transformation; *Journal of Interpersonal Violence*; (17.or.)

¹⁶³ McAlinden, A.-M., Farmer, M., & Maruna, S. (2016). Desistance from sexual offending: Do the mainstream theories apply?; *Criminology & Criminal Justice*; 17(3); (11.Or.)

kentzen saiatzen badira eta horretan ingurukoek laguntzen badiote, delitua behin-betiko uzteko bultzada izan daiteke.

Giordanok bere lanean ere onekin bat egiten du esplizituki. Bere aburuz, ongizate emozionala eskuragarria baita kapital sozialaren gabezia egon arren¹⁶⁴. Pertsona baten emozioak erregulatzeko gaitasuna izateak bizitzak ekarriko dizkion ardurak eta arazoak ezagutzea eta onartzea ahalbidetuko diolako. Ikusi dezakegu, beraz, hemen atzean tratamenduaren eraginkortasuna ezinbestekoa izango dela, ingurukoek laguntzaz gain.

¹⁶⁴ Harris D. (2015) Desistance from sexual offending: Behavioral change without cognitive transformation; *Journal of Interpersonal Violence*; (18.or.)

9.-ADINGABEEN AURKAKO SEXU DELITUGILEEN BIRGIZARTERATZEARI BURUZKO IRITZIA

Aurretik ikusi dugun bezala, hainbat adituek egindako ikerketek adierazi dute instituzio eta elementu batzuk delitugintza uzteko oso baliagarriak izan daitezkeela espetxetik irten diren subjektuentzat. Hala ere, aipatu behar da elementu hauetan orokortu baino ez dela egin. Izan ere, delituaren tipologiaren arabera, delitugile batzuek eta besteek izango dituzten aukerak ez dira berdinak izango.

Sexu-delitugileak iritzi publikoaren eta legegintza-zigorgarriaren mende daude. Izan ere, geroz eta gehiago atxilotzen, kondenatzen eta espetxeratzen dira azken urteetan¹⁶⁵. Gizartean duten estigma oso handia dela diote askok. Sexu-delitugintzak gizartearen ezinikusia eragiten du, batez ere haurren sexu-abusuaren aurrean gaudenean (Martínez eta Redondo, 2016). Hortaz, behin zigorrak adierazitako denbora igarotzen dutenean, gizartean egokitze zailtasun ugari izan ohi dituzte. Pertsona hauei delitugile ohiaren, edota delitugile etiketa kentzea ez da lan erraza gaur egun.

Estigma horren indarrak, azken batean, inguruko pertsonen errefusa ekarri du. Hori dela eta, behin espetxetik irteten direnean, asko bakardadean bizi dira, inongo sostengu sozialik gabe; izan ere, honek gizarte-loturak ezartzeko zailtasun handiak eragin diezazkieke¹⁶⁶. Hortaz, bikotekidea, lagunak edota enplegua lortzeko ezinean egongo dira asko.

Gainera, gizarteak ez ezik, erakundeen partetik ere oso laguntza gutxi dagoela ikusi da. Alqueza eta bere bere kideek (2014) adierazten dutenaren arabera, behin espetxetik irten direnean, subjektu horiek ikuskatzeko, babesteko eta kontrolatzeko esku-hartzeak egitea beharrezkoa izan beharko luke. Subjektuarekin zuzeneko esku-hartzeak egin beharko lirakete, lotura prosozial horiek sustatuz eta hauen oinarrizko premiei arreta jarritz. Horretarako, ezinbestekoa izango da, nola ez, erakunderen arteko lankidetzak.

Hau horrela izan beharko lukeen arren, Hitzune proiektuko psikologoarekin hitz egin ostean, errealitatea guztiz desberdina dela aitortu zuen. Proiektuan izan duten

¹⁶⁵ Kruttschnitt C., Uggen C. eta Shelton K. (2000) Predictors of desistance among sex offenders: the interaction of formal and informal social controls; *Justice Quarterly*; Vol. 17 No. 1; (67.Or.)

¹⁶⁶ *Ibidem* (131.Or.)

esperientziagatik, delitu sexualak gauzatu dituzten pertsonekin inorrek harremanik izan nahi ez dutela ondorioztatu zuten. Izan ere, finantzaketa publiko eta pribatuak bilatzen saiatu diren kasuetan inoiz ez dute inolako laguntzarik jaso. Aldundiko hainbat erakundetan gutxieneko laguntzak aurkitzen saiatu ziren ere, baina onurarik gabe. Haien ustetan, erosoagoa egiten zaie kausa sozialekin laguntzea, proiektu altruistetan parte-hartzea, eta ez sexu-erasoak gauzatu dituzten presoei laguntzea.

Egoera hau gizartearen iritziarekin guztiz lotutakoa da. Erakundeek azaltzen duten iritzi hori gizartean orokorrean partekatzen baita. Honek, dakigun bezala, delitugileen birgizarteratzean guztizko eragina izango du, hauek baitira nolabait pertsona hauei bigarren aukera bat eman behar diotenak. Baina, iritzi horri buruzko datuak jasotzeko orduan, oso zaila egin zait hura modu argi batean azaltzen duen ikerketaren bat aurkitzea. Kasu honetan, adingabeen erasotzaile sexualen inguruan zentratu garenez, informazio hori are urriagoa da.

Hau guztia dela eta, inkesta bat egitearen erabakia hartu nuen. Gure inguruan bizi diren pertsonen iritzia zein den jakiteko, eta adingabeak biktima bezala dituzten eraso sexualen egileekiko ikuspegia ulertzeko. Aurretik adierazi bezala, ezinbestekoa da delitugile sexuarekin tratamendu psikologikoak egitez gain, horren ostean hainbat esku-hartze egitea. Zeinak maila familiarrean, komunitarioan eta kulturean eragin dezaketen¹⁶⁷. Gainera, espetxetik irteten direnean, lan-aukerak, lotura afektiboak eta laguntza eta kontrol sozialak izatea komunitate horretan integratzeko baliabideak eskainiko dizkie. Honek hauen birgizarteratzean guztiz lagunduko dielako, eta ondorioz, etorkizuneko delitu posibleak oztopatu.

Baina, ikusi dugun bezala, errealitatea desberdina dela dirudi. Gizarteko kideek pertsona hauek baztertzeko joera dutelako, hauen birgizarteratze aukerak guztiz mugatuz. Ikerketa honen ostean, pertsonen joera orokorra zein den ezagutzeko aukera izango dugu.

¹⁶⁷ Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (18.or.)

9.1.-Metodologia

Metodologiari dagokionez, Internet bidezko inkesta bat egitea erabaki nuen; hau da, ikerlan kuantitatiboa izango da. Hau nire sare sozialetan eta 50 urte inguruko pertsona baten sare sozialetan dauden pertsoneri bideratua izan zen. Bigarren pertsona baten sare sozialetan zintzilikatzeko arrazoia, laginean egon zitekeen adinaren aniztasuna izan zen. Inkesta hori ikerketan parte hartu nahi zuen edonork erantzun zitekeen, beti modu anonimoan. Hortaz, inorrek, ez ikerlariak ezta erantzuleak ere, ez zuten izango bakoitzaren erantzunaren berri.

Laginari dagokionez, hasiera batean 100 pertsonen erantzuna jasotzeko intentzioa nuen, horretarako inkesta sare sozialetan 24 orduz argitaratua izanik. Gutxieneko hori lortu ezean, epea beste 24 orduz luzatzea aurreikusi zen. Gure harridurarako, 24 ordutan 400 erantzun baino gehiago lortu genituen; 423 hain zuzen ere. Erantzun zutenetatik 239 emakumeak izan ziren (%56.5), eta 184 gizonak (%43.5). Adinari dagokionez, ezinbestekoa iruditu zitzaidan 18 urte azpiko pertsonen iritzia ere kontuan hartzea. Izan ere, hauek izango dira modu batera edo bestera delitu mota honen biktima potentzialak. Hala ere, 14 urtetik gorakoak izateko ukanbeharra eskatu nuen, bertatik berakoak izan zezaketen zaugarritasuna dela eta.

Aldagaien kasuan, 12 galdera egin ziren, erantzuna hautatu beharra zutenak, modu laburrean edo 0-tik 10-era arteko eskala batean. Hauek lau bloke desberdinetan banatu ziren. Lehenengoak informazio pertsonalaren ingurukoa izango non pertsonaren generoa, adina eta bizilekua galdetuko diren. Galdera hauek, ikerlaneko aldagaien erantzunetan izan ditzaketen eragina kalkulatzeko ahalbidetuko digute. Hauez gain, laugarren bat ipintzea erabaki nuen, kondenatua izan den hurbileko pertsonaren bat duten ala ez galdetuz. Izan ere, delitugintza eta espetxeratze eremuak gertutik bizi izanak, birgizarteratzearen inguruko galderetan eragina izan zezakeen.

Bigarren blokean pertsona hauek delitugile sexualen berrerortzeari buruz duten aurretiko jakintza neurtu nahi izan da. Gizarteak gai honen inguruan duten informazioa zein den ezagutzeko. Izan ere, honek haien erantzunak baldintzatu ditzake.

Hirugarren blokean, adingabeen delitugile sexualen birgizarteratzearen inguruko galderak egingo zaizkie, haien iritzia zein den jakiteko. Aldagai horien aukeraketa birsozializatzeko beharrezkoak izango liratekeen ezaugarriak dituzte oinarritzat. Esate

baterako, enplegua eta kapital soziala. Izan ere, elementu horiek haien esku egonez gero, zein jarrera izango luketen ikusi nahi da.

Espetxean jasotzen duten tratamenduari emango diogu nagusitasuna. Izan ere, azken galderan tratamendua jaso dutela jakinez gero, honek bere aurretiko erantzunetan aldaketaren bat sortuko lukeen galdetzen zaie. Azken batean, askok ez dute espetxeetan jasotzen dituzten tratamenduen berri, eta honek beraiei buruzko iritzi distortsionatua ekar dezake.

Lortzen diren emaitzak aztertzeko, SPSS Statistic programa erabiltzea erabaki da. Bertan, galdera bakoitzaren tendentzia zein den jakiteko bataz-bestekoa, mediana eta moda ikertzeaz gain, kuartilak ere begiratu dira. Izan ere, honek lortutako emaitzak zeintzuk diren argi ikustea ahalbidetu digu.

Bukatzeko, txi-karratua erabili da, inkesta erantzun dutenen generoak edo adinak izan dezakeen eragina ikusteko. Bestalde, gertuko pertsonaren bat kondenatua izan duten pertsonen kasuan ere hau egitea erabaki da. Eredu hau ezagutzeak izan dezakeen eragina ikusteko.

9.2.-Emaitzak

1.Blokea

Lehenik eta behin, inkesta erantzun duten pertsonen adinari buruz hitz egin behar dugu. Izan ere, bertan aniztasun handia aurkitzen dugu. Hau erantzun duten pertsona gehienak 19-25 urte bitartekoak izan dira, guztira 125 daudelarik (%29.6). 46-55 urte artekoak ere asko izan dira, 120 hain zuzen ere. Hortik aurrera, gutxiago diren arren, beste adin tarte batzuetako pertsonak ere erantzun dute. Grafiko honetan modu argiago batean ikusi daiteke laginaren adina.

4.Grafikoa: *Inkestan parte-hartu dutenen adinaren banaketa. Elaborazioa: nik neuk egina*



Iturria: Ikerketa honetan egindako inkestako emaitzak

Argi gelditzen da bi adin tarte direla hemen nagusitzen direnak. Hala ere, adin tarte guztietako erantzunak lortzeko aukera izan dugunez, haien erantzunen artean dauden desberdintasunak aztertu ahal izango ditugu. Izan ere, pertsona hauek izan duten bizitza desberdina izan den heinean, eta historiaren aldi desberdinetan bizi direnez, non gizartea desberdina izan den, baliteke hauen artean desberdintasun nabariak aurkitzea.

Bizilekuari dagokionez, erantzun dutenen %67.8a EAEn (Euskal Autonomia Erkidegoa) bizi da. Gainontzeko herrialdeari dagokionez, 125 pertsonak erantzun dute; hau da, laginaren %29.6ak. Bukatzeko, atzeritik erantzun duten beste 11 pertsona ere izan ditugu ikerketa honetan.

Bloke honekin bukatzeko, aurretik esan bezala, kondenatua izan den gertuko pertsonen bat duten ala ez galdetu zaie inkesta erantzun dutenei. Kasu honetan, 49 pertsonak adierazi dute inguruan kondenatua izan den norbait izatea. Hauek laginaren %11.6a soilik eratzen dute.

2.Blokea

Sexu delitugileek duten berrerortze tasaz galdetzea erabaki zen, esan bezala, gizarteak duen informazioa zein den jakin ahal izateko. Dakigun bezala, subjektu hauen

berrerortze-tasa %13 ingurukoa izan ohi da; %10-20 ingurukoa, orokorrean. Baina, erantzunak horrekin bat egiten ez dutela ikusi daiteke.

Laginaren gehiengoak, 201 pertsonak (%47.5) hain zuzen ere, uste dute berrerortze hori %50a baino gehiagokoa dela. Hau da, erasotzaile sexualen erdiak baino gehiago behin espetxetik irtenda berriro ere delitu sexual bat gauzatzen dutela. Ez hori bakarrik, izan ere %33.6ak pentsatzen du berrerortze hori %30-50 artean dagoela. Hau da, inkesta hau erantzun duten pertsonen %80ak baino gehiagok uste du sexu-delitugileen berrerortzea %30a baino handiagoa dela. Aldiz, soilik 22 pertsonak erantzun dute berrerortze hori %10a baino gutxiago dela, eta %13.7ak (58 pertsonak), erantzun egokia.

3.Blokea

Esan bezala, bloke hau da inkesta honetan garrantzia gehien izango duena. Hau baita adingabeen delitugile sexualen birgizarteratzearekin erlazio gehien izango duena. Hasteko, adingabe batez abusatu duen pertsona bati zein zigor ezarriko ziotetzen galdetzen zaie. Kontuan izan behar da espreski adierazten dela pertsona hauek ez dutela inongo indarkeriarik edota larderiarekik erabili. Bertan, bost aukera ematen dira, larritasun gutxiena duenetik larritasun gehiena duena arte. Grafiko honetan ikusi daiteke zeintzuk izan diren galdera honen erantzunak.

5.Grafikoa: Adingabeen aurkako abusuarengatik inkesta bete dutenek eskatzen duten zigorra. Elaborazioa: nik neuk egina



Iturria: ikerketa honetan egindako inkestako emaitzak

Hemen ikusi daiteke, inkesta erantzun duten gehiengoak (210 pertsonak) bizi arteko espetxe zigor berriusgarria eskatzen diela horrelako delitu bat gauzatu duen pertsona bati. Hau da, gutxienez 25 urtez igaro beharko duela espetxean irteteko aukera izan aurretik. Hau erantzun dutenak gehiengoak dira, beste erantzun posibleen emaitzekin izugarritzko desberdintasuna izanik.

Gehien aukeratua izan den bigarren aukera 10 eta 15 urte arteko espetxe zigorrarena izan da, non 108 pertsonak hautatu duten zigor hau. Baina, harridura gehien sortzen duena, heriotza zigorraren kopurua izan da. Izan ere, horrelako zigor astuna izanda, lagin guztiaren %13ak aukeratu du; hau da, 55 pertsonak.

Aldiz, arinenak diren bi zigor horiek aukeratu dituzten pertsonak kontuan hartuz gero, soilik %11.9ak aukeratu du. Laburbilduz, 50 pertsonak soilik uste dute delitugile hauek 10 urte baino gutxiagoko espetxe zigorra merezi dutela.

Birgizarteratzeari dagokionez, subjektu hauek berriro ere gizartean integratzeko gaitasuna duten ala ez galdetu zaie inkestan. Non bi aukera soilik zituzten: Posible da, eta ez da posible. %58.6ak (248 pertsonak) hauen birgizarteratzea posiblea ez dela adierazi dute. Aldiz, gainontzekoek, hau da, 175 pertsonak (%41.4), birgizarteratzean sinisten dute.


Honekin lotuta, subjektu hauek bigarren aukera merezi duten galdetu zaie. Hemen, 10 erantzun galdu aurkitu ditugu, hau da, hauek ez dute erantzunik eman. Baina, aurrekoaren antzera, %55.1ak ezezkoa eman dute, eta %42.6ak baiezkoa.

Bloke honekin bukatzeko, delitugileen birgizarteratze eta integrazioan beharrezkoak izango diren galderen erantzunak adieraziko dira. Hasteko, behin espetxetik irten den adingabeen erasotzaile sexual baten ondoan egonez gero izango luketen segurtasun maila adieraztea eskatu zaie. Horretarako, 0-tik 10-era arteko eskala eskaini zaie, non 0 segurtasunik eza adierazten duen eta 10a guztizko segurtasuna.

Bataz-bestekoari erreparatuta, hau 3.00-koa izan da. Hau da, bataz-beste inkesta erantzun dutenek ez dute segurtasun gehiegirik sentituko subjektu hauen ondoan egonez gero. Ez hori bakarrik; izan ere, moda 0-koa izan da. Hau da, gehiengoak segurtasun eza adierazten dute adingabeen sexu-delitugile baten ondoan egoten badira. Hain zuzen ere, lagineko 103 pertsonak hautatu dute aukera hau. Grafikoari erreparatzen badiogu,

eskalaren puntuazio baxua aukeratzeko tendentzia dagoela ikusten da. Non 0 baliotik abiatuz, emaitza kopurua jaisten joango den.

6.Grafikoa: *Gizarteak sentitzen duen segurtasuna adingabeen sexu-delitugileen ondoan daudenean. Elaborazioa: nik neuk egina*



Iturria: Ikerketa honetan egindako inkestako emaitzak

Antzeko metodoa erabili da ere subjektu hauen laguna izateko eta honi enplegua eskaintzeko izango lukeen probabilitateaz galdetzeko; non 0 ezinezkoa den eta 10 oso ziurra. Aurrekoaren antzera, erantzun hauen balioa ere nahiko baxua izan da. Lagun bezala izateko probabilitatearen batz-bestekoa 2.12koa izan da. Hau da, inkesta erantzun dutenen pertsonen artean %21eko probabilitatea egongo litzateke batz-beste adingabeko pertsona bat abusatu eta zigorra bete ondoren subjektu hau lagun bezala izateko. Lanpostua eskaintzeko probabilitatea ere oso antzekoa izan da, 2.14koa hain zuzen ere. Beraz, kasu honetan ere %21eko probabilitatea egongo litzateke soilik, subjektu honi enplegu bat eskaintzeko. Modari dagokionez, hots, gehien errepikatu den emaitzari dagokionez, bi kasuetan, aurrekoan bezala, 0 izan da. Non goruntz joan ahala, erantzun kantitate hori jaisten joan den.

Hiru galdera hauetan ikusi dugu joera puntuazio baxua ematea izan dela. Hortaz, 5-etik berako puntuazioa eman dutenen ehunekoa zein izan den begiratzea erabaki dut. Segurtasunaren galderari dagokionez, lagin guztiaren %84.4ak 5-etik beherako puntuazio eman du. Hau da, segurtasun ezaren alderuntz. Beste bi galderatan, hau da, lagun

izatearen eta enplegua eskaintzearen kasuetan, bietan, ehunekoa 91.5-ekoa izan da. Hau da, 10 pertsonetatik 9k probabilitate baxua erakusten dute subjektu hauen lagunak izateko edota lanpostu bat eskaintzeko.

3.Taula: *Inkestan adingabeen delitugile sexualetan birgizarteratzeko beharrezkoak diren elementuetan lortutako emaitzen zentralizazio parametroak. Elaborazioa: nik neuk egina.*

Aldagaia	Bataz-bestekoa	Mediana	Moda
Inguruan izatea	3	3	0
Lagun bezala izatea	2.12	1	0
Enplegua eskaintzea	2.14	1	0

Iturria: Ikerketa honetan egindako inkestako emaitzak

4.Blokea

Azkeneko galdera, subjektuen tratamenduari dagokiona, emaitza interesgarriak adierazi ditu. Izan ere, tratamendua jaso dutela jakinez gero, aurreko erantzunetan aldaketaren bat egingo zutela adierazten dute laginaren %38.1ak; hau da, 161 pertsonak. Aldiz, %61.9ak inongo aldaketarik egingo ez zuela alegatzen du.

Txi-Karratua

Aurretik esan bezala, erantzunak aztertzeko interesgarria iruditu zitzaidan generoaren eta adinaren arabera emaitzak aztertzea. Horrez gain, gertuko pertsonaren bat izateak izan ditzakeen eragina ere aztertu nahi izan da. Izan ere, galderak erantzuteko orduan izan dezaketen eraginak etorkizuneko esku-hartzeak baldintzatu ditzake.

Gertuko pertsonaren bat kondenatua izateari dagokionez, emaitzek erakutsi dute ez dagoela inongo erlazio esanguratsurik. Hau da, gertuan kondenatutako pertsonak dituzten pertsonak gainontzekoen antzera erantzun dute. Txi-karratuak ematen duen balioari erreparatzen badiogu, erantzunen probabilitatea zoriari dagokiola ondorioztatu dezakegu ($p > 0.05$).

Generoaren eragina emaitzetan

Generoari dagokionez, galdera zehatz batzuetan esanguratsutasunaren ezaugarria betetzen dela ikusten dugu. Hasteko, zigor mota erabakitzean, bai emakumeek eta bai gizonek kasu batzuetan emaitza esanguratsuak erakusten dituzte ($p < 0.05$). Zoriz espero baino emakume gutxiagok aukeratu dute 10 eta 15 urte arteko espetze zigorra (zuzendutako hondakina, -2.0). Aldiz, gizonen kasuan, espero baino gehiagok aukeratu dute aukera hau (zuzendutako hondakina, +2.0). Bizi arteko espetze zigor berrikusgarriaren kasuan, guztiz kontrako zerbaite gertatzen da. Izan ere, gizonek zoriz espero zena baino gutxiagotan aukeratu dute hau, zuzendutako hondakina -3.2-koa izanik; emakumeen kasuan zifra hori positiboa izan da. Kontuan izan behar dugu, bi kasu hauetan zigor motaren eta generoaren arteko esanguratsutasun estatistikoa zegoen ($p < 0.05$).

Adingabeen delitugileen ondoan sentitzen duten segurtasunaz galdetzean antzeko emaitzak aurkitzen ditugu. Izan ere, 0-10 arteko eskala horretan, non 0 segurtasun eza eta 10a guztizko segurtasuna erakusten dute, gizonek 0 aukera zoriz espero zena baino gutxiagotan aukeratu dute (zuzendutako hondakina -3.2). Hortaz, emakumeek espero zena baino gehiagotan aukeratu dute puntuazio hau. Honekin lotuta, 5-eko puntuazioa aukeratu duten emakumezko gutxiago aurkitzen ditugu, zeina zoriz uste zena baino baxuagoa izan den (-2.8). Gizonezkoek aldiz, zoriz uste zena baino gehiagotan aukeratu dute hau. Segurtasunaren pertzepzioa eta generoaren arteko erlazioa oso esanguratsua dela ondorioztatu daiteke ($p < 0.01$).

Adinaren eragina emaitzetan

Adinaren kasuan, esanguratsutasun hori nabarmenagoa izan da, non galdera gehiagotan aurkitu den adinaren eta erantzunaren arteko erlazioa. Hasteko, ezarriko lioketen zigorrean aurkitzen dugu esanguratsutasuna. 19-25 urte artekoen kasuan, zoriz uste zen baino gehiagotan aukeratu da 5 eta 10 urte arteko espetze zigorra. Izan ere, zuzendutako hondakina 4.6koa izan da. Gainera, zigor hori handitzen joaten zen heinean, aukeraketa kopurua jaisten zijoala ikusi da.

Aldiz, 36-45 urte artekoen kasuan, aukeraketa hori zoriz uste zena baino pertsona gutxiagok egin dute. Hain zuzen ere, -2.2ko hondakinarekin. Erantzun kopurua handitzen joan dira zigorra astuntzen zen heinean. 46-55 urte artean ere joera errepikatzen da. 5-10 urteko espetxe zigorra espero zena baino gutxiagotan aukeratu baita (-2.1). Bizi arteko espetxe zigor berrikusgarriak, ordea, emaitza positiboak izan ditu, non uste baino pertsona gehiagok erabaki dute hau hautatzea (2.2).

Aipatu behar da, ezarriko lioketen zigorraren eta adinaren erlazioa nabarmenki esanguratsua dela ($p < 0.001$).

Birgizarteratzeko galderari dagokionez, emaitzak ere esanguratsutasun nabarmena erakutsi dute ($p < 0.001$). 14-18 urte artekoek eta 19-25 urte artekoek zoriz espero zena baina gehiagotan adierazi dute birgizarteratzea posiblea dela (Hondakina, -2.7 eta -3.5-ekoa izan da). Aldiz, 46-55 urte artekoek zoriz espero zena baino gutxiagotan aukeratu dute birgizarteratzea posiblea denik; hondakina -4.7koa izan baita.

Azkeneko galderan, adin konkretu batzuetan esanguratsutasuna eman dela ikusi da. 19-25 urte arteko gazteek zoriz uste zena baino gehiagotan adierazi dute (+3.6) hauen erantzunak aldatuko zituztela adingabekoen delitugile horrek tratamendu bat jaso duela jakingo balute. Aldiz, 56-65 urte artekoek uste baino gutxiagotan egin duten adierazpen hori (-2.4). Adinaren eta galdera honen arteko erlazioa oso esanguratsua izan da ($p < 0.01$).

9.3.-Eztabaida

Hasteko, lortutako laginari erreferentzia egin nahiko nioke. Izan ere, bertan generoari eta adinari erreparatuta, aniztasun handia lortu dela ondorioztatu daiteke. Hau da, inkesta hau mota guztietako pertsonak erantzun dute, emakumeak, gizonak, gazteak eta helduak. Gainera, ez da soilik Euskal Autonomia Erkidegoan zentratu, laginaren %29.6a gainontzeko espainiar estatukoa izan delako, eta 11 pertsonak atzerritik erantzun dutelako.

Hala ere, aipatu behar da adinari dagokionez, ez dela parte-hartze proportzionalik eman. Hau da, 19-25 eta 46-55 urte arteko pertsonen erantzunak nagusitzen direnez, hauen emaitzak esanguratsukoak izango dira.

Aurretik esan bezala, ikerketa honen helburuen artean aurkitzen zen gertuko pertsona bat izateak birgizarteratzean sinisteko izan dezakeen eragina aztertzea. Hala ere, erantzunak ikusita, dirudienez honek ez du eragin esanguratsurik erakusten ($p > 0.05$). Hala ere, aipatu behar da ezaugarri hau betetzen dutenek soilik laginaren % 11a adierazten dutela. Beraz, agian ez da nahikoa hauei buruzko ondorioak ateratzeko. Hala ere, eman dituzten erantzunak besteek eman dituztenen oso antzekoak direla azpimarratu behar da. Ondorioztatuko dugu, beraz, justiziarekin aurretiko kontaktua izateak ez duela adingabeen delitugile sexualen birgizarteratzearen kasuan, behintzat, eragin positiborik izango.

Gizartearen ustetan, erasotzaile sexuala berrerortzeko arrisku handia duen subjektua da, aldaketarako aukera gutxi dituztelaren ustea baitago. Redondo eta Mangotek (2017) adierazten dute, nahiz eta delitugile sexualen gehiengoak ez berrerori, datu hori kontrajarria dela gizarteak duen siniste edo iritziarekin. Hau da, pertsonak berrerortze hori altuagoa dela pentsatzen dutela adierazten dute aditu askok. Espainian sexu-delinkuentziaren prebalentziari buruzko ezjakintasun orokorra dago¹⁶⁸.

Inkestako laginaren gehiengoak berreortze hori %50a baino gehiago dela uste du. Ez hori bakarrik, izan ere %80ak baino gehiagok sexu delitugileen berrerortze hori %30a baino altuagoa dela adierazi dute. Baina, errealitateari erreparatzen badiogu, Hanson eta Bussierrek (2018) egindako lanari erreparatuta, zifra errealak %13 inguruan dagoela alegatzen da. Hau da, %10 eta 20 artean. Emaitza hau aukeratu dute soilik laginaren %13.7ak.

Hemendik ondorioztatu daiteke, adituen iritziarekin bat egiten dutela lortutako emaitzek. Hau da, pertsonak delitugile sexualen inguruko informazio desagokia dute. Hauen pertzepzio desagokiarengatik izan daiteke, edo iristen zaien informazioarengatik. Hemen zerikusi handia izango dute komunikabideek. Hitzuneko langileak adierazi zuen bezala, telebistako helburua entzuleak lortzea izan ohi da. Hortaz, hau irabazteko, askotan egia saihesten dute. Delitugintzarekin erlazionatutako gertaera batzuei buruz hitz egiten

¹⁶⁸ Marteache N., Martínez M. eta Pérez M. (2010) Comparación entre opinión pública y opinión pública meditada en relación a la delincuencia sexual; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Art. 7; No. 8 (13.Or.)

dutenean, erabiltzen duten modua dela eta, entzuleek subjektuek konponbiderik ez dutela pentsatzera eramaten dituzte.

Inkestatuek adierazi duten zigorrari dagokionez, atera daitekeen ondorio nagusia da adingabeen aurkako delitugintza sexuala oso gogor zigortu nahi den fenomeno dela. Izan ere, gehiengoak bizi arteko espetxe zigor berrikusgarria merezi dutela alegatu dute (210 pertsonak); 16 urte azpiko adingabe baten aurkako abusu sexual baten kasuan, intimidazio eta indarkeriarik gabe eman dena. Hau da, gutxienez 25 urtez igaro beharko duela espetxean irteteko aukera izan aurretik.

Zigor Kodera jotzen badugu, bertako 183.1.Artikuluari agertzen da, delitu hau espainiar estatuan 2 eta 6 urte arteko espetxe zigorrarekin zigortzen dela¹⁶⁹. Hau da, 10 urte baino gutxiagoko zigorra izango da. Inkesta honetan 10 urte baino gutxiagoko aukera hautatu duten pertsonak 50 baino ez dira izan. Gainontzekoek zigorra larriagoa izan beharko lukeela adierazten dute. Delinkuentziaren ustezko eskaera zorrotzago horrek herritar desinformatuak daudela adierazten du, zeinak gaiari buruzko ikuspegi oso kezkarria duten¹⁷⁰.

Sarrerari aipatu modura, delitugileen zigorren gorakada bat ari gara bizitzen gaur egun. Zeinak modu batera edo bestera askotan espetxeko populazioaren gorakada ekartzen duen. Legeak geroz eta zorrotzagoak egiten dira, zigor askatasun gabetzaileen iraupena geroz eta luzeagoak izanik. Honen guztiaren atzean egongo da inkesta honen erantzunak aztertzean ondorioztatu dezakeguna. Izan ere, pertsonak delitugileengan, eta bereziki delitugile sexualengan duten beldur horrek segurtasun eza dakar. Hori dela eta, estatuko botereei esku-hartzeak eskatzen dizkiete. Gainera, azken hamarkadetan, autore askok iritzi publikoa politika kriminalaren eta zigor-arloko legediaren eragin-iturri garrantzitsuenetako bat dela aztertu dute¹⁷¹.

Heriotza zigorra aukeratu duten pertsona kopurua baino ez da ikusi behar; 55 pertsonak aukeratu baitute zigor hau. Hau da, errealitatean aplikatzen den zigorra

¹⁶⁹ 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Kode Penalari; VIII Titulua; II bis Kapituluari; 183.1.Art.

¹⁷⁰ Marteache N., Martínez M. eta Pérez M. (2010) Comparación entre opinión pública y opinión pública meditada en relación a la delincuencia sexual; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Art. 7; No. 8 (2.Or.)

¹⁷¹ *Ibidem* (2.Or.)

aukeratu dutenek baino pertsona gehiagok. Hitzune proiektuko psikologoak elkarrizketan adierazi zuen bezala, delitu sexualak taboo antzeko bat dira gure gizartean. Are gehiago adingabeak bertan parte hartzen dutenean. Hortaz, ezaugarri horiek barneratzen dituen delitu bat gauzatzen duen pertsonak ahalik eta urrutien izan nahi dituzte.

Honekin lotuta, generoarekin eta adinarekin aurkitu ditugun erlazioak azaldu beharko lirateke. Izan ere, emaitzen arabera, bai inkesta erantzun dutenen generoak eta baita ere adinak, eragina erakutsi du zigor bat edo beste aukeratzeko orduan.

Generoari dagokionez, gizonezkoek emakumeek baino zigor arinagoak eskatu dituztela ikusi da. Izan ere, espero baino gehiagotan erabaki dute 10-15 urte arteko espetxe zigorra hautatzea. Aldiz, emakumeen kasuan espero baino gehiagotan erabaki dute biziarteko espetxe zigor berriusgarria aukeratzeko. Beraz, mutilek neskek baino zigor-jarrera txikiagoa erakutsi dute. Emaitza hauek esanguratsuak izan diren heinean, erlazioa erreal dela esan dezakegu.

Honen guztiaren arrazoiaren atzean kausa asko egon daitezkeen arren, zaila egin zait aurretiko inkestaren baten emaitzak lortzea. Baina, ziurrenik emakumeek urtetan zehar izan duten eta izaten jarraitzen duten biktimizazio sexualean egongo da oinarria. Hau da, emakumeak beti izan dira delitu sexualetan biktima potentzialak. Hortaz, egoera hori modu pertsonalagoan bizitu eta zigor astunagoa eskatzea ekar dezake. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu gizonek, emakumeek bezala, delitu hori benetan ezartzen dena baino zigor zorrotzagoarekin zigortu dutela.

Adinari dagokionez, erlazioa esanguratsuagoa izan dela adierazi dute emaitzek ($p < 0.001$). Beharrezko analisiak egin ondoren, 19-25 urte arteko gazteek zigor arinagoak eskatu dituztela adierazi da. Izan ere, txi-karratuari erreparatuta, 5-10 urte arteko espetxe zigorra zoriz uste zena baino gehiagotan aukeratu, haien joera delitua hain astun ez zigortzea izan dela ondorioztatu daiteke. Gainera, zigorra astuntzean zijoan heinean, aukeraketak urriagoak zirela ikusi daiteke.

Aldiz, 36-45 eta 46-55 urte arteko pertsonen kasuan, zigor larriagoak eskatu izan dira. Horien artean nagusitzen da, esate baterako, bizi arteko espetxe zigor berriusgarria. Zoriz uste zena baino gehiagotan aukeratu baitute hautabide hau. Zigor honek, dakigun bezala, 25 urtez espetxean egotea derrigortzen du. Hortik aurrera presoak irizpide batzuk

betez gero, irteteko aukera izango luke. Hala ere, bere etorkizuneko askatasuna ez da guztiz bermatua eta segurua izango.

Adituek adierazi duten bezala, oso zaila da delitugilearen birgizarteratzea ematea iraupen luzeko espetxe-zigorrek ezartzen badira. Ez hori bakarrik, izan ere, zigorrak gorgortzeak ez ditu nahitaez delituak gutxituko (Serrano, 2012). Hori dela eta, zigorrak astuntzeak ez du inongo onurarik ekarriko. Hala ere, ikusi da instituzioek eskaintzen dituen esku-hartzeak zigorrak astuntzean daudela oinarrituta askotan; gizarteko jendeak orokorrean eskatzen duenaren baitan.

Birgizarteratzeari buruz egin den galderari dagokionez, emaitzak oso argiak izan dira. Gizarteko kide batzuek hori posible dela adierazten dute, beste erdiak, ordea ezetz. Emaitzak oso parekatuak izan diren arren (%58.6 eta %41.4), ezetzkoa nagusitu da. Hau da, pertsona gehienak adingabeen delitugile sexualek aldatzeko gaitasun eza dutela adierazi dute.

Galdera honetan aurretik Ingalaterran egindako inkesta bat izan dut erreferentzizat. Izan ere, 2020.urtean YouGov enpresak, hau da, merkatuak ikertzeko eta datuak aztertzeko nazioarteko enpresak, biztanleriari delitu mota desberdinetako delitugileei buruz zuten iritzia azaltzea eskatu zien. Hain zuzen ere, birgizarteratzeko gai diren ala ez galdetuz. Adingabeen delitugile sexualei dagokienez, biztanleriko %12-ak soilik adierazi du birgizarteratze hori posible dela¹⁷². Hau da, guk lortutako emaitzekin alderatuz, askoz ere baxuagoa.

Alde batetik ulergarria gerta daiteke pertsonak hau sinistea; izan ere, ohiko interpretazioa da jokabide kriminalaren atzean patologia bat aurkitzea. Hots, askok gaizkileak buruko gaixoak direla pentsatzea¹⁷³. Hori dela eta, haien birgizarteratzea posiblea ez dela pentsa dezakete. Baina, errealitatean hori ez da horrela. Kasu zehatz batzuetan gerta daitekeen arren, kriminal oro ez baita gaixo mentala, eta gaixo mental orok ez du deliturik gauzaten¹⁷⁴.

¹⁷² YouGov (2020) Can criminals change for the better?

¹⁷³ Redondo S. (2017) *Evaluación y tratamiento de delinquentes: Jóvenes y Adultos*; Pirámide (46.Or.)

¹⁷⁴ Núñez M.C. eta López M.J. (2009) Psicopatología y delincuencia: Implicaciones en el concepto de imputabilidad; *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*; (2.Or.)

Hemen ere, zigorraren kasuaren antzera, erantzunen arteko alderapenak aurkitu dira adinari dagokionez. Izan ere, esanguratsutasun nabarmena erakutsi da hauen artean ($p > 0.001$). 14-18 eta 19-25 urte arteko pertsonak pertsona hauen birgizarteratzea posiblea dela adierazi dute. Nolabaiteko itzaropen bat erakutsiz. Aldiz, 46-55 urte artekoen artean ezetzkoa nagusitu da, modu esanguratsu batean. Argi dago, orain arteko emaitzek joera bat erakutsi dutela. Non gazteek birgizarteratzean gehiago sinisten duten, eta helduek zigorrera gehiago jotzen duten.

Delitugileek orokorrean birgizarteratzeko behar dituzten elementuak kontuan hartuta, galdera batzuk egitea pentsatu nuen. Izan ere, behin espetxetik irtenda pertsona hauek izango lituzketen aukerak zeintzuk diren jakitea ahalbidetzen digu. Emaitzak zeintzuk diren ikusita, adingabeen delitugile sexuak birgizarteratzeko elementuak lortzeko zailtasun handia izango dutela ondorioztatu daiteke.

Subjektu honen ondoan egoteari zuzendutako galderan, 0-10 arteko eskalan, 3.00ko batz-bestekoa lortu da. Baina, batz-bestekoari erreparatu baino, egokiagoa da moda aztertzea. Izan ere, pertsona gehienek 0 puntuazioa aukeratu dute (103 pertsonak). Hemendik ondorioztatu daiteke, jendea ez litzatekeela bat ere seguru egongo subjektu hauek inguruan izanez gero. YouGov-eko inkestan galdera hau egitea ere erabaki zuten, baina kasu honetan 0-100 arteko eskalan, 10-eko batz-bestekoa lortu zuten. Gure eskalara egokituz, 1.00ko puntuazioa lortuz.

Hemendik ondorioztatu daiteke, bai ingalaterran, bai gure inguruan, segurtasun hori baxua izango dela. Hala ere, estatu ingelesean lortutako emaitzak negatiboagoak dira. Zeinak bertako pertsonen birgizarteratzean duten sinismena zalantzan jartzen duen. Oso interesgarria izango litzateke gainontzeko herrialdeetan gai honi buruz duten iritzia jakitea, herrialdeen arteko alderapenak egiteko, alegia.

Aurreko aldagaiaren antzera, enplegua eskaintzeko eta bere laguna izateko probabilitatean lortutako puntuazio baxuak adingabeen delitugile sexuak birgizarteratzean izango luketen zailtasunak modu argian adierazten ditu. Izan ere, oso pertsona gutxi adierazten dute haien lagunak izatea edota enplegua eskainiko zietela. Honek guztiak, dakigun bezala, berrerortze hori oztopatzeko zailtasunak ekarriko ditu, ezingo baitute komunitatean guztiz integratu.

Bukatzeko, azken galderan tratamenduak izan dezakeen garrantzia ikusten dugu. Izan ere, gehiengoa ez diren arren, askok (%38.1) beren aurretiko erantzunak aldatuko lituzkete subjektuak tratamendua jaso duela jakinez gero. Hemendik ondorioztatu dezakegu, beraz, gizarteak tratamenduetan konfiantza adierazten duela; hau da, birgizarteratzean lagundu dezakeela pentsatzen baitute batzuek.

Hori dela eta, oso garrantzitsua izan daiteke tratamenduen arloa sakontzea. Horrez gain, hemendik ondorioztatu behar dugu, espetxetik irten den pertsona bat dela adierazi denean, askok ez dutela kontuan hartu litekeena dela pertsona horrek tratamendu bat jasan izana. Erantzunak aldatuko lituzketela esanda, aurretik elementu hori kontuan hartu ez dutela esan nahi duelako. Hortaz, ezinbestekoa izan beharko luke gizarteari orokorrean honen inguruko informazio gehiago ematea; birgizarteratze horretan lagundu bait dezake.

Adinari dagokionez, gazteek tratamenduaren elementua aintzat hartzen dutela ikusi daiteke. Izan ere, adinaren eragina esanguratsua dela adierazi dute emaitzek. 19-25 urte arteko gazteek uste baino gehiagotan ezarri dute erantzuna aldatuko luketela. Aldiz, 56-65 urte artekoek ez diote tratamenduari beharrezko garrantzia eman, haien iritzia aldatzen ez dela alegatzen baitute gehienek.

9.4.-Ondorioak

Eztabaidan aztertu dugunaren arabera, gizartearen joera zein den jakiteko aukera izan dugu. Orokorrean, jendeak delitugile sexualen inguruko informazio okerra dutela ikusten da. Hauek jasotzen duten informazioa distorsionatua baita, eta estigmatiz betea. Hori dela eta, adingabeen aurkako delitugileekiko duten iritzia ez da errealitatean oinarritua izango, baizik eta haien ustean oinarritua; hots, desinformazioan.

Gizarteak ere orokorrean izaera zigorgarria badu ere, delitu sexualen aurrean hori haratago joaten da. Non askok adingabeen aurkako abusu sexual baten aurrean bizi arteko espetxe zigor berrikusgarria eskatzen duten, eta batzuek heriotza zigorra eskatzera ere heldu diren. Hemen ikusi daiteke argi eta garbi zein den pertsona hauekiko jarrera. Kontuan izanik, hauen iritziak politika kriminalean izan dezakeen eragina, joera horrela jarraituz gero, etorkizun baten aurkitu dezakegun egoera oso zaila izan daiteke espetxeratuentzat.

Hala ere, oso emaitza positiboak lortu dira birgizarteratzeko aukerari dagokionez. Izan ere, uste baino pertsona gehiagok subjektu hauek berriro ere gizartean integratzeko aukera dutela adierazi dute. Nahiz eta oraindik ere, gehiengoak ezetzkoa adierazi. Berdina gertatzen da ere bigarren aukera bat merezi dutela adierazi dutenekin. Izan ere, askok baietzkoa adierazi duten arren, ezetzkoa nagusitzen da.

Baina, birgizarteratze horretarako beharrezkoak diren elementuen inguruko erantzunak aztertuz gero, ondorioztatu daiteke subjektuek zaila izango dutela gizartean txertatzeko. Kontraesankorra dirudien arren, pertsonak haien inguruan pertsona hauek nahi ez dituztela adierazten dute. Hau da, nahiz eta birgizarteratzean sinistu, haien lagunak izango ez zirela, inguruan nahi ez dituztela edota enplegua eskainiko ez ziotela adierazi dute askok.

Birgizarteratze hori posiblea ikusten duten arren, ez dira horretan parte-hartzen ikusten. Adingabeen delitugile sexuak bigarren aukera bat merezi duten arren, aukera hori ez diete haiek eskainiko. Dirudienez, nahiago dute beste batzuek egitea; arazoa ahalik eta urrutien izan nahi dutelako.

Adinari eta generoari dagokionez, aipamen berezia egin behar da. Izan ere, erantzunak begiratuta gizonezkoek erantzun integratzailegoak adierazi dituzte. Aldiz, emakumeak zigorgarriagoak izan dira, orokorrean. Bestalde, gazteenak diren pertsonak ere jarrera integratzailegoa adierazi dute, non gehiago sinisten duten birgizarteratzean eta zigor arinagoak eskatzen dituzten. Helduen joera, guztiz desberdina izan da; gehienek ikuspegi negatiboagoa dutelako pertsona hauengan.

Hau guztia dela eta, etorkizunera begira, delitugile sexualen eta zehazki, adingabeen aurkako delitugile sexualen egoera aldatu daitekeela pentsatu dezakegu. Badirudi pertsona gazteen joera aurrerakoiagoa dela; hortaz, jarrera horrekin jarraituz gero, baliteke etorkizunean esku-hartze desberdinak egiteko aukerak izatea, etsaiaren zuzenbidea alde batera utziz.

Ala eta guztiz ere, baieztapen hori egitea ez da guztiz egokia. Izan ere, heldu askok seme-alabak izanik, izan dezaketen ikuspegia desberdina izan daiteke. Hori dela eta, egokia izango litzateke orain erantzun duten pertsona hauei heldutasunera iristen direnean (kasu honetan 50 urte inguru) berriro ere galdera berdinak egitea. Ematen dituzten

emaitzak zeintzuk diren ikusi eta oraingo erantzunekin alderatuz gero, joera zein den ikusi dezakegu. Kontuan izan behar dugu ikerketa hau urbilpena baino ez dela izan.

Bestalde, beharrezkoa da ere Marteache, Martinez eta Pérez-ek (2010) horrelako inkestei buruz esan dutena kontuan hartzea. Izan ere, hauek oso azaletik neurtzen dute parte-hartzaileen iritzia. Kontuan izan behar dugu pertsona guztiek ez dutela gaiari buruzko informazio kantitate bera, eta ezagutza bera. Gainera, guztiek ez dute informazio hori iturri berdinetatik lortu. Hortaz, duten iritzia baldintzatua egongo da. Hau kontuan hartzea beharrezkoa da, lortutako emaitzak aztertzeke garaian.

10.-ESPETXETIK IRTEN OSTEAN EMATEN DIREN ESKU-HARTZEAK DELITUGILE SEXUALEKIN

Lan honetan zehar ikusi dugun bezala, delitugileek orokorrean gizartean berriro ere txertatzeko hainbat elementu behar dituzte; horretarako, kriminologoek eta beste hainbat adituek teoria desberdinak azaldu dituzte. Baina, delitugile sexualen kasuan, aukera hori ez dutela ikusi dugu. Izan ere, hauek gizartean duten estigmak duen garrantzia dela eta, askok isolamenduan eta baztertuak jarraitu behar dute haien bizitzak.

Gainera, gure inguruko pertsonak duten iritzia jasotzeko aukera ere izan dugu; zeinak aurretik aipatutako egoera hori indartzeko balio izan duen. Argi gelditu da biztanleriak orokorrean ez duela ia erlazorik izan nahi adingabeen aurkako delitua gauzatu duen pertsona batekin, nahiz eta honek jada ezarritako zigorra bete eta tratamendua jaso duten.

Hau guztia dela eta, pertsona hauekin zein motatako esku-hartzeak ematen diren aztertzea iruditu zait egokiena. Izan ere, elementu horiek ez dituztenez, nolabaiteko lana egin behar da hauek berriro ere deliturik ez gauzatzeko. Ikusiko dugunaren arabera, hainbat esku-hartze eta proiektu desberdin planteatu dira, zeinak bere eraginkortasuna izan duen modu batera edo bestera.

10.1.-Delitugile sexualen erregistroa: Lotsa sentiarazi

Kontuan izanik delitugileentzako orokorrean onuragarriak diren elementuak lortzeko zailtasunak izaten dutela erasotzaile sexualek, adituek hauen berrerortze tasa baxuaren arrazoia zein den ikertu nahi izan zuten. Izan ere, ordura arte erabili ziren teoria kriminologikoen ez zuten hauen prozesua ondo azaltzeko gaitasunik.

Ikusi dugunaren arabera, pertsona hauek komunitatean integratzeko izugarriko zailtasunak izaten dituzte, duten estigma dela eta. Hortaz, oso zaila da gizarteko pertsonak haiengana joatea eta nolabait hauek laguntzea. Hainbat ikerketen ostean, Burchfield eta

Mingusek aurkitu zuten, subjektu hauek senti dezaketen lotsak eragin handia izan dezakeela delituen gutxitzean¹⁷⁵.

Lotsaz ari garenean, Braithwaiten hitzetan, pertsona batengan damua sortu nahia da. Ingurukoen haien gaitzespena erakutsi eta pertsona horrengan lotsa sentiaraziz, berriro ere deliturik ez gauzatzea nahi da. Egin dutenaz damutzea da honen helburua. Horretara bideratutako prozesu sozial guztiak barneratuko ditu, beraz¹⁷⁶.

Lotsaren fenomeno delitugile sexualen aurka erabili izan den zerbait da urte askotan zehar. Izan ere, Estatu Batuetan eta beste herrialde batzuetan, pertsona hauek lotsa sentiarazteko, publikoak diren delitugile-sexualen erregistroak argitaratzen dituzte¹⁷⁷. Horrela, gizarteko edozein pertsonak jakin dezake zeintzuk diren inguruan dauden delitugile sexualak. Honek pertsonen arreta pizten du, eta pertsona hori kalean ikusiz gero, harengana ez gerturatzeko joera sustatuko du. Laburbilduz, preso egon den pertsona hori isolamendura eta bakardadera bultzatuko du.

Aurretik aipatu dugun delitugilearen etiketa hori desagertarazteko oztopoa baino ez da izango. Inguruko guztiek dakitenez zein den berak egindako delitua, denek horregatik epaituko dute eta ez dute beste modu batera ikusiko. Ondorioz, berak ere identitate berri bat sortzeko arazoak izango ditu. Beraz, oso zaila izan daiteke honen birgizarteratzea.

Hau kontuan izanik, bi kontzeptu desberdintzeko beharra dago. Izan ere, justizia errestitutiboaz ari garenean, askotan birgizarteratze terminoa ere erabiltzen dugu. Askok bi kontzeptu hauek batera joan behar dutela pentsatzen dutelako. Baina, lotsaren fenomeno honekin bi kontzeptu hauek desberdintzeko aukera dugu. Izan ere, berrerortzeaz ari garenean, delitugileak berriro ere deliturik ez gauzatzeaz ari gara. Lotsarekin lortu daitekeena, esate baterako. Aldiz, nahiz eta hori lortu, subjektuak ez du

¹⁷⁵ Gil M. (2020) *Factores de inicio y desistimiento delictivo en delinquentes sexuales encarcelados*; Bartzelonako Unibertsitatea; Tesis Doctoral (130.Or.)

¹⁷⁶ McAlinden A. (2005) The use of “shame” with sexual offenders; *The British Journal of Criminology*; 45 (3) ; (376.Or.)

¹⁷⁷ *Ibidem* (374.Or.)

aukerarik izango komunitatean integratua izateko, guztiek delitugiletzat hartuko baitute. McAlindek (2005) hori adierazten zuen bere ikerlanean.

Beraz, hemen bi aspektu horiek kontuan izanda, lehenesten den elementua berrerortzea oztopatzea dela ikusten da. Pertsonaren birgizarteratzea guztiz zailduz, biktima gehiago ez egotea lortu nahi delako.

Eraginkortasunari dagokionez, hainbat adituek esku-hartze hau aztertzea erabaki zuten. Hala ere, oraindik ez da ikerketa gehiegirik egin honi buruz (Alonso, 2013). Hala ere, egin diren azterketa gehienek ez dute eragin positibo esanguratsurik aurkitu delitugile sexualen berrerortze tasan (Fernández-Pacheco, 2014; Tauzy, 2019).

Esate baterako, ikerketa batean 180 delitugile sexualeko lagina erabili zen, non 90 erregistroan ezarri ziren eta beste erdia kontrol taldea osatzen zuten. Berrerortzeari dagokionez, esan bezala, ez zen desberdintasun handirik aurkitu. Hala ere, pertsona erregistratuak zeuden pertsonak modu azkarragoan atxilotzeko aukera izan zuten¹⁷⁸.

Kontuan izan behar dugu ere, Estatu Batuetan geroz eta pertsona gehiago ari direla erregistro horretan sartzen. Hortaz, honen eraginkortasuna jaisten doala esan dezakegu. Azken batean, geroz eta pertsona gehiago egon bertan, orduan eta zailagoa da hauen gaineko kontrol bat ezartzea. Batzuen ustez, emaitza hobekak ekarriko lituzke arrisku gehien dituzten pertsonak soilik ezartzea¹⁷⁹.

Berrerortze tasaren jaitsiera ez ezartzeaz gain, birgizarteratzean ondorio negatiboak ekarri ditu¹⁸⁰. Izan ere, Floridan 2005ean eman zen ikerketa batean ikusi zenaren arabera, erregistro horretan parte hartu zuten subjektuen herenak ondorio

¹⁷⁸ Alonso N. (2013) *¿Son la castración química y el registro de ofensores sexuales la solución?*; Miguel Hernandez Unibertsitatea; Valencia; Trabajo de Fin de Master (25.Or.)

¹⁷⁹ Fernández-Pacheco C. (2014) Registros de delincuentes sexuales y prevención del delito. Análisis de la experiencia estadounidense; *Estudios Penales y Criminológicos*; Vol. 34; (410.Or)

¹⁸⁰ Tauzy K. (2019) *Ofensores sexuales: tratamientos, efectividad y adherencia. Una revisión sistemática cualitativa*; Universidad de la República; Trabajo final de grado (Uruguay) (21.Or.)

negatiboak pairatu zituen. Ondorio horien artean aurkitzen dira, esate baterako, enpleguaren galera, eta mehatxuak (Fernández-Pacheco, 2014).

Estatu Batuetan ez ezik, Ingalaterran ere ondorio negatiboak izan ditu. Izan ere, jasaten zuten presio soziala zela eta, eta jaso zituzten mehatxu desberdinen ondorioz, subjektu batzuek bere buruaz beste egiten bukatu zuten¹⁸¹.

Hau guztia kontuan izanik, bi ondorio atera ditzakegu. Lehenik eta behin, gaur egun hain presente izaten ari den eta hainbeste aldiz errepikatu dudan estigmazizazio hori onuragarria izan daitekeela dirudien arren, emaitza oso positiboak izan ez direla ikusi da. Bigarrena ere negatiboa izango da; izan ere, pertsona hauek ez dute ia aukerarik izango komunitatearen parte izan eta horrela sentitzeko. Hau da, birgizarteratze duin bat izateko. (McAlinden et al., 2017) Erregistroek prozesu hori guztiz zailduko dute, batzuek bere buruaz beste egitera ere eramanaz.

10.2.-Circles of Support and Accountability

Aurretik aipatu dugun esku-hartze hori berrerortzea mugatzean zentratu bada, birgizarteratzea guztiz alde batera utziz; kasu honetan kontrako muturrean dagoen proiektu bat ezagutuko dugu: Kanadan sortu zen Circles of Support and Accountability programa. Hauen helburua izango da, espetxetik irteten diren delitugile sexualei nolabaiteko sostengu soziala eskaintzea, hauen birgizarteratzea indartu eta berrerortzea oztopatzeko. Hau da, berrerortzea helburutzat izango duen arren, oinarria birgizarteratzean egongo da.

Kanadan sortu zen proiektu honek berrerortzean zuen eraginkortasuna zela eta, beste herrialde batzuk hau aplikatzen hastea erabaki zuten. Horien artean aurkitzen da, esate baterako, espainiar herrialdea¹⁸².artzelona hirian ari dira honekin lanean, erregimen irekian eta baldintzapeko askatasunean aurkitzen diren delitugile sexualekin.

¹⁸¹ Fernández-Pacheco C. (2014) Registros de delincuentes sexuales y prevención del delito. Análisis de la experiencia estadounidense; *Estudios Penales y Criminológicos*; Vol. 34; 412.Or.

¹⁸² Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (24.Or.)

Proiektua antzekoa bada ere, izena aldatzea erabaki zuten, CerclesCat izenarekin da ezaguna.

Proiektu honen helburu nagusia hauek gizartean izango duten integrazioa ahalik eta modu errazenean egitea izango da. Izan ere, pertsona hauek delitugileek modu natural batean lortu ezin dituzten sostengu hori eskaini behar die, kontrol sozial informal modura jardunez. Hau lortzeko, hiru mekanismo erabiltzen dituzte: sostengua, mantenua eta ikuskapena; ezinbestekoa izango direnak berrerortzea eteteko¹⁸³.

Esan bezala, boluntario zirkulu batek espetxetik askatu berri duten sexu-delitugile ohia izan den pertsona bati laguntza eta babesa soziala eman beharko dio¹⁸⁴. García eta Solerrek (2013) diotenaren arabera, egokia litzateke talde horretan adinaren, generoaren, prestakuntzaren eta gaitasunen aniztasuna egotea. Horrela gizabanakoaren beharretara egokitzeko ahalmen handiagoa izango dute.

Horrez gain, zirkulu horrek espazio seguru bat ere eskaintzen dio, non bere historia personala kontatzeko aukera izango duen eta ez du inongo ondorio negatiborik izango (García eta Soler, 2013). Honi esker, identitate narratibo berri bat eraikitzeko gaitasuna lortu dezake subjektu honek, beste modu batera lor ezin dezakeena.

Boluntarioak diren pertsona hauek, bestalde, sostengu tekniko eta emozionala jaso beharko dute, adituek eskainiko diena. Gainera, hauen artean dagoen komunikazioak, alde positibo asko ekar ditzake. Izan ere, pertsona hauek delitua gauzatu daitekeelaren susmoa izanez gero, interbentzio zuzena eta azkarra egin daiteke. Aipatutako adituek kanpoko zirkulu hori sortuko dute.

Hau guztia zuzentzeko, ezinbestekoa da ere proiektuaren koordinatzailea haien esanetara egotea¹⁸⁵. Aipatutako pertsona hauek, hau da, adituak direnak ez dute inolako kontakturik izango espetxetik irten diren pertsonekin, hori soilik boluntarioen jarduna izango baita. Pertsona hau, normalean erasotzaile sexualen tratamenduan aditua izaten da,

¹⁸³ García, C. eta Soler C. (2013) Evaluación de necesidades y diseño de la intervención para la reintegración social de los delincuentes sexuales de alto riesgo; *Àmbit social i criminològic*; Generalitat de Catalunya. (23.Or.)


¹⁸⁴ Redondo S. eta Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica; *e-Eguzkilore Zientzia Kriminologikoen Aldizkari Elektronikoa*, 2.Zenbakia (24.Or.)

¹⁸⁵ Ídem

espetxean eskarmentua izan duena¹⁸⁶. Koordinatzailea den honek egingo du barneko zirkuluaren eta kanpoko zirkuluaren arteko bitartekaritza.

Hemen beheko taulan ikusi daiteke, modu argiago batean nolakoa izango den proiektu honen egitura.

1.Irudia: *Circles of Support and Accountability programaren egitura.. Elaborazioa: nik neuk egina.*



Iturria: García, C. eta Soler C. (2013)

Guztira, normalean 18 hilabeteko iraupena izaten du proiektu honek, eta emaitza honak erakutsi dituela ondorioztatu da ikerketa desberdinen bidez. Hala eta guztiz ere, proiektua berria den heinean, oraindik ebaluaketa asko egin behar dira, eta beharrezko neurriak hartu. Hala ere, esku-hartze potentzialki eraginkorra da arrisku ertaineko eta handiko sexu-delitugileen berrerortzean eta erreiterazioari dagokionez (Nguyen, et al. (2014).

¹⁸⁶ Nguyen T., Frerich N. et al. (2014) Reinserción y gestión del riesgo de reincidencia en agresores sexuales excarcelados: el proyecto “Círculos de Apoyo y Responsabilidad” en Cataluña; *Boletín Criminológico*; Art.4; No. 151 (3.Or.)

4.Taula: *Circles of Support and Accountability programaren eraginkortasuna neurtu duten ebaluazioak. Elaborazioa: Nguyen T. et. Al.*

Estudio	Lugar de aplicación	Reincidencia	Grupo CoSA	Grupo Control	Tiempo de seguimiento medio (meses)
Bates y otros (2013)	Reino Unido	Reincidencia sexual o violenta	(n=71) 4,2%	(n=71) 16,9%	55
Duwe (2012)	Minnesota (USA)	Nueva detención delito sexual Nueva detención cualquier delito Nueva condena Revocación libertad condicional Nueva entrada en prisión	(n=31) 0,0% 38,7% 9,7% 48,1% 48,4%	(n=31) 3,2% 64,5% 45,2% 68,0% 61,3%	55
Wilson, Cortoni y McWhinnie (2009)	Ontario (Canadá)	Reincidencia sexual Reincidencia violenta (incluida sexual) Reincidencia general (incluida violenta y sexual)	(n=44) 2,3% 9,1% 11,3%	(n=44) 13,7% 34,1% 38,6%	36
Wilson, Cortoni y Vermani (2007)	Canadá	Reincidencia sexual Reincidencia violenta (incluida sexual) Reincidencia general (incluida violenta y sexual)	(n=47) 2,1% 8,5% 10,6%	(n=47) 12,7% 32,0% 38,3%	33
Wilson, Picheca y Prinzo (2005)	Ontario (Canadá)	Reincidencia sexual Reincidencia violenta (incluida sexual) Reincidencia general (incluida violenta y sexual)	(n=60) 5,0% 15,0% 28,3%	(n=60) 16,7% 35,0% 43,4%	53

Iturria: Nguyen T. et. Al. (2014)

Taula honetan ikusi daitekeenez, Erresuma Batuan, Estatu Batuetan eta Kanadan egindako ebaluaketek emaitza favoragarriak izan dituzte. Izan ere, Circles programa horretan parte hartu duten pertsonen artean, sexu delituetako berrerortzea ez da %5etik igo. Aldiz, proiektuan parte hartu ez dutenen tasa, %10 baino gehiagokoa izan da kasu gehienetan.

Kontuan izanik emaitza horien artean dagoen desberdintasun esanguratsua, argi dago delitugile sexualentzat bideratua dagoen tratamendu hau oso eraginkorra izan daitekeela. Gizartean normalean izaten ez duten sostengu sozial hori eskaintzen zaie, eta nolabait komunitatearen parte direla erakusten zaie. Gainera, haiekin erlazio normalak izateak haiek duten delitugile etiketa hori desagertaraztea ekar dezake.

Hau da, aurretik aipatu bezala, hainbat faktorek delitugintza behin-betiko uztera eraman dezakete. Hauek izan ezean, zaila izango da hauentzako bizitza berri bat hastea eta delituei uko egitea. Proiektu honen egikizuna da pertsona hauen gabeziei erantzun bat ematea, eta gizarte honetan txertatzen saiatzea. Izan ere, ezin izango dute hau guztia lortu modu naturalean, gizarteak hauengan duten ikuspegia kontuan hartuz gero.

Bestalde, modu batera ondorioztatu dezakegu, delitugile sexualak behin espexetik irtenda, aukerak aprobetxatu egiten dituztela. Berdina gertatuko litzateke,

ziurrenik gainontzeko delitugileekin. Gizartearen onurarako den proiektua izanik, beharrezkoa izan beharko luke honen edo beste programa batzuen inplantazioa. Horretarako, beste gauza askotarako bezala, beharrezkoa izango dira diru laguntzak.

10.2.1.-Euskal Herriko kasua

Asko aztertu ondoren, Euskal Herrian Circles programa ez dela ikusi nuen. Hala ere, badira elkarte batzuk delitugile sexualei laguntzen saiatzen direnak, modu batera ez bada, bestera. Kasu honetan, Hitzune proiektuari buruz hitz egin beharko litzateke.

Proiektu honen helburua arreta psikologiko eta psikoterapeutikoko zerbitzua ematea da, delitu sexualak egin dituzten eta hirugarren graduan edo baldintzapeko askatasunean dauden presoek. Izan ere, hauek birgizarteratze hobea dutela ziurtatzeaz gain, hauen berrerortzeko arriskuak mugatu nahi dituzte. Honen inguruko informazio zehatza lortzeko, Hitzune proiektuko psikologoarekin hitz egiteko aukera izan nuen.

Proiektu hau 2014an sortu zen, Basauriko espetxeko tratamenduko zuzendari ordea Agintzari kooperatibarekin kontaktuan jarri zenean. Kooperatiba horretan, aurretik abusu sexualen inguruko gaia jorratzen zen. Baina, dakigun bezala, ez zegoen proiekturik delitugileen birgizarteratzeraz zuzendua zegoena. Espetxeko langile hau subjektu hauek behin espetxetik irteten hasten zirenean izango zituzten zailtasun eta beharrez konturatu, eta bertara laguntza eske joan zen. Izan ere, asko zigorra betetzear zezudela, kalean bizitzeko eta arauetara egokitze zailtasunak izango zituztela adierazten zuten. Hortaz, egokia iruditzen zitzaion sostengu hori emango zion proiektua abian jartzea. Kooperatibak beharra ikusi eta urrian bertan saioekin hasia erabaki zen, Hitzune proiektuari hasiera emanez.

Bertan orientazio psikoanalitikoak duten terapia indibidualak egiten dira. Subjektuaren inkontzientearekin lan egiten da. Kontuan izan behar dugu hemen ez duela edonork parte hartzen, honen erabilera ona egin dezaketenak baizik. Hau da, dituzten baliabide ekonomiko urriak direla eta, ezin dituzte nahi bezain beste pertsona tratatu. Hasi zirenetik, esate baterako, 45 bat pertsona izan dituzte terapian. Hortaz, ondo aukeratu behar dira bertan parte hartuko duten pertsonak, boluntarioa izan behar du, eta aldaketarako motibazioa izan behar dute. Dirudienez, bertan parte hartu duen inorrek ez du berriro ere deliturik gauzatu, ez tipologia sexualekoa, ezta beste edozein delitu ere.

Elkarrizketatuari aurretik aipatu dugun Circles proiektuari buruz galdetzean, bere iritzia argi adierazi zuen. Hitzune proiektuaren helburua Circles proiektuarekin bat egiten zutenez, bere garaian Kataluniarekin kontaktuan jartzea erabaki zuten. Oso interesgarria iruditzen zitzairen arren, honek ekartzen zituen onurak zirela eta, guztiak eskatzen zuen lanak atzera bota zien.

Proiektu honen eraginkortasuna duen egituran datza, non zirkulu horiek egotea beharrezkoa den. Kontuan izanik Hitzune programak ez duela ia finantzaketarik eta langileen kopurua urriaren ondorioz, ezinezkoa egin zitzairen hori guztia abian jartzea. Berak behin baino gehiagotan adierazi zuen, taldeko lanak onura asko ekarriko lituzkeela subjektu hauen terapian, baina baliabide ezaren ondorioz, ezin da gehiago lortu.

Hau guztia kontuan izanik, argi dago programa mota hauek eraginkortasuna badutela, eta gizarte guztiarentzako onurak ekartzen dituela; bai delitugileentzat, baita biztanleentzat ere. Hortaz, beharrezkoa da hauek indartzea, ahalik eta baliabide gehien eskainiz. Baina, errealitatean asko laguntza gabe aurkitzen direla ikusi daiteke. Erakunde publikoek ere hauei bizkarra ematen baitie.

11.-ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA

Ikerketa honen ondorioekin hasteko, beharrezkoa da hasierara joatea. Izan ere, ikusi dugu adingabeen aurkako delitugintza sexuala pedofiliarekin oso lotua dagoen fenomeno dela. Hala eta guztiz ere, argi izan behar dugu adingabeen delitugile sexual guztiak ez direla pedofiloak. Gizartean horren ustea dagoen arren, soilik erasotzaileen %30-50ak betetzen bait ditu irizpide horiek.

Haurren sexualitatea gizartean taboo-a den gaia da; estigma sozial handia sortu dezakeena. Hori dela eta, pedofilo askok haien orientazioa ezkutuan gordetzea erabakitzen dute. Hau arazo larria izan daiteke; izan ere, pedofilo gehienek kalterik sortzen ez duten arren, gerta liteke baten bati desira eta bulkada sexualak haratago joatea, eta delitu sexual bat gauzatzeko bukatzea. Hori kontrolatu eta haien pentsamenduak beste noranzko batera eramateko, oso egokia izan daiteke tratamendua jasotzea.

Baina, adituek adierazi dutenez, pedofilia bezalako parafilia bat duten pertsonak ez dute tratamenduetara borondatez jotzen. Gai honek duen estigma ez ezik, askok desira eta pentsamendu horiek normaltasunaren barnean daudela pentsatzen bait dute. Ondorioz, gehienetan esku-hartze hori jasotzera iristen diren subjektuak, jada justiziarekin kontaktua izan duten horiek dira. Hots, adingabeen aurkako abusu edo eraso sexual bat gauzatu dutenak.

Lan honen lehenengo helburuari dagokionez; hau da, espetxean adingabeen delitugile sexuak duten egoera azaltzeari dagokionez, Zaballako espetxeko psikologoari esker informazioa lortzeko aukera izan dugu. 2001. urtetik aurrera abian jarri ziren errespetuzko moduluak direla eta, gaur egun delitugile hauek espetxean integrazio egokia izateko aukera dute. Hau da, denbora luzean zehar izan duten bazterketa hori nolabait eten egin dela esan dezakegu. Proiektu honek eskaintzen dituen onurak direla eta. Honek, dakigun bezala, onura handiak ekarriko ditu haien birgizarteratzean; gainontzekoekin harremanduz, gaitasun sozial handiak lortzeko aukera izango dutelako.

Bigarren helburuak lotuta, hainbat ikerketetako emaitzak ikusi ondoren, argi gelditu da tratamendu gehienek emaitza oso positiboak erakutsi dituztela. Hau da, berrerortze-tasa hori jaisteko gai direla. Hain zuzen ere, askok tasa hori %10 azpian kokatzera heltzen dira. Beraz, ondorioztatu dezakegu delitugile sexuarekin ezartzen diren

tratamenduek espero ziren emaitzak lortzen dituela. Hau da, hauek aplikatuz gero, etorkizunean gerta daitezkeen delituak murrizten direla.

Hala ere, Zaballako espetxeko psikologoak adierazi bezala, beharrezkoa izan beharko luke adingabeen erasotzaile sexualen eta helduen erasotzaile sexualen arteko bereizketa bat egitea. Ikusi denaren arabera, espainiar estatuan delitugile sexual guztiak tratamendu berarekin tratatzen dira, denak batera, inongo bereizketarik egin gabe. Baina, hauen artean desberdintasunak dauden heinean, beharrezkoa izan beharko luke hauek bereiztea.

Alde praktikoan ikusi da, behin tratamenduaren istorio pertsonalen fasera iristen direnean, zaila izan daitekeela adingabeen erasotzaile sexualentzat haien istorioa kontatzea. Izan ere, adingabeen sexualitatea gizarteko taboo-a izanik, presoan artean ere estigmak sortzera eraman dezake. Hau da, erasotzaile sexualen artean ere, pederasten irudia estigmatizatua dago. Hortaz, tratamenduaren eraginkortasuna bermatzeko, beharrezkoa da delitugile hauek guztizko askatasuna izan dezaten, konfiantza transmititzea eta segurtasuna bermatzea.

Azkeneko ideia aztertzean, hainbat aspektu aztertu dira. Delitugile hauekin egiten diren tratamenduak oso eraginkorrak direla ikusi den arren, gizarteak hauengan duen iritzia oso negatiboa izaten jarraitzen duela ikusi da. Hots, nahiz eta emaitza oso positiboak lortu, oraindik ere delitugile sexual mota honek kezka eta segurtasun eza handia ekartzen du. Honen atzean egon daitezkeen arrazoia izanik gizarteak duen desinformazio nabaria.

Inkestako emaitzek adierazi dute argi eta garbi, gizarteko kide askok -gehiengoak-, hauen berrerortzea %50a baino handiagoa dela uste dutela. Hau da, erdiek baino gehiagok behin espetxetik irtenda berriro ere delitu sexual bat gauzatzen dutela adierazi dute. Baina, tratamenduen eraginkortasunaren emaitzek adierazi dutenaren arabera, uste hori guztiz oker dagoela ikusi da. Ez soilik tratamendua jaso dutenengatik, jasotzen ez dutenek ere %20 inguruko berrerortze tasa izan ohi bait dute.

Duten informazio horrek kezka ez ezik, estigma sozial handia sortzen du delitugile hauengan. Honek ikusi dugun bezala, haien birgizarteratzean guztizko eragina izango du. Izan ere, askok espetxetik irteten diren unean aukerarik gabe aurkitzen dira. Erlazio

sozialak egiteko ezintasunean egoten dira; lanpostu bat bilatzeko zailtasunak handiak izango dituzte eta orokorrean gizartetik aldenduak eta baztertuak bizi beharko dute askok.

Honek dakigun bezala, bere ondorioak izango ditu. Ez soilik subjektuentzat, baizik eta gizarte guztiarentzat. Izan ere, birgizarteratze duin bat izateko, beharrezkoak diren elementuen gabeziaren aurrean, gerta liteke batzuek berriro ere delitu bat gauzatzen bukatzea. Delitugintza behin-betiko uzteko elementuak baitira enplegua, kapital soziala eta familia. Hori izan ezean, berrerortze hori ekiditeko baliabideak faltan izango dituztela ondorioztatu daiteke.

Horrez gain, delitugintza behin-betiko uzteko beste elementua identitate berriarena da. Honek diotenaren arabera, beharrezkoa izango da subjektuak berak sinistea bera ez dela delitugilea. Hau da, aldatu egin dela, eta bizitza prosoziala jarraitzeko aukera izango duela. Baina, sortzen den estigma horrek hori ezinezko bihurtzen du. Izan ere, gizarteak erakusten duen harrera horrek pertsonaren bakardadea eta isolamendua dakar. Hau da, oso zaila egingo zaie identitate berria sortzea, gainontzekoek delitugile etiketarekin ezagutzen badute. Arazo hau haratago joango da, delitugile sexualen erregistroan ezartzen baditugu.

Inkestari esker ere ikusi dugu, gizarteak jarrera oso zigortzailea erakusten duela pertsona hauekiko. Izan ere, indarkeria eta larderia erabili ez den abusu sexualen kasuan, gehienek biziarteko espetxe zigor berrikusgarria erakutsi dute. Horrez gain, 50 pertsonak baino gehiagok heriotza zigorra merezi dutela adierazi dute. Hemen argi gelditzen da askok ez lioketela bigarren aukerarik eskainiko delitu mota hau egin duen subjektuari. Nolabait gizartetik aldendu nahi dituzte, pertsona desbideratutzat hartuz. Aldatzeko gaitasunik ez dutela pentsatu eta arazoa gainetik kendu nahi dute.

Argi dago adingabeen aurkako delitugile sexualen fenomenoak biktima asko sortzen dituela. Gainera, biktimengan ondorio psikologiko zein fisiko asko sortu ditzake. Hori dela eta, beharrezko esku-hartzeak hartu behar dira, aurrezaintza modura, ahalik eta delitu gehien ekiditeko. Baina, gizartean dagoen desinformazio honek kalteak baino ez ditu sortzen.

Delitugilearen beraren eta erakundearen eginkizuna bada ere, subjektu hauen birgizarteratzea ez dago soilik haien esku. Gizarte guztiaren betebeharra izan beharko luke horretan ahal den heinean laguntzea, zaila izan badaiteke ere. Pertsona hauek berriro ere deliturik ez gauzatzea, guztien onurarako izan daitekeelako.

Argi gelditu da adingabeen delitugileen kasuan, ezin dutela gainontzeko delitugileek jarraitzen duten birgizarteratze prozesu berdina izan, bereziki estigmatizatua den taldea baita. Hots, enplegua lortzeko zailtasunak dituzte, kapital sozial urria dute eta familiarekin ere askok, arazoak izaten dituzte. Gogoratu besterik ez da, adingabeen eraso sexual gehienetan biktima familiarra izan ohi dela. Zailtasun hauen guztien aurrean, erakunde desberdinek erantzun bat emateko saiakerak egin dituztela ikusi da. Horretarako, estrategia desberdinak erabiliz.

Alde batetik, lotsaren fenomenoaren nagusitasuna ikusten dugu. Delitugile sexualen erregistroen bidez, espetxetik irteten diren erasotzaileak kontrolpean izatea ziurtatu nahi da. Baina, hauek publiko eginez, subjektu hauen birgizarteratzeko aukerak guztiz oztopatzen dituzte. Gainera, ikusi da hauen eraginkortasuna ez dela guztiz frogatu, emaitzetan eragin esanguratsua aurkitu ez baita. Aldiz, Circles of Support and Accountability bezalako programek, berrerortzearen ekiditeari garrantzia eman ez ezik, birgizarteratzerako baliabideak eskaintzen dituzten programek, emaitza oso positiboak erakutsi dituzte. Hau da, behin espetxetik irteten diren subjektuek beharrezko kapital soziala izateko baliabideak eskaintzen zaizkie; integrazian laguntzeaz gain, hauen identitate berriak sortzen lagunduz.

Hala ere, ikusi da espainiar estatuan oraindik programak hauek ez dutela garrantzia handiegirik. Aipatutako Circles of Support and Accountability programa soilik Katalunian aurkitu dezakegu orain arte. Orokorrean behin espetxetik irteten direnean oso gutxik izango dute nolabaiteko laguntza gizartean berriro ere txertatzeko. Gainera, laguntza hori gehienetan erakunde independente batzuegandik jasotzen da, zeinak modu altruista batean delitugile mota honen birgizarteratzean lagundu nahi dute. Honen adibide garbia da Agintzari kooperatibako Hitzune proiektua. Elkarrizketan ikusi dugun bezala, pertsonen birgizarteratzearen indartzean eta berrerortzearen ekiditean asko lagundu duena. 2015ean lanean hasi zirenetik, bertako subjektu batek ere ez, ez du berriro deliturik gauzatu; ez sexuala, ezta beste mota batekoa ere.

Bukatzeko, aipamena egin nahiko nioke lan honetan zehar jaso dudan ideia bati. Delitugile hauek behin espetxetik irteten direnean, eta aske direnean, inongo laguntzarik ez dutela ikusi da. Erakundeek ere bakarrik uzten dituzte, arazoa haiena ez dela pentsaraziz. Esan bezala, gizartearen laguntza behar da, baina hori oso zaila gerta liteke honen eskuduntza duten erakunde eta instituzioek ere alde batera begiratzen badute. Hitzune proiektuaren kasuan argi ikusi da, adibidez. Botere publikoek ez dute ia lanik egiten delitugile sexualei erantzun bat emateko, eta haien integrazio sozialean laguntzeko.

Lan handia egin behar da delitugile sexualen birgizarteratzean; ikusi baita egin diren esku-hartzeek eraginkortasuna izan dezaketela. Baina, horretarako, beharrezkoa da guztien elkarlana sustatzea; justizia sistemak ez ezik, gainontzeko erakundeek eta gizarteak berak lagundu egin behar duelako; guztion onurarako den heinean.

12.-BIBLIOGRAFIA

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Kode Penalak; VIII Titulua; II bis Kapituluak; 183.1.Art.
- Adshad G., Howett M. eta Mason F. (1994) Women Who Sexually Abuse Children: The Undiscovered Country; *The Journal of Sexual Aggression*, Vol. 1 No. 1
- Alonso N. (2013) *¿Son la castración química y el registro de ofensores sexuales la solución?*; Miguel Hernandez Unibertsitatea; Valencia; Trabajo de Fin de Master
- Alqueza, C. et al. (2014) Servicio criminológico de supervisión, apoyo y control de excarcelados en la comunidad; *Sociedad española de investigación criminológica* (Seic) 16-24.or.
- Arabako espetxe zentroa (2017) *Manual de Bienvenida: Editado por las Comisiones del Módulo de Respeto 4*
- American Psychiatric Association (1980) *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (3rd Ed.)
- American Psychiatric Association (1994). *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (4th Ed.)
- American Psychiatric Association (2013) *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (5th Ed.)
- Balbuena F. (2014) Cartografiando la pedofilia: eficacia de los tratamientos y estrategias futuras; *Apuntes de Psicología*, Vol. 32, No. 3
- Bates, A. et al. (2014) Circles South East: The First 10 Years 2002-2012; *International Journal of Offender Therapy and Comparative Criminology*, Vol. 58, 561-885 or.
- Beech A. R. et al. (2009); Assessing female sexual offenders motivations and congitions: an exploratory study; *Psychology, Crime and Law*; Vol. 15 Nos. 2 eta 3

- Capdevila M. eta Ferrer M. (2009) Tasa de Reincidencia penitenciaria 2008; *Àmbit social i criminològic; Generalitat de Catalunya*. Barcelona
- Capponi, R. (2002) La Pedofilia; *Revista Mensaje*, Vol.51 No. 509
- Cid Moline J. (1998) Derecho a la reinserción social: Consideraciones a propósito de la reciente jurisprudencia constitucional en materia de permisos; *Revista de Estudios Socioeducativos*. 36-48 or.
- Constitución española (BOE núm.311, de 29 de diciembre de 1978). 25.Art.
- Crooks R. eta Baur K. (2010) Nuestra sexualidad; *Cengage Learning Editors*: México
- Dillien T. et al. (2020) The neuropsychology of child sexual offending: A systematic review; *Aggression and Violent Behavior* 54
- Echeburúa, E. (2019). *Personalidades Violentas*. Pirámide
- Echeburúa E. et al. (2009) ¿Qué hacer con los agresores sexuales reincidentes?; *Interrogantes de la Fundación Víctor Grífols i Lucas*
- Fernández-Pacheco C. (2014) Registros de delincuentes sexuales y prevención del delito. Análisis de la experiencia estadounidense; *Estudios Penales y Criminológicos*; Vol. 34; 383-422.or.
- Flores A. (N.F.); Puesta al día: Parafilias
- Flórez K. (2019) *Factores determinantes del desistimiento de carreras delictivas en mujeres guerrilleras en prisiones colombianas*; Lleidako Unibertsitatea Tesis Doctoral (Lleida)
- Fromberger P., et al. (2013) *Pedophilia: etiology, diagnostics and therapy*
- Gancebo Y., Amado G. eta Arce R. (2018) Prevalencia de los delitos de agresión sexual en España
- García, C. eta Soler C. (2013) Evaluación de necesidades y diseño de la intervención para la reintegración social de los delincuentes sexuales de alto riesgo; *Àmbit social i criminològic; Generalitat de Catalunya*.

- Gil M. (2020) *Factores de inicio y desistimiento delictivo en delincuentes sexuales encarcelados*; Bartzelonako Unibertsitatea; Tesis Doctoral
- Goldhill R. (2013) What was she thinking? Women who sexually offend against children - implications for probation practice ; *Probation Journal* 60
- González E., Martínez V. et al. (2004); Características de los abusadores sexuales; *Revista Sogia* 11
- González Cussac José L, Matallín Evangelio Ángela, & Górriz Royo Elena. (2015). *Comentarios a la reforma del código penal de 2015*. Tirant lo Blanch
- González Sanchez I. (2012) La cárcel en España: Mediaciones y condiciones del encarcelamiento en el siglo XXI; *Revista de Derecho Penal y Criminología*; No. 8 351-402 or.
- Guerrero, L. F. (2007) *Seguridad pública y prevención del delito en el estado social de derecho. Especial comentario a la trascendencia de la educación*; . Dikaion. Universidad de La Sabana; No. 16; 251-272 or.
- Hanson R.K. et al. (2009) A meta-analysis of the effectiveness of treatment for sexual offenders: risk, need, and responsivity; *Public Safety Canada*
- Harris, D. (2014). Desistance From Sexual Offending. *Journal of Interpersonal Violence*; Vol. 29(9);
- Harris D. (2015) Desistance from sexual offending: Behavioral change without cognitive transformation; *Journal of Interpersonal Violence*;
- Hartjen C.A. eta Priyadarsini S. (2012) The Global Victimization of Children: Problems and Solutions; *Springer Science + Business Media*
- Herrero, O. (2007) El tratamiento de los agresores sexuales en prisión: Promesas y dificultades de una intervención necesaria; *Anuario de Psicología Jurídica*, Vol. 17, 43-63 or. (Madrid)
- Herrero, O. (2013); ¿Por qué no reincide la mayoría de los agresores sexuales?; *Anuario de Psicología Jurídica*, vol. 23. Madrid

- INE (2021). Delitos sexuales 2015-2019. Madrid: Instituto Nacional de Estadística.
- Khan Z. (2018) An exploration into the unknown world of pedophilia; *The Sociological Eye*
- Kruttschnitt C., Uggen C. eta Shelton K. (2000) Predictors of desistance among sex offenders: the interaction of formal and informal social controls; *Justice Quarterly*; Vol. 17 No. 1; 61-87 or.
- Loeber R., Farrington D. eta Redondo S. (2011) La transición desde la delincuencia juvenil a la delincuencia adulta; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Monografía 1, No. 9
- López F. (UNAF) (2015); *Derechos sexuales: universalidad y diferencias culturales*; Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=43mkwyte-UI&t=3406s>
- Luna de la Mora T. (2014) *Desistimiento delincencial y prevención de una corriente en criminología para favorecer la seguridad*; La ciencia criminológica en la prevención y sus campos de aplicación; Editorial Flores (México)
- Marshall, W. L., & Marshall, L. E. (2014). Psychological Treatment of Sex Offenders. *Psychiatric Clinics of North America*, 37(2), 163–171. Or.
- Marteache N., Martinez M. eta Pérez M. (2010) Comparación entre opinión pública y opinión pública meditada en relación a la delincuencia sexual; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Art. 7; No. 8
- Martín N. eta Vozmediano L. (2014) Conducta de agresión sexual: Revisión de la literatura y propuesta de análisis mediante el modelo de triple riesgo delictivo; *International e-Journal of Criminal Science*; Art. 3, No. 8
- Martínez A. eta Redondo S. (2016) Etiología, prevención y tratamiento de la delincuencia sexual; *Anuario de Psicología Jurídica* 26; 19-29 or.

- Martínez D. eta Abrams L. (2011) Informal social support among returning young offenders: A metasynthesis of the literature; *International Journal of Offender Therapy and Comparative Criminology* 57 (2);
- McAlinden, A.-M., Farmer, M., & Maruna, S. (2016). Desistance from sexual offending: Do the mainstream theories apply?; *Criminology & Criminal Justice*; 17(3); 1-18 or.
- McNeill F. (2016) El paradigma del desistimiento para la gestión de delincuentes; *Revista para el análisis del derecho* (Barcelona)
- Millán S., et al. (2006) Victimología infantil; *Cuadernos de Medicina Forense* n.43-44
- Money, John & Pranzarone, Galdino. (1993). Development of Paraphilia in Childhood and Adolescence. *Child and Adolescent Psychiatric Clinics of North America: Sexual and Gender Identity Disorders*. 2.
- Montero E. (2019) La reeducación y la reinserción social en prisión: el tratamiento en el medio penitenciario español; *Revista de Estudios Socioeducativos*; No. 7, 227-242 or.
- Nathat P. eta Ward T. (2002) Female sex offenders: Clinicar and demographic features; *The Journal of Sexual Aggression*
- Nguyen T., Frerich N. et al. (2014) Reinserción y gestión del riesgo de reincidencia en agresores sexuales excarcelados: el proyecto “Círculos de Apoyo y Responsabilidad” en Cataluña; *Boletín Criminológico*; Art.4; No. 151
- Núñez M.C. eta López M.J. (2009) Psicopatología y delincuencia: Implicaciones en el concepto de imputabilidad; *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*
- Oliver. S. (2020) *El círculo del abuso sexual infantil: Relación entre ser víctima y la comisión de delitos sexuales en la adolescencia*; Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa (Trabajo de Fin de Grado)
- Oliverio A. eta Graziosi B. (2004); *¿Qué es la pedofilia?*; Paidós, Barcelona

- Padrón F. (2014) *Expectativas de reinserción y desistimiento delictivo en personas que cumplen penas de prisión: factores y narrativas de cambio de vida*; Kataluniako Unibertsitatea (Trabajo de Fin de Master)
- Palmou A. (S.F.) Carrera delictiva: Criminología del Desarrollo Vital; *Revista, Pensamiento Penal*
- Pascual S. (2011) La pederastia griega y el Eros platónico; *Avances de Investigación*, Uruguay
- Pedrazzoli, C. eta González, S. (2012) Tratamiento penitenciario dispuesto para los agresores sexuales; *Compendio Jurídico*
- Peña M. eta Anfreu J. M. (2012) Distorsiones cognitivas: una revisión sobre sus implicaciones en la conducta agresiva y antisocial; *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*, Vol. 12,
- Peter T. (2009) Exploring Taboos: Comparing Male- and Female- Perpetrated Child Sexual Abuse; *Journal of Interpersonal Violence*; Vol 24, No 7
- Pranzarone G. et Money J. (2020); Paraphilias: Flaws and Errors in Childhood Lovemap Development
- Rathus, Spencer A., et al. (2005) *Sexualidad Humana*. Pearson Educación
- Real Academia Española (2014) *Diccionario de la lengua española* (23a ed.)
- Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario.
- Redondo, S. (2006) ¿Sirve el tratamiento para rehabilitar a los delincuentes sexuales; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Artículo 6, No. 4
- Redondo S. (2017) *Evaluación y tratamiento de delincuentes: Jóvenes y Adultos*. Pirámide
- Redondo, S. (2008) Individuos, sociedades y oportunidades en la explicación y prevención del delito: Modelo del Triple Riesgo Delictivo; *Revista Española de Investigación Criminológica*; Art. 7, No. 6

- Redondo S., et al. (2005) Evaluación del tratamiento psicológico de los agresores sexuales en la prisión de Brians; *Boletín Criminológico*, No.79
- Redondo S., Mangot A. (2017) Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: Una revisión científica ;*e-Eguzkilore Zientzia Kiminologikoen Aldizkari Elektronikoa* n. 2, 2.Zenbakia
- Redondo S., Pérez M. eta Martínez M. (2007) El riesgo de reincidencia en agresores sexuales: Investigación básica y valoración mediante el SVR- 20; *Papeles del Psicólogo*, Vol 28
- Sánchez N., López R. eta Domínguez A. (2018) Parafilias: Una revisión comparativa desde el DSM-5 y la CIE-10; *Behavior and Law Journal*; Vol. 4
- Serrano M.D. (2012) La prisión perpetua revisable; *RJUAM*; No. 25; 167-187 or.
- Seto, M. (2004) Pedophilia and Sexual Offenses Against Children; *Annual Review of Sex Research*, 15
- Smallbone S.W. eta Wortley R.K. (2001) Child Sexual Abuse: Offender Characteristics and Modus Operandi; *Australian Institute of Criminology*, No. 193
- Soria, M.A.; Hernández J.A. (1994) El agresor sexual y la víctima; *Marcombo*, Barcelona
- Tauzy K. (2019) *Ofensores sexuales: tratamientos, efectividad y adherencia. Una revisión sistemática cualitativa*; Universidad de la República; Trabajo final de grado (Uruguay)
- Valderrama P. (2016) Los módulos de respeto en las cárceles, una revisión desde la educación social; *Revista de Educación Social*; No. 22; 22-49 or.
- Valencia O. et. al. (2008) Nivel de reincidencia en agresores sexuales bajo tratamiento en programas de control de la agresión sexual; *Psicopatología Clínica Legal y Forense*, Vol. 8, 7-18 Or.
